



Lehenbizikoa arrantzatu du Eduardo Oiarzabalek

Herriko bestak

Urdazubi / Irurita → 11-17

ESKUALDEA

'Gure Esku Dago'rekin bat egiteko ekitaldiak nonahi

LESAKA → 19

Landa eremuko eskolen jardunaldiak hilaren 17an

LEITZA → 34

Kultur Aroa maiatzaren 15etik ekainaren 14ra

BAZTAN → 38

EMOT dokumentua eztabaidan



→ ERREPORTAJEA

DOLUA HAURRENGAN

Mirentxu GOIENETXE eta Ainhoa ARBURUA | Nahia Psikoterapia Zentroko psikologoak

ZOKKETAK

→ 52

«Hagitz tristea den zerbait gertatu da. Aita/ama hil egin da. Ez da gehiago gure artean egonen, bizitzeari utzi diolako».

Hitz gogorak dira baina beharrezkoak, Nahia Psikoterapia Zentroko Ainhoa Arburua eta Mirentxu Goienetxeren arabera. Iritzi berekoa da

Izaskun Zubialde. «Hurbileko pertsona baten heriotza gainditzeko haurrei egia esan behar zaie, asko solastu eta maitasun asko adierazi».



ttipi txartela eginez gero 2 liburu opari

Txartela egiteko deitu
948 635 458 telefonora

Abel Barriolak falta zitzaion txapela jantzi du binakako txapelketa irabazita.

→ 44





acQrn
Quality Language Learning

AILEGATU DIRA UDAKO IKASTARO TRINKOAK!!

**INGELES-, FRANTSES- eta ALEMAN-
IKASTAROAK**

- Helduentzako eta gazteboentzako ikastaroak
 - Ikastaro trinkoak: egunean 2 ordu
- Ordutegi malgua. Eskolak astelehenetik ortziratera
 - Hango irakasleak. Hizkuntza-murgiltzea
 - Talde txikiak (gehienez ere 9 ikasle)
- Homogeneoak adin eta mailaren arabera
 - Ikastaroaren hasiera: uztaila
 - Aukeran 2 eta 4 asteko ikastaroak

Izena ematea irekita dago

Koskontako bidea, 11, behea - LESAKA Tel. 948 637 135
E-posta: info@acornlanguages.com




www.acornlanguages.com



**ERABAKITZEKO
ESKUBIDEARI**

BAI

BOZKATU

ehbildu
herrikerabaki



GIZARTEA → HERIOTZAREN GAIA HAURREKIN

Bizitzaz bezala heriotzaz ere normaltasunez eta naturaltasunez

Adinaren arabera, haurrek modu batera edo bertzera bizi dute hurbileko norbaiten heriotza

Hurbileko norbait hiltzen denean haurrekin heriotzaren gaia lantzea ezinbertzekoa da. Gogorra bada ere, adituen arabera, ez zaie gezu-

rik erran behar, ezta errealitatea ezkutatu ere. Modu sinplean eta ahalik eta abudoen, gertatutakoa esplikatzea garrantzitsua da.

G. PIKABEA

«Hagitz tristea den zer-bait gertatu da. Aita/ama hil egin da. Ez da gehiago gure artean egonen, bizitzeari utzi diolako». Hitz gogorak baina beharrezkoak. Nahia Psikoterapiako Mirentxu Goienetxe eta Ainhoa Arburua psikologoek arabera, hurbileko norbait hiltzean hori izan daiteke gertatutakoa haurrari azaltzeko bidea.

«Ume batekin heriotzaz solastea gogorra eta zaila bada ere, ahalik eta abudoen egitea komeni da. Hasierako dramatismo eta nahaste orduak pasatuta, momentu eta toki egokia bilatu eta gertatutakoa hitz sinple eta zintzoekin esplikatu behar da». Heriotza nola gertatu den kontatzeaz ere aritu zaizkigu: «hitz gutti-tan egiten ahalegindu be-

har dugu. Adibidez, 'azken aldian hagitz gaixorik zegoen eta gaixotasunaren ondorioz hil egin da'. Egoera horretan, «edo zein gaixotasun arruntekin hiltzeko beldurra senti dezake haurrak, eta hortaz garrantzitsua da norbait hil denean hagitz gaixorik zegoela erratea, gutti-tik duten gaixotasuna zuela erratea». Heriotza istripu bat tarteko dene-

an, «hagitz larri zauritua gelditu zela kontatzea diezaiokegu, mediku eta erizainek ahal zuten guztia egin zutela gorputza 'konpontzeko', baina batzuetan hain zauritua edo gaixorik dagoenean botikek ezin dutela sendatu».

ZERGATIK?

Zergatik hil da? Zergatik niri? Ez dira harritzeko galderak. Arburua eta Goienetxe aholku batzuk eman dituzte erantzunekin laguntzeko: «ez da deus ere pasatzen gure gure buruari galdera berak egiten dizkiogula edo erantzuna ez dakigula erranda. Bizidun guztiak egunen batean hilko gara eta mundu guztia-ri gertatzen zaiola jakinarazi behar zaie. Baliteke haurrek eurek pentsatu, erran edo egindako zerbaitek heriotza eragin duela pentsatzea. Ume batek 'hobeki portatu izan banintz, ez litzateke hilko' erraten badu, garbi utzi behar zaio ez dela bere errua izan». Haurrek heriotza zer den ulertzen la-

guntzeko, egunerokoan heriotza presente dagoen adibideak erabil daitezkeela diote psikologoek: «ingurumenean, animalien heriotza...».

HILDAKOARI AGUR ERRAN

Goienetxe eta Arburua argi dute: «haurra beilatokira, hiletara... joateko animatu behar da. Gisa honetako ekintzek heriotza zer den ulertzen lagun diezaioke eta doluaren prozesua hobeki hasten lagundu. Hori bai, aukera baldin bada, zer ikusi, zer entzun eta erritu horien zergatia aitzinetik azaltzea ere komeni da».

Haurra hildakoa ikus-tera eramatearen aldekoak dira bi psikologoak: «ume aunitzek gorputza- ren gaineko irudi faltsuak dituzte. Gorputza mugit- zetik erabat gelditu dela adierazi behar zaie, eta betiko dela, arnasteari, jateari, solasteari, komu- nera joateari utzi diola eta ez duela minik sentitzen. Are gehiago, «ez duela deus ere sentitzen esplika- tu behar zaie». Horre-



Mirentxu Goienetxe eta Ainhoa Arburua psikologoak.

kin batera, «ez dela amets bat erran behar zaie eta ez dela gehiago esnatuko». Hildakoa ikusi aitzinetik, gorpua non dagoen eta zein itxura duen kontatzea ere ona omen da, baita «haurrak gorpua ondoan lasai momentu bat pasatzea» ere. Halere, gorpua ikusi nahi ez badu, «ez derrigortu eta ez gaizki sentiara zi joan nahi ez duelako».

Bizirik gelditu den aita edo ama hauraren beharrei erantzuteko ukituegia badago umearen hurbileko norbait beretzat ardura ztearen garrantzia ere

azaldu dute, «haurrari emozioak adierazteko aukera eman eta bere galderei erantzuteko eroso sentituko den norbait».

DOLU OSASUNTUA

Nahia psikoterapiako en hitzetan dolua lantzeko «lau egiteko» daude:

• **Errealitatea onartzea:** heriotza gertatu eta atzerazina dela onartu, eta 'ez da egia', 'ezin dut sinistu' gainditu behar dira. Horretarako hildakoa ikusi eta hiletara joatea lagungarria izan daiteke.

• **Sentimendu eta emozioak landu:** emozio edo



sentimenduak gordez gero, dolu patologikoaren arriskua haunditzen da. Hortaz, hauek saihestu behar dira: gogorrarena egin, hildakoa idealizatu, bere galeraren alderdi atseginak bakarrik kontuan hartu, mina pilula eta alkoholarekin arindu, hildakoa oroitarazten duten guztia saihestu eta hipe-rakrititate eta antsietate handiz okupatuta egon.

• **Hildakoa ez dagoen ingurura egokitu:** denbora batera hildakoa gabe bizi behar dela onartu behar da, eta hala, lehen hildakoak egiten zituen

gauzak norbere gain hartu beharko dira.

• **Hildakoa emozionalki lotu eta aitzinera segi:** maite duzunaren oroitzapenak ez dira sekula desagertuko. Beraz, helburua ez da hildakoa azahatea, bizi za psikikoan toki bilatzea baizik.

IZASKUN ZUBIALDE GRAJIRENA | ISTRIPUZ SENARRA GALDU ZUEN EMAKUMEA ETA BI SEME-ALABEN AMA

«Hurbileko baten heriotza gainditzeko hurrei egia esan behar zaie, asko solastu eta maitasun asko adierazi»

«Lehenengo eguna *shock* eguna izan zen. Ez nuen sinetsi nahi. Berekin haserre nengoen. Min handiko momentuak ziren, sentimendu nahasien egunak». Horrela oroitzen du Izaskunek Lino senarra galdu zueneko garaia. Kamioiarekin izandako ezbehar baten ondorioz, 2009ko urrian hil zen Lino zubietarra. 4 urteko alaba eta urtebeteko semea aitarik gabe gelditu ziren. «Ezin zela egia izan» pentsatu zuen Izaskunek eta «egun hura oso arraroa izan zela» gogoan du: «besteekiko nolako eragina izanen zuen pentsatzen nuen, umeak, gurasoak, senideak... Ez nuen beraiek gaizki pasatzea nahi. Nire buruaz atzendu nintzen lehen momentu haietan». Baina garbi izan zuen seme-alabei egia esan zela: «alabari arrats hartan egia kontatu nion, nire ustez hurrei momentu guztian egia esan behar zaielako. Babestu nahi ditugu, baina errealitatea onartzea da egokiena. Egia esan, negar egin eta solastu, sentimenduak atera. Semeak, berriz, urtebete besterik ez zuenez, poliki-poliki konturatuz joan zen. Bere garapenaren arabera esplikatu nion. Solasten hasi zenean, galderak egiten hasi zen, eta une hartan egia kontatu nion. Istripua pasatu zenean ere esan nion gehiago ez zela etorriko, istripua izan zuela eta hil egin zela». Alabak «negar asko» egin zuela oroitzen da Izaskun, eta «andereñoari kontatu behar ziola esan zidan. Elkarrekin negar egitea oso garrantzitsua izan zen beretzat ere, sentimendu berdina genituela ikusten zuelako». Seme txikiak, aldiz, ez omen zuen negarrarekin adierazi: «ez zuelako ulertzen hil eta berriz ez ikustearren ideia. Baina zerbait arraroa bazegoela sumatzen zuen». Aitaren hutsunea nabaritu arren, bizitza berregin behar izan dute.

Halere, Izaskunek azpimarratu digunez, «aita gurre ahoan dago edozein momentutan eta naturaltasun osoz solasten dugu. Biek badakite egia

zein den, nola pasatu zen istripua eta ez dugula berriz ikusiko. Gurre bihotzetan beti egonen dela ere badakite». Izaskunen irudiko, heriotza gainditzeko «jarrerarik egokiena egia esatea da. Egia esaterakoan konfidantza handia eta elkarrekin askoz komunikazioa behar sortzen da. Esperientzia txarrak gainditzeko konfidantza guztia-rekin solastu besterik ez dugu, hau da, barruan ez gorde». Hurrek helduek baino lehenago gainditzeko dute dolua eta horren seinale haxe adierazi digu: «aitaren istriputik sei hilabete pasatu zirenean, alabak gure familia marraztu zuen. Marrazki horretan ama, anaia eta bera ageri ginen. Aitaren hutsunea onartu zuela adierazi zidan marrazkiak».

Gizartean heriotzaren gaia «tabu» bat bailitzan ikusten du Izaskunek, eta bere ustez, «ez luke horrela izan behar. Pertsona guztiak jaio, bizi eta hil egiten gara eta ez dakigu noiz izanen den gure bukaera. Horretarako prestatura egotea oso garrantzitsua da. Etxe eta eskoletan gaia jorratzea ere egokia ikusten du. Berak behintzat garbi du: «hurrei egia esan, asko solastu eta maitasun asko adierazi». Horixe da halako egoera gogorrek gainditzeko bere aholku nagusia.



ADINA ETA ULERMENA

Heriotzaren ulermena adinaren arabera

Adinaren arabera, haurrek ez dute berdin ulertzen heriotza. Nahia psikoterapiako kideen arabera, umeei heriotza «atzeraezina, unibertsala eta iraunkorra dela ulertzeko denbora eta bizi organismoaren funtzionamendua bezalako kontzeptuak ulertu behar dituzte». Hala, kontuan hartu beharreko faktoreak bortz direla diote Mirentxu Goienetxek eta Ainhoa Arburuak: «adina, heldutasuna, ulermen gaitasuna, baloreak eta erlijio sinismenak».



0-10 HILABETE ARTEKOAK

- Ez dakite heriotza zer den, banantze bat bailitzan bizi dute. Galera, batez ere amarena bada, bat-bateko aldaketa eragiten du. Haurtxoak ezinegonak senti dezake amaren falta somatuta eta bere inguruan aurpegi eta ahots berriak daudela ohartuta. Atsekabetuak sentitzen dira euren bizitzako pertsonarik garrantzitsuena falta zaienean. Inguruko min barneratzen dute (jolas-teko tarterik ez, aurpegi irribarretsuri ez...) eta elikadura ohituretan eta loan aldaketak izan ditzakete, negar etengabea ageriko arrazoirik gabe, umore txarra...

• Hildakoa bertze familiako bat bada, amak sentitzen duen mina sumatuko dute.

• **Zer egin?** Haurtxoaren errutina mantendu, ohiz kanpoko soinu eta gertaerak bere inguruan murriztu eta ahalik eta azkarren haurtxoaz arduratuko den pertsona bere bizitzan barneratu.

10 HILABETETIK 2 URTERA ARTE

- Ez dute heriotza ulertzen. Banantzea edo uztea dela uste dute.

• Haurtxoaren erantzunak hauek dira: haserre, negarra, hertzeetako arazoak... Lehengo jarrera har dezakete, behatza txupatuz adibidez. Aldaketak, orokorrean, denboraldi baterako izaten dira, eta familia berantolatzen denean eta haurtxoaren ingurua egonkortzean desagertzen dira.

• **Zer egin?** Egonkortasun eta segurtasuna nagusi den ingurua eman, errutina mantendu, ahalik eta denbora gehien eskaini, babesa eta maitasuna eman, lasaitu eta jolastu, gauzak eta sentitzen duen tristuraren arazoak azaldu, eta honelako esaldi sinpleak errepikatu: «aita hil egin da». Gisa honetara zerbait garrantzitsua gertatu dela ulertzen lagunduko die eta horren ondorio direla etxean izan diren aldaketak. Beharrezkoa bada laguntza eskatu.

5-10 URTE BITARTEKOAK

- Errealitatea ulertzen dute eta 10 urte inguru dituztenean ulertzen dute baina bertzei bakarrik gertatzen ahal zaiela uste dute.

• Haurrak garai honetan bereziki sentikorrak dira. Heriotza hobeki ulertzen dute baina horri aurre egiteko abildade pertsonal eta sozialak falta zaizkie. «Zer gertatzen da hildakoa?» bezalako galderak egiten dituzte. Batzuetan deus pasatu ez balitz bezala ere jokatzen dute. Ukazioa hagitz ohikoa da. Gutxiespena eta galera onartzea txandakatzen dituzte. Heriotza eragin dutenaren errudun senti daitezke, jarrera edo pentsamendu txar baten ondorio.

• **Zer egin?** Emozioak eurekin konpartitu eta berekin egoteko denbora hartu; sentimenduak adieraz ditzaten animatu; egoiak ez diren jarrerak zuzendu baina ohi baino maitasun eta arreta gehiagorekin; lasaituarazi adin horretan heriotzari beldurra sentitzea normala delako, mediku eta erizainekin lotzen dute...; heriotzaren arazoia modu sentikor eta ulergarrian azaldu; «ez egin negarrik haundia zara» edo «ausarta izan behar duzu» bezalako esaldiak saihestu eta ez hasi hildakoa idealizatzen.

Haurrei gezurrik ez erratea eta errealitatea ez ezkutatzea garrantzitsuak dira. 'Orain indartsua izan behar duzu', 'Ez egin negarrik' edo 'Orain etxeko gizona zu zara' bezalako esaldiak saihestu behar dira.

10-18 URTE BITARTEKOAK

- Heriotza unibertsala, atzeraezina eta iraunkorra dela badakite; arrazoibidea ere logikoa da baina ezetza hagitz ohikoa da. Nortasun arazoak ere izan ditzakete eta emozioak ezkutatze joera dute. Jarrean ere eragina izan dezake: errebeldeago bihurtu, kontsumoak, gatazkak...

• **Zer egin?** Emozioak eurekin konpartitu; sentimenduak adierazteko bide osasuntsuak proposatu (kirola kasu); euren kezka eta beldurrei kaso egin; pazientzia eduki eta babesa eta segurtasuna eskaini.

2-5 URTE BITARTEKOAK

- Ez dute ulertzen heriotza atzeraezina, iraunkorra eta behin betikoa dela. Beraientzat heriotzaren kontzeptua mugatua da, hildakoa ez da betirako. Denboraz duten kontzeptua ere mugatua da: maiz galde dezakete noiz itzuliko den ama edo aita. Heriotza pentsamendu edo jarrera txarren ondorio izan dela ere pentsa dezakete, edo harritu gaitzaketen galderak egin: «zer-gatik ez dugu bilatzen bertze aita edo ama bat?» Axolagabetasuna ere erakus dezakete, ez dutelako denbora luzez mina agoantatzen. Beren galdera bertzei kontatzeko beharra ere sentitzen dute, baita ezezagunei ere. Laguntza bilatzeko egin dezakete edo bertzeen erreakzioak zein diren jakin eta nola sentitu behar duten deskubritzeko.

• **Ohiko jarrerak:** arazo fisiologikoak (loan aldaketa, apetitua, tripako mina, haizeak...), gibelera egitea (behatza txupatu, kasketak...), beldurra sentitzea (iluntasunari, ohatzera joateko, toki berrira joatean...), erruduna bera dela sentitzea, emozioak (antsietatea, tristura, estutasuna sentitu, negarrak, axolagabetasuna...)...

• **Zer egin?** modu sinple eta argian eman heriotzaren berri; kontaktu fisikoaren bitartez berekin solastean konfidantza eman; heriotzarekin gorputza erabat gelditzen dela azaldu; ez baztertu solasaldi eta bisitetatik; pazientziarekin jokatu, ez haserre-tu eta ez erruduna sentiarazi; zuregandik ez urrundu eta ez bertze toki batera bidali; sentimenduak azaleratzeko aukera eman; uzteko beldurrik senti ez dezan lasaituarazi; «aita lotara joan da eta ez da gehiago esnatuko» edo «jainkoak ama maite zuen eta zerura eraman du» bezalako esaldiak baztertu; eta zure emozioak konpartitu.

**Nire txanda**

Ruben GARATE

Guztiok gara Enaitz

Haur talde batekin bildua nengoen. Zortzi urteren bueltan zituzten. Itxuraz, buruhauste eta kezkarik gabeko munduan bizi diren haurrak hauek ere... Lekzio ederra eman zidaten ordea. Duela gutxi facebook bidez iritsi zitzaizkidan bideo bat erakustea burutatu zitzaizkidan. Bideo honetan, garun-paralisia duen mutiko baten istorioa jasotzen dute modu goxoan. Beran bizi den 5 urteko haurrarena, honezkero aunitzek pentsatu izanen duzun bezalaxe Enaitzen istorioa.

Bideoa ikusi ondotik, haurren erreakzioak zur eta lur utzi ninduen. Egiten zituzten gogoeta eta galderek barrua mugiarazi zidaten eta agerian utzi zuten ttiki hauen arima, bihotza eta sentimendua. Duzun horretan pertsarazi eta egoera zailetan aitzinerant joatea ahalbidetzen duten sentimendurak dira. Inozokeriengatik kexaka aritzen garela erakusten digutenak. Muturreko egoerak izaten dira merezi duen horren alde borrokatzera bultzatzen gaituztenak. Bideoa oraindik ez baduzue ikusi, gonbita luzatzen dizuet. www.enaitzgara.org orrialdetan eskuratuko duzue informazio gehiago. Ahal dugun neurrian borroka egin dezagun guk ere Enaitzen alde, guztiok baikara Enaitz. Animo!

Ezpala

Aitor AROTZENA

Izarra paparazzi eta fan artean

Itsasoz bertzaldetik etorritako artista uzkur dago etxetik mugitu gabe. Atarian somatzen ditu fan eta zaleak, gau eta egun euripean, bera noiz agertuko, noiz ukituko, noiz besarkatuko, noiz usainduko... Kazetari, telebista kamera eta argazkilaria ere ez dabilta urrun, izarraren irudia noiz harrapatuko. Azkenean, hiru egunen ondotik, gogo txarrez atera da, atera dute Bidasoko Lehenbizikoa.

Nabarmentzekoak

**Eduardo OIARTZABAL**
Bidasoko Lehenbizikoa

Denboraldiko laugarren egunera arte esperatu behar izan zen Bidasoko lehenbiziko izokina ateratzeko. Doneztebeko 38 urteko arrantzaileak atera zuen bere bizitzako lehen izokina.

**Abel BARRIOLA**
Binakakoan ere txapeldun

Buruz burukoa eta lau terdiko txapelak irabazi zituela urte batzuk pasatuak ziren eta orain binakakoa jantzi du leitzarrak Irujorekin batera. «Pilotarekin zorraz kitatu dituela» adierazi du.

**Aita Claudio ZUDAIRE**
Lekarozen omendua

Lekarozko Kolegioko ikasle ohien batzarrean omendu zuten urtetan Elizondoko korallarekin aritu zen organujolea. Lezaundarra sortzez, baztandarra bihotzez, musikologo handia da.

Aztera begira → 2004-V-20 / TTPI-TTAPA 374. zk.



Sendabelarrak ezagutzen Arantxa Zubieta beratararekin

Beran eman zen ikastaro batean murgildu zen sendabelarren munduan Arantxa Zubieta, nahiz eta betidanik gustatu izan zaion medikuntza alternatiboaren eta elikaduraren mundua. «Medikuntza orokorrak sintomara jotzen du, gaitzaren zergatia maiz bazter batera utzita» zioen. Gure aitaxi-amatxien garaitik honat sendabelarrak erabiltzeko ohiturak beheiti egin du, bere ustez «erosotasunagatik». Baina beratar honek zioenez, sendabelarrekin norbera arduratzen da bere osasunaz eta sendabelar aunitzek eritasuna ailegatu aitzinetik neurriak hartzeko balio dute.



Argitaratzailea Ttipi-Ttapa Fundazioa • **Egoitza** Koskontako bidea, 07-1 • 31770 LESAKA

Tel. (+34) 948 63 54 58 • Faxe (+34) 948 63 54 57 • info@ttipi.net

Zuzendaria Aitor Arotzena **Erredaktore burua** Gurutze Pikabea **Erredakzioa** Eneritz Iraola **Publizitatea** Usua Vicente, Amaia Odriozola **Berriemaileak** Esteban Arotzena, Juana Mari Saizar, Konbi Klaber, Ainhoa eta Maider Ansa, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Iratzoki, Nerea Aitzuri, Joseba Urrotz, Irupe eta Itzaso Elizagoien, Maite Oteiza, Maider Petrirena, Markel Lizasoain, Fermin Etxekolonea, Fernando Etxeberria, Izaskun Goñi, Joana Guerediain, Martin Bertiz, Nerea Telletxea, Martin Larraalde, Juan Mari Barriola, Joxean Ortega.

Fundazioaren Presidentea Pello Apezetxea **Kudeatzailea** Joxemanuel Irigoien **Administrazioa** Amaia Goia

Lege Gordailua NA-1324/85 • **ISSN** 1578-4673 • **Tirada** 6.000 ale

Erakunde laguntzaileak Etxalar, Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senpereko udalak, Zugarramurdioko Akelarre elkarteak, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea

2014ko harpidetza sariak

Hego Euskal Herria	40€	Europa	59,50€	Baztan, Urdazubi eta Malerreka	34€
Ipar Euskal Herria	59,50€	Amerika eta Australia	124€	Leitza	17€



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria



Bortzirietako Euskara Mankomunitateak diruz lagundua

Kolaborazioak

Hamasei abizen espainiar

Luis GARDE

García, González, Fernández, Rodríguez, Pérez, López, Martínez, Sánchez. Euskal Autonomi Erkidegoan abizen hedatuenak omen dira, egunotan prentsan irakurri izan dugunez. INEK (Instituto Nacional de Estadística) urtero hedatzen dituen datuak dira horiek, eta Euskal Herriko gaztelaniazko hedabideetan beren lekutxo hartzen ohi dute, agian abizenen kontu horretan *España osoko lurraldeen arteko parekotasuna* ikusi nahi duela-ko batek baino gehiagok. Aurten, halere, *Ocho apellidos vascos* filmaren arrakasta itzelaren harira, zaparta handiagoa atera zaio abizenen estatistika horri. Oso aspaldi erran zidaten Nafarroan dugun euskal abizenen proportzioa Bizkaian dagoena baino handiagoa dela... Baliteke.

Interesgarriagoa, bestalde, izenen gaia da: jaioberriei usuen jartzen zaizkien izen gehienak euskaldunak dira, ez bakarrik Euskal Herrian (hegoaldean, bederen) gure Nafarroan ere bai. Abizenen frekuentziaren datuak iraganaz solasten zaizkigu; izenen frekuentziak, nire ustez, orainaz eta etorkizunaz zerbait erraten digu. Inork ez du ez bere abizena ez bere izena aukeratzeko, noski; amateixi Escolásticari eta atautxi Teofrastori ez zieten apezek galdetu zer izenekin bautizatu behar zituzten; baina gaur seme-alabentzat, Beran nahiz Tudelan, Iker edo Ainhoa bezalako izenak aukeratzeko dituzten gurasoek zeozer adierazten ari dira beren sentimenduei buruz»

«Gaur seme-alabentzat, Beran nahiz Tudelan, Iker edo Ainhoa bezalako izenak aukeratzeko dituzten gurasoek zeozer adierazten ari dira beren sentimenduei buruz»

Ez, ez dut ikusi Ocho apellidos vascos. Zutabe hau idazteko on line ikusten saiatu naiz, baina zati bakarra batzuk besterik ezin eskuratu. Topikoz betea, dudarik gabe. Jakina da zailagoa dela barrea eragitea malkoak sortaraztea baino; umorea beti hagitz pertsonala dela. Nire kasuan, umore erregionala ez dut gustuko. Zaharkitua eta topikoa ikusten dut, frankismotik honat aspertu arte errepikatua: zapala txikia jantzi, edo azentu andaluziarra atera, eta tira, txistea eginga dago. Baina ez naiz ni halako pelikularik ikustea gaiztetsiko duena; zentsore betihaserreek aski gogaitzen bainaute, egun eta gehiago. Ez da nire pelikula, ez naiz Txingudira joanen hura ikustera krispeta poltsa erraldoia eskuan dudalarik; baina Vaya semana motako programak atsegin badi-tuzu, edo efektu berezietan oinarritutako hiperluxuzko produkzio amerikarrez nazkatuta baldin bazau-de, aprobetxatu ordu eta erdi algaraka pasatzeko. Zure esku!

Larramenditarrak

Mikel TABERNA «Kapi»

Aitzin horretan Iruñean izan ginen, Juan Larramendiren (Bera, 1917-2005) pintura-lanen erakusketa baten inaugurazioan, haren seme Juantxok gonbidatuta (bera ere obra joriko pintorea; 2012an arte plastikoetako *Cultura Viva* sari ospetsua eman zioten Madrilan). Juanen koadroak ikusiz gozatzen ari nintzela ("aurten izanen dugun esposizioari hoberena", erran zidan pinturaz dakien hango adiskide batek), burua hegaka joan zitzaidan harekin aspaldi izan nituen solasaldietara. Pintzelarekin bezain abila zen mingainarekin, zorrotza eta berezko grazia zuena zernahiri buruz aritzeko. Behin, haserre kontatu zidan Iruñeko Udalak antolaturiko lehiaketa bat irabazi zuela 1944an, baina ez zuela kobratu zor zioten dirua eta, gainera, kuadro saritua desagertu egin zela, lotsagaberen batek bereganatu izanen zuela; ez zen harrituko orain ere gertatzen ari direnekin (*Kontuz* elkarrekin salatu du Nafarroako Kutxatik desagertu direla 157 artelan). Juanen bitartez ikasi nuen, baita ere, nor zen bere aita: Inazio Larramendi (Bera, 1874-1960), espartzin-egilea eta poeta. Gizon "xuxena" eta "fina" izanagatik, nazionalista zelakoz aunitz sufritu zuen gerra zibil-lean; bertzeak bertze, umiliatzeko ideiarekin frankistek Espainiako bandera monarkikoa etxeko balkoian paratzera obligarazi zuten. Bertso eta poema aski ederrak utzi zizkigun euskaraz idatzia, eta euskaltzain urgazle izendatu zuten. Gure hizkuntza nola maite zuen oharatzeko, honat ekarriko ditut berak eskribituriko hitz batzuk, Norbert Tauertxekiar euskalariari 1955 aldera eskutitz bidez bidaliak: "Badira uste duten euskaldun zozoak euskera sarri akabatuko dela; ori da gauza bat iñork eztakiena; nik dakidana da gaur ludian bizi diren denak ilda gero ere biziko dela euskera, eta gero zer gertatuko den iñork eztaki. Beñipein ni bizi naizen artean biziko da ta ilda gero ere nere aitarekin zeruan, ezbeitzekien erderaz, euskeraz itzezin gogo dut... Ludi ontan modak agitz agudo aldatzen dire eta euskera galtzeko moda au ere galdu ditek...". Neronek ere hil eta gero bozik hartuko nuke horrelako laguna, gauden tokian gaudela harekin gustura aritzeko erausian.

«Pintzelarekin bezain abila zen mingainarekin (...) Behin, haserre kontatu zidan Iruñeko Udalak antolaturiko lehiaketa bat irabazi zuela 1944an, baina ez zuela kobratu zor zioten dirua eta, gainera, kuadro saritua desagertu egin zela, lotsagaberen batek izanen zuela»

Irakurleak mintzo

Malerrekako herrietako eskolen eskertza

Ana URROZ (Malerrekako herrietako eskolak)

Apirilaren 15ean Sunbillan, Malerrekako herri eskolen Joku topaketan IV.edizioa ospatu zen.

Aurten ere Sunbilla, Ituren, Narbarte, Legasa, Saldias eta Beintza Labaiengo eskolak urteroko festa ospatu genuen.

Goiz goizetik eguraldia lagun genuela zonaldeko sei herri eskoletako 204 ikasle eta irakasleak Sunbillako frontoian elkartu ginen.

Egun polita izan zen benetan egun hau, baina dena ongi ateratzeko eta ekintza guztiak aurrera eramateko jende askoren laguntza behar da. Horregatik Malerrekako herri eskoletako irakasle guztien partez esker gutun hau idatzi dugu.

Lehenengo Sunbilla herriari eskerrak eman nahi dizkigu, bereziki Udaletxeari, urtero pres egoten delakoz gure behar guztietan laguntzeko eta udaletxeko langile den Juanjori bere borondate onagatik.

Aurten eskertu nahi genituzke ere Ulibeltza elkarte eta Sunbillako guraso elkarte arratsaldeko mahai jolas tailerra egiteko beharrezko guren materiala uztea.

gatik. Baita ere, tailer hau egiteko frontoiko antolaketa lagundu duten guraso eta atautxiei.

Eskerrak ere mahaian arduradun bezala egon diren herri desberdinetako guraso guztiei.

Eta azkenik eskerrak Burlatako Regalos Gil dendako Olga eta Amaia ekintza hau aurrera eramateko aurretik egindako lanagatik eta ekarri zituzten joku guztiak ekartzeagatik.

Mila esker denei.

Tanatorioa Beran: bai eta ez

Iñigo ALTZUGARAI
(Iturlandetako bizilagunen izenean)

Berako Udal txit goren hori,

Iturlandeta auzoan, zehazki, 2. blokean, tanatorioa eraikitzeke zabaldu diren zurrumruren aitzinean, bi auzotar informazio gehiagoren bila joan ziren Herriko Etxera, eta Marisol Taberna alkatearekin solastu ziren. Solasaldi hartan, oraindik udaletxean ez zela dokumentaziorik aurkeztua jakinarazi zien alka-teak.

Gerora, Lesakan ari den Iratxe Taldeko langile batekin jarri ziren harremanetan eta honen zurrumurrua baieztatu zien, baina oraindik ez zegoela deus finkorik ere erran zien.

Iturlandeta 2ko bizi-lagunak apirilaren 25ean elkartu ginen. Ez dugu proiektu hau egokia ikusten eta tanatorioa auzoan eraikitzearen kontra mobilizazioak hastea erabaki dugu. Bide batez, zera adierazi nahi dugu:

- Ez gaude tanatorioaren eta ez eskaintzen duen zerbitzuaren kontra ere. Beharrezkoa dela uste dugu, baina bertze toki batean izan dadila, industrialde edo eraikin independente batean, adibidez. Etxe bizitzekin bateraezina den jarduera industrializat hartu beharko litza-teke.

- Tanatorio batek baldintza tekniko batzuk betetzeaz gain, lurzoruaren bizitegi-erabilerekin bateragarria izan behar du. Hortaz, tanatorio bat irekitzeak, bai bere jardueragatik eta bai ibiliko den jendetzarekin eta ibilgailu-oldearekin, bizilagunen sentsibilitatea kaltetu eta eguneroko jarduerak normaltasunez egitea oztopotzen du.

Horregatik haxe eskatzen dugu:

- Iturlandeta 2ko beheko solairuan tanatorioa irekitzeko Iratxe Taldeari emandako baime-na bertan behera uztea.

- Jendearen bizitoki diren herriko inguruetan tanatorioak eraikitzea debekatuz udal ordenantzetan aldaketak egiteko aukera, Nafarroako hainbat herrian gertatzen den bezala.



Bota bertsoa

Berako Bertso Eskola • Doinua: Iparragirre abila dela

Enaitzentzat bertsoak

Ikastolako jende ugari
ehunda piko inguru
Ta hobetuko zaren asmotan
jendeak nola lagundu
Tapoi ta kamiseta
ilusioz beteta
zu laguntzea helburu
eta guk berriz bertso xorta hau
zuretzako egin dugu.

Ez duzu hagitz ongi ikusten
zein den zure ondokoa.
Pausoak ongi ezin emana
ibiltzeko oztopoa
entzumen hagitz fina
solasteko ezina
bada zaitasun nahikoa
baina guk Enaitz maite zaitugu
zu zaren bezalakoa.

Dirua biltzen saiatu gara
dirua dinero money
guraso haurrak ta gaztetxoak
lagundu mesedez denei
zailtasunak nabari
horrela jende ugari
behintzat ehuneko hogei
badakigu ez dela bakarra
animo bertze guztiei!



IRAKURLEAK MINTZO Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTIPITAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

e-Posta: info@ttipi.net

Posta:
**Koskontako bidea, 07-1,
31770 LESAKA**

Tel.: **948 63 54 58**

Faxa: **948 63 54 57**

Prentsatik bildutakoak



«Bakoitzak bere harri-kada du, eta nik nirea, handia gainera. Mendia beti gustatu izan zait. Txikitatik borda giroan bizi izan naiz eta animaliekin borda muntatzeko aukera izan dut. Baina esan beharra daukat: amak eta osabak zaintzen dituzte. Lagun batek esaten zidan: 'hirira joan eta baserriari buruz ez dakizu ezer, eta baserrira joanez gero, hiriaz ez dakizu ezer'».

Abel BARRIOLA
Leitzako pilotaria
BERRIA 2014.04.29



«Osasunbideak planteatzen duen osasun arretaren erreforma delakoa errealitatean murrizketa bat da, populazioaren beharrak bazterrean uzten dituen eta gehiengo politiko eta sozialaren kontra egiten dena. Baztanendako, zerbitzuaren kalitatean atzerapen larria suposatuko du, guardia lokalizatuarekin larrialdietako erantzun denbora luzatuko baita».

Garbiñe ELIZEGI
Baztango alkatea
D. NOTICIAS 2014.05.07

11 galdera labur

Nor dugu Martin Etxeberria?

20 urteko gaztea, goizuetarra iza-teaz harro dagoena eta unibertsitatean ikasten ari dena.

Zein zaletasun dituzu?

Astelehenetik ostiralera herritik kanpo egoten naiz eta herrira hurbiltzean denbora aprobetxatzea gustatzen zait, lagunekin egon edo mendian kirol pixkot egiteko. Ikas-teko berriz, ez dut nahi hainbat denbora hartzen.

Orain arteko lasterketarik gustukoena?

Hoberena ez dakit baina gustuen ibili nintzena Urnietako aurtengo mendi lasterketa. Oso gogorra baina polita izan zen aldi berean.

Oinak arin ibiltzeko sekreturen bat?

Ezta sekretu haundirik, gauza guzietan bezala, entrenatu eta ordu batzuk sartu behar dira. Disfrutatzen bada perezaz guxti izaten da.

Goizuetatik Mandoegirako marka hobetzeko asmorik?

Oraingoz ez dut asmorik baina ez litzaidake inportako berriz probatzea. Nahikoa izaten da parranda bat desafiok botzeko... ia he-

rriko beste batzuk ere animatzen diren, saltsa pixkoat pixtu duen kontua izandu zen eta.

Gautxorien pare ere ibiltzen zara. Kirola eta parranda nola lotzen dituzu?

Txandakatuz, batzuetan etxean gelditu eta bestetan parrandara aterez.

Bidaiatzeko zaletasunik baduzu?

Zaletasuna bai, kartera hutsik ordea.

Orain arte egon zaren lekurik ederrena?

Kuba, paisajeaz aparte beste bizi-zetako modu bat delako hangoa.

Gustura bisitatuko zenukeen txokoren bat?

Himalaya aldea.

Goizuetako txokorik politena?

Herriko plaza.

Amets bat?

Ez naiz ameslaria, egunerokoaz gozatzen saiatzen naiz.



Martin ETXEBERRIA → Goizuetako gaztea

PPSOE,
Euskal
Telebista
digitala
Nafarroan
orain!
Berrira erosi taldea

Alberto RETEGI
abokatua
© 948 630 763 - Altzate, 17 - BERA

F. LANCHAS
Akutadore eta berriztatzailea
Parket eta parket flotatzalea
jartzea
Mota guztietako zolak
Tel: 948 630 735 M: 607 406 781

zalain
JATETxea, RESTAURANTE
Zalain Auzoa z/g
31780 Bera
T. 948 631 106
www.zalainjatebisa.com

sarobe
gozategia elandegia
p/da ezeigara 25 beja 1948 630899
31700 berria(navarra) www.sarobe.net

MARITX
Legia, 23-BERA
T. (0034) 636 617 450
Erakusketa, Proiektu eta
Instalazio Elektrikoak

EDARIAK
MANUEL TABERNA S.L.
Bidasoa, 76 - 31780 BERA (Nafarroa)
Tel.: 948 63 10 27 - Fax: 948 62 52 11
tabernabera@gmail.com

GIZARTEA

ARRANTZA → MAIATZAREN 4AN

Eduardo Oíartzabal doneztebarrak arrantzatu du *Lehenbizikoa*

4,750 kilo eta 77 cmko izokin arra zen, Oronozko haztegitik errekaratua

TTIPI-TTAPA

Maiatzaren 1ean ireki zen arrantza denboraldia baina aurtengoa laugarren egunera arte esperatu behar izan dute arrantzaleek Bidasoko *Lehenbizikoa* arrantatzeko. Doneztebeko Eduardo Oíartzabal Mitxeo, 38 urteko arrantzaleak atera zuen. Bere bizitzan arrantzatu duen lehen izokina ere izan zen Lehenbizikoa.

Izokina arra zen eta Oronoz-Mugairiko haztegitik ateratakoa, mar-

kak baitzituen. 4,750 kiloko pisua eta 77 centimetro luze zituen. Maiatzaren 4an atera zuen Endarlatsa inguruan, Los 50 bezala ezaguna den putzuan.

1.700 EURO ORDAINDU DUTE IRUÑEKO MAISSONAVE HOTELEKOEK

Eduardo Oíartzabalentzat sekula arrantzatu duen lehen izokina izan zen igandekoa. Izan ere, aspalditik amorrain arrantzan bada ere, duela bi urte arte ez zuen izokinarena probatu. «Ikusi eta aunitz gustatu zitzaidan ikusi nuena», aipatu zuen. Beraz, izugarrizko poza eta ustekabea izan da beretzat denboraldiko lehenbizikoa ateratzea. Bere azken txanda akitzen ari zenean



ARGAZKIA: ALICIA DEL CASTILLO

Eduardo Oíartzabal kontent, Bidasoko Lehenbizikoa arrantzatu ondotik.

hautsikitu zuen amua izokinak eta hamar minutuko lanari eta inguruan zituen beteranoen aholkuei esker lortu zuen ateratzea.

Iruñeko Maissonave hoteleko Ansolega jabetxeak 1.700 euro ordaindu dizkio Lehenbizikoarengatik, Bidasoan arrantzatu eta saltzen ahal den izokin bakkarengatik eta horrekin, «lagunekin soziedadean» afariren bat egiteko asmoa zuen.

Beharrezko neurriak eta datuak hartu ondotik, Berako Ehiza eta Arrantza Elkartearen izenean Lorenzo Jaurena presidenteak *Lehenbizikoa* arrantzatzeagatik oroigarria eman zion Doneztebeko arrantzaleari, baita, arrantzarako



UTZITAKO ARGAZKIA

Lorenzo Jaurena eta Oíartzabal, oroigarria eman eta gero.

txalekoa eta zapela ere.

Behin Bidasoko izokin denboraldia irekita,

66. alea ateratzera koan edo uztailaren 15ean itxiko da sasoia.

EL NARANJO, S.A.
BILTEGIA 948 630 102
FAUSTINO 647 810 152
Bidasoa, 76 - ordu 21-22
31780 BERA

BAR Botxo OSTATUA
Zelai + BERA - 948 630 052

K SAT
TELEKOMUNIKAZIOAK
ANDONI LASAGA APEZTEGUIA - T. 637 40 96 40 - 31780 BERA - andonimasagako@gmail.com

- TDT instalazioak
- TB instalazioak (satelite, lurrekoak)
- Instalazio indibidualak eta kolektibosk
- Satelite bidezko internet
- Digital + banatzaile ofiziala

okaNa
HARATEGIA / URDAITEGIA
Tfn/Fax: 948 630 018
Karriltoberri 12 • BERA

ZUBIONDO
Jatetxea
ungardotegia jatetxea
Alasta karrika
TEL. 948 630 152
BERA NAFARROA

JAKONE-GOXOTEGIA
948 630 786
Altzaite 21 • BERA

MAIATZAREN 28a ASTEAZKENA

20:00 Txupinazoa

21:30 Plazan afaria Modestok alaiturik



MAIATZAREN 29a ORTZEKUNA

11:00 Meza Nagusia

12:00 Aperitifa txistulari eta dantzariekin

16:00 Haurren jokoak

18:00 Txokolatada

21:30 Paella jatea eta Kiki Bordatxorekin dantzaldia

URDAZUBIKO

BESTAK 2014

ARMUA JATETXEA

URDAZUBI • Alkendi auzoa, Km. 3
Telefono: 948599131 • Fax: 948599131

ONGI PASA BESTAK!!

La KOXKA
jatebidea

ongi pasa bestak!!

948 599 042 • URDAX

JATETXEA - ERRETEGIA

MONTXO

OSTATUA • TABAKO-DENDA



**ASTEAZKENETIK
IGANDERA
GAUEZ BESTA
GIROA**

ANZAN BORDA
URDAZUBI NAFARROA
(Dantxarineatik 2km.tara)

T. 948 599 039
montxoblanco@gmail.com



ONGI PASA BESTAK!!

PLATER KONBINATUAK • OGITARTEKOAK • PINTXOAK
MENUAK ENKARGUZ • ESPEZIALISTAK ARRAIN ETA TXULETOIAN



Faustino ETXABE tailerrak
Autoen konponketa
BESTA ON BATZUK PASA
☎ 948 599 038 • ZUGARRAMURDI

ANASTASIA OSTATUA
Ostatua • Janaridenda
Prentsa • Aldizkariak
Landetxea
Besta onak pasat!
948 599 827
URDAZUBI

IRIARTEA BENTA
Autoentzuzua • Otxak • Lanua...
DANTZARNEA • Urdazubi • T. 948 599 049 • ventariarte@gmail.es

Pinturas
Iñaki Alzuyet
margoak

Tel.: 659 862 417
Itur-Itipi etxea
Landibar Auzoa
URDAZUBI
pinturasalzuyet@yahoo.es

PINTURA
DEKORATIBOA ETA INDUSTRIALA
Dekoratiboa: mintzak, bolakak,
fotokak • Barneakak • Plakak
Lakatu eta berrizatuak kalitate

ONGI PASA BESTAK!

MAIATZAREN 30a ORTZIRALA

12:00 Gorriti bere animaliekin
14:00 Ugarana elkarteko bazkaria Koxkan
16:00 Haurren jokoak
16:30 Bertso-triki poteoa
20:00 Sagardotegi mugikorra
23:00 Dantzaldia Fidel akordeoilariarekin



VENTA PEIO
Zure enpresa gurekin batera
Euskal Herriko bihotzean

Ongi Pasa Bestak!



KUPELA SAGARDOTEGIA	MIKALA OSTATUA & PINTXOAK	LUGARANA JATETXEA	NUBA DANTZALEKUA

► LANDIBAR CENTER:
Barrio Dantzarinea s/n, 31711 URDAZ Etx. 662 | ☎ 34 902 210 800 (es) | ☎ 0820 562 267 (fr)

WWW.venta-peio.com | ☎ 34 902 210 900 (es) | ☎ 0820 562 267 (fr)
Arreji | Dantzarinea | Behobia | Landibar | Agut-Benta | Nardin

URDAZUBIKO BESTAK 2014


ttipi-ttapa | 614 zbk
2014.05.15

13



MAIATZAREN 31 LARUNBATA

- 10:00 Kontrabandisten lasterketa.
15,8 kilometroko luzera eta
326 metroko desnibel maximoa
duen lasterketa.
- 14:30 Zikero-jatea txarangak alaiturik
eta kalejira
- 16:00 Haurren jokoak
- 21:00 Zingar jatea eta mariatxiak
- 00:00 *Ingo al deutaldearekin* dantzaldia.



EKAINAREN 1a IGANDEA

- 17:00 Kenpo-kai erakustaldia
- 18:00 Nesken fronteniseko finala
- 19:00 Mutilen fronteniseko finala
- 20:00 Boletoen zozketa
- 20:15 Pintxoak denentzat
Hauspolariak musikarekin



ETXELEKUA
ARDI LATXAREN GASNA

Zugarramurdiako komiterra
948 599 169 - Urdazubi
www.etxelekua.com

Ongi pasa bestak!

IRIGOIENEA

Ongi pasa bestak!

948 599 267 - URDAZUBI
www.irigoienea.com - reservas@irigoienea.com

Jaseneo Gasolindegia

Urdazubi, Urdazubi
Dantzakineo

www.jaseneo.es

Mikalen-Borda
Benta - Jatetxea

Dantzakineo 31712 (Nafarroa) - Tel 00 34 948 59006

Ongi pasa bestak!

Jatetxea Ikaburua
Apartamentuak

Plater konbinatuak - Menuak - Karta

Barnio Leorlas - URDAZUBI/URDAX
T. 948 59 92 22 - 690 75 58 75 - www.ikaburua.com

ZUBIONDOA

OSTATUA
AUTOZERBITZUA
ORDIGARRIAK

Ongi pasa bestak!

948 599 041
DANTXARINEA

SANTIAGO VILLARES S.L.
Ongi pasa bestak!

LUZERNA - PENTSU ETA FORRAJEAREN
SALMENTA ETA ESPORTAZIOA
LASTOA
LUZERNA

Móvil (Santiago Villares): 609 415 777
T. (0034) 948 59 91 34
Fax. 948 59 91 56

info@santagovillares.com
www.santagovillares.com

JOXEMI BENGOTXER S. L.
ZVRGINDEGIA

- belakak
- finkadak
- egurreko estrukturak
- eskalerrak
- lekuak
- ateak
- altzarak
- zolak

T. 660 501 584 • F. 948 599 169
Ezkerria - URDABIKO - joxembengotxer@yahoo.es

onai pasa bestak!

LYCIANO IRIARTE S. L.
ESKALAZIOAK
ESKALERRAK
LVR MYGIMENDUEK

T. 660 501 584 • NARRABATE

URDABIKO UDALA


**Urdazubiko Udalak
besta zoriontsuak
opa dizkizue
urdazubiar eta
bisitari guztiei !**



Ana MITXELENA IRIGOIEN | Urdazubiko gaztea

«Herri ttikietako bestak izaten ahal diren bestarik politenak dira, giroa ezin hobea da»

21 urte dituen Urdazubiko gaztea da Ana Mitxelena, eta berak dioenez, **«neska alaia»**. Kirola du afizio nagusia eta hala, kenpo kai praktikatzeaz gain, ortziraletan haurrei kenpo kai-ko klaseak ematen dizkie. Body pump ere egiten omen du eta batzue-tan frontenisean ere jokatzeko omen du. Hortik aparte, asteburuetan lana egiten du eta **«bidaiatzea ere aunitz gustatzen»** zaiola gaineratu digu.



Baina egunotan herriko bestei begira jarria da. Azaldu digunez, **«bestak antolatze normalen bortsat arduradun izaten dira, urtero aldatzen direnak, eta nahiz gehiena haiek antolatzen duten, denek laguntzen dugu ahal dugunean, bai baitakigu bertzelaz ez dela bestarik izanen»**. Egunez egun, asteazkenarekin, txupinazoa bota aitzinetik egiten dute koadrilan hitzordua eta **«trago batzuk hartuz, bestei sarrera ematen diegu. Gero afaria prestatu eta txuleta on batekin eta musikarekin pasatzen dugu gaua»**. Ortzegun goizean, berriz, gazteak elkartu eta meza ondoko aperitiboko gauzak prestatzen dituztela erran digu, eta **«goiz gehiena hor pasatzen dugu dantzarekin eta musikarekin»**. Arratsaldean ere ez du hutsik egiten, **«paelladako gauzak prestatu, ederki afaldu eta bestarekin segitzeko»**. Ortzirala **«lasaiagoa»** omen da beretako: **«bertso-triki poteora agertzen naiz, trago batzuk hartu eta familia guztia afaltzeko elkartzen gara»**. Larunbata ere gustuko eguna du Anak: **«eguerdian lagunekin elkartu eta zikirora gaten gara»**. Mahaiaren bueltan **«denbora luzean»** egoten direla aitortu digu eta **«gaua fite ailegatzen»** zaiola. Arratsean zerbait jan eta bestarekin segitzen du kontzertuez gozatuz, **«ahal den arte»**, dio umoretsu. Larunbatean besta bai, baina biharamunean kontuak ere

Juletxe-erretegia terrazarekin.
(Herriko plazan, errota-kanalaren ondoan)

Karta berezia bazkari eta afarietarako,
aste honetarako eta eguneko menuak.

Berezitasuna: Urdazubiko amurraina onddo beltzekin,
(etxearekoitziak). Gazta eta postrea: gazogintza landua.

Sukaldaritza berria, etengabe berritzen.

Ardo karta zabala.

Bertako produktuek: amurrainak, onddoak, haragikiak, ehizakiak,
amarrak, gaztak, intxaurak, ezia, sagardoa, esnekiak...

URDABIKO-URDABIKO
Urdazubiko Plaza
www.nikolaurenea.com
T. +34 948 599 477
M. +34 620 021 967

IREKIA
Astelehenetik Igandera
Asteazkena itxita
(Besta egun eta hauen
bestak izan ezik)

MENUA eta KARTA
Haragi eta arrainak erreak

**NIKOLAURENEA
ERRETEGIA**
URDABIKO-URDABIKO PLAZAN

URDAZUBIKO

BESTAK 2014

ttipi-ttapa | 614 zbk
2014.05.15

15

bai. Hortaz, «igande goiza lo egiteko eta lasai egiteko» aprobetxatzen du. Arratsaldean, halere, frontoira gaten da: «gan den urtean bezala, aurteneren kenpo kai-ko ikasleekin erakustaldi ttiki bat egingen dugu. Frontoian pasatzen dugu arratsaldea, gero frontoniseko partidak izaten baitira. Behin hau akituta, denak plazara gaten gara eta beste bukaera emateko pintxoak izaten dira». Bestondoaren kontra zer egiten ote duen ere



Ana Mitxelena eta bere lagunak herriko bestetan.

jakin nahi izan dugu eta lo egiteaz gain, badu bere sekretua: «jeiki orduko herrira gan berriz ere lagunekin elkartu eta bestarekin segitzeko».

Ekitaldiz betetako besta egunak dira, baina denek bezala, Anak ere baditu ekitaldi kuttunak: «ortzegun gaueko paellada eta larunbat eguerdiko zikiro-jatea». Eta zergatik? Bada «bietan herri guztia, eta zikiro egunean oraindik gehiago, elkartzen garelako mahaiaren bueltan eta afaldu edo bazkaldu ondotik mahaiaren berean izaten den giroa, musika eta txarangarekin, bestak duen gauzarik politenetarikoa da».

Garbi utzi digu aski maiteak dituela herriko bestak. Are gehiago, beste zer gehitu eta zer kenduko liokeen galdetuta, «ez zait burura deus etortzen» erantzun digu: «bestak urtetik urtera hobetzen saiatzen gara eta momentuan ez dut deus faltan botatzen, arras gustura naiz oraingo gauzekin». Zerbait aipatzekotan «buruko mineko goizak» kenduko omen litzuke, «baita igande gaueko neke eta logalea eta astelehenean egunerokora bueltatzeko pereza ere».

Baina gero gero kontuak. Oraindik aitzinetik dituzte borts eguneko bestak eta horietan izanen dute ongi pasatzeko tarte, bai urdazubiarrek eta bai kanpokoek ere. Eta hauei luzatu die Anak bere gonbidapena: «Urdazubi herri ttiki bat da eta herri ttikietako bestak ezagutzen ez dituen jendeak zer diren jakin behar du, herri ttikietako bestak izaten ahal diren bestarik politenak direlako, giroa ezin hobea delako, familiarekin eta zure jendearekin zaudelako eta ezin delako hobeki sentitu eta gusturago egon. Inoiz egon ez zaretenak etortzera animatzen zaituztet, segur naizelako paelladako gaua edo zikiro eguna probatzen baldin badituzue, urtero hemen egonen zaretela».

indianoabaita
ostakua
Bazkaria, apartamentuak, etxeak

BAZKARIAK
APARTAMENTUAK
ETXEAK...
948 599 021
URDAZUBI

EDRE
leapaindegia.culture

ongi gooa bestak!

Juan Aguirre 5 1.B
31711 URDAZUBI
T. 0034 948599224

**CONSTRUCCIONES
A. BENGOTXEA**

- Etxebizitzak egin
- Zahar-berritze lanak
- Saneamentuak
- Obra publikoak
- Zeramika denda

ONGI PASA BESTAKI
URDAZUBI
Tel. 948 599 166 www.carrelagesbengotxea.com

**ARRETXEA
ESTANKOA**

ZIGARRO PURUEN CAVA

DANTXARINEA (Urdazubi)
T. 948 599 018 - F. 948 599 015
estancoarrecchia@yahoo.es

**Urdax-Urdazubi
Dantxarinea**



ARKUPE
Gozotegia - Txokolategia

Txokolatea, urrazkoa, almendrazkoa,
beltza eta xuria.
Tabletak, bonbolak, trufak,
Txokolate konfitatua.
Tartak, etxeko izozkiak, pastelak,
pastak, miniaturak, bolloak...

KAFETEGIA

Elizondo - Tel. 948 432 393
Iruña - Tel. 948 432 021 - 948 580 059
info@arkupegozotegia.com
www.arkupegozotegia.com

sukalDeco
estudio cocina y baño



www.sukaldeco.com
GRUATA - 948 530 600

MAIATZAREN 28a ASTEAZKENA

12:00 Txupinazoa eta herriari buelta Baztango gaiteroekin. 16:00 Haurrendako herri kirolak. 18:00 Merendua. 18:30 - 20:30 Dantzaldia Joxe Angelekin. 20:00 Ezkil jotzea. 21:00 Baztanzopak. 01:00 - 04:00 Dantzaldia karpan Joxe Angelekin.

MAIATZAREN 29a ORTZEGUNA

10:00 Dianak. 11:00 Meza Nagusia. 12:00 Herriko dantzarien erakustaldia. 13:00 Luntxa. 19:30 Trinketeko VII. esku pilota txapelketako finalak. 20:00 - 21:30 Dantzaldia Ohar - kabe taldearekin. 21:30 Mutildantzak. 00:30 - 04:00 Dantzaldia Oharkabe taldearekin.

MAIATZAREN 30a ORTZIRALA

10:00 Dianak baserrietan. 11:00 Haurrendako jokuak erreboteko plazan. 13:30 Haurrendako bazkaria karpan. 14:00 Jubilatuen bazkaria Olari jatetxean. Gazteen bazkaria Baigorri. 14:00 Herriko gazte baten erronka (Saioa igoera 46 kilorekin eta plazara 18:30 alderako itzuli, 100 kiloko harria hiru aldiz altxatu eta trontzarekin 20 kanaerdiko ebaki). 15:00 Haurrendako jokuak. 18:00 Txokolatada. 20:00 Dantzaldia Aierrik taldearekin. 21:30 Mutildantzak. 23:00 Tirri-Terry Djak karpan. 01:00 - 04:30 Dantzaldia Aierrik-ekin.

MAIATZAREN 31 LARUNBATA

10:00 Dianak txarangarekin. 11:00 Haurrendako jolasak. 14:00 Zikiri-jatea txarangarekin. 20:00 Laiotz taldearekin dantzaldia. 21:30 Mutildantzak. 01:00 - 05:00 Gaupasa Laiotzekin.

EKAINAREN 1a IGANDEA

10:30 VII. Haurren krosa. 11:30 VI. Herri lasterketa. 12:30 sari banaketa eta luntxa parte hartzaileendako. 18:00 Dantza erakustaldia Berako Gure txokoa taldearen eskutik. 20:00 - 22:00 Puro Relajo mariatxi taldearen emanaldia. 22:00 Afari herrikoia eta besten akabaila.




AROZ - BERRI

IBARRITA 12 948 581021 | CHIKILAKO 12 948 332617
Fax 948 432103 | Fax 948 360634
www.arozberri.com

ONGI PASA BESTAKI!

Mirentxu GORTARI ARRAZTOA | Iruritako gaztea

«Nire esku balego eguraldi ona ziurtatu eta ondorena kenduko nieke beste!»

Bestazalea izaki, herriko bestak urtetik urtera «berexiago» bizi dituela aitortu digu 20 urteko baztandarrak. Administrazio ikasketak egiten ari da eta zenbakiak gora eta behera, kontuak atera nahian aritzen da urte osoan. Datozen egunetan ordea lotarako eta bestarako orduen artean ekua-zio zuzenaren bila ariko da. Besta batzordeak bortz egunez luzatzen den egitaraua antolatzen du eta egun bakar batean ere ezin hutsik egin, «ez nituzke ezerengatik aldatuko» dio. Urtero ahalik eta bestarik politenak antolatzea denez asmoa «herriko gazte, helduak... denek batera prestatzen ditugu» azaldu digu. Horregatik dio amaiera hurbil dagoela ikustean, «azken eguna beti pixka bat gogorra» izaten dela herritar aunitzendako. Beste zerbait gehitu eta kentzea bere esku balego «eguraldi ona ziurtatu eta besta ondorena kenduko nieke» erran digu irriz. Eguraldia edozein delarik ere, besta ondorena ziurtatuta dagoenez, «biharamuneko ordu gehienak ohean pasatzea» omen da orain arte topatu duen sendagairik hoberena.



Ondorenaz solastu aitzinetik baina, besta bizi behar eta horretarako egunez sortzen den herri-giroa maite duela erran digu «egunez herritar asko bildu eta gauza ezberdinak egiten ditugu elkarrekin. Gauetan herritik kanpoko jendea ere etortzen denez zailagoa izaten da herritarrek elkarrekin egotea».

Mahaiaren bueltan izaten dira bilkura horietako gehienak, «bestak Baztan zopak probatuz hasten ditugu denok elkarrekin, eta gainerako egunetan ere egunero zerbait izaten dugunez mahai inguruan elkartzen gara, bai familia eta baita lagunekin ere».

Maiatzaren 28an, asteazkenean, botako dute beste hasiera emanen dieten txupinazoa «oso egun berexia da, urduritasuna agerikoa izaten da. 12:00etan txupinazoa bota eta hurrek gaiteroekin herriari buelta ematen diote. Arratsaldean hurrek jolasak, merendua eta musika izaten dituzte. Ilunabarrean ezkil-jotzea izaten da eta Baztan Zopak izaten ditugu». Ostegunean, Salbatore egunean, «meza, dantza, luntxa, esku pilotako finala eta plazan musika izaten dira» eta gaua ere «arras polita» izaten dela erran digu «normalean herrikoak bakarrik elkartzen garelako». Ostirala berriz, haur, gazte eta jubilatuen eguna da eta egitaraua eguneko hiru protagonisten zuzendua egoten da. «Gazteok, Baigorriko merenderoetan bazkaria izaten dugu, eta bertan egoten gara ilunabar arte oso giro politean», eta gero besta goizeko ordu tikiak arte luzatzen da gehienetan.

Larunbatean zikro jatearen bueltan egiten da besta eta gaurik jendetsuenetakoa izaten da «inguruko herrietatik aunitz etortzen baitira». Bestetako azken eguna igandea izan ohi da eta goizean kros herrikoia antolatzen da, bertan hurrek ere parte hartzen dute eta segidan indarrak behar bezala berreskuratzeko luntxa eskaintzen zaie parte hartzaileei. Arratsaldean dantzarien ikuskizuna edo herri kirolak izaten dira normalean eta «aurtengoan Berako dantzarien saioa izanen dugu». Eta bestak borobiltzeko «plazako musikarekin dantzan ematen diegu akabaila». Bertako giroa ezagutu beharra dagoela iritzia, erronka ere luzatu die irakurleei «etorri gero baietz ongi pasa!»

«Inguruko lehenengo bestak izaten dira eta gogotsu hartzen dira. Etorri gero, baietz ongi pasa!»

TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA SARE SOZIALEAN

facebook

www.facebook.com/ttapi.ttapa

J.P. AGERREBERE

Karrozeria • Aroztegi Metalikoa

BANATZAILEA

Zaldubi ind. IRURITA • Tel.: 948 580 538 | 630 184 847

ongi pasa bestak!

Carpinteria

Lizasoain, S.L.

Erresistentzia orokorrean - Lehenak - Asteak - Eskaladak - Armarioak

948452077 - Zaldubi ind. - 31730 IRURITA

OLARI

jatetxea

jatetxearen aldetik egokituarekin hornitua ongi pasa bestak!

Tel. 948 452 254 - IRURITA

resolarril@hotmail.es

www.restaurantelolari.es

aroztegia 1890az geroztik

Arotxa

GARAJEKO ATE SEKZIONALAK

HORMANN banatzaile ofiziala

Miguel Azcárraga (Irurita)

T. 948 581 418 | 650 532 073

arotxa.taller@gmail.com

BERA

GIZARTEA → MAIATZAREN 24AN OSPATUKO DA

Ekitaldiz beteta dator aurtengo Gazte Eguna

3gabe2 taldeak kontzertua eskainiko du Katakuko terrazan

TTIPI-TTAPA

Ereindako uzta jasotzen lelopean Gazte Egunaren hamargarren urteurrena ospatuko dute maiatzaren 24an. 10:00etan botako duten altxaferoarekin hasiko dituzte ekitaldiak, eta orduan egingen dute egunaren aurkezpena. 10:30ean ginkana egingen dute eta 13:00etan Gaztetxearen hasieraren inguruko bideo emanaldia eskainiko dute. 13:30ean bazkaltzeko paella izanen da eta ondotik barrikartzeta saioa. 17:00etan joko poteoa egien dute herriko ostatueta barna eta 20:00etan karaokearen txanda izanen da. 20:30ean egingen den afari-luntxaren ondotik, 21:00etan 3gabe2 taldearen kontzertua izanen da Katakuko terrazan. Ondotik dj-ak ariko dira: DJ Atala Bol-dam Katakuko ostatuan eta DJ Mayordomo Bidadxa ostatuan.

Kaxerna Gaztetxetik mozorrotuta joateko gonbitea egin dute, baita etxetik bakoitzak bere edalontzia eramateko deia ere.

Txartelak Katakuko eta Errekalde ostatueta erosi daitezke, 10 eurotan, maiatzaren 19a baino lehen.

Bozkatzeko toki aldaketa


Maiatzaren 25ean egingen diren Europako Parlamenturako hauteskundeetarako bozketa-mahaiak tokiz aldatuko dira. Udalak leku berria gerora egingen diren hau-



UTZITAKO ARGAZKIA

Xurufilaia taldea Kantu Jaialdian

Jesusen Bihotza ikastetxeko Xurufilaia taldeak Haur eta gaztetxoek kantari jaialdiko azken saioan kantatuko du maiatzaren 31n Burlatan. Abba taldearen *Mamma mia* abestia euskaraz kantatzen dute, 6. mailako ikasleek sortutako letrarekin.



UTZITAKO ARGAZKIA

Pilotakadaz pilotakada txapelketako finalak jokatu ziren

Pilotakadaz pilotakada dispersioaren aurka Beran jokaturako txapelketaren finalak jokatu ziren apirilaren 26an Eztegarra pilotalekuan. Guzira 16 bikote aritu dira elkartasun txapelketa honetan. Frontenis neskatan lau bikote aritu ziren eta finalean, Ainhoa Retegik eta Irati Juanikorenak 22-18 irabazi zieten Ixone Teiletxea eta Ainhoa Lanz-i. Pilota goxoko txapelketan 12 bikote aritu ziren eta finalean, Jabier Mikelpizerenak eta Eneko Ordokik 22-5 irabazi zieten Iban Zubietak eta Igor Lasaga "Matxako"-ri.

teskundetan mantentzeko asmoa du, betirako bertan izatea planteatzen baita. Kultur Etxeko erakusketa gelan izanen da bozkatzeko aukera.

dute maiatzaren 19an, heldu den astelehenean Katakun, Euskal Herri osoan barna egiten ari

diren biraren baitan. Berako musikaria Willis Drummond taldeko kide berria da.

Willis Drummond eta Joseba B. Lenoir

Willis Drummond eta Joseba B. Lenoir-ek kontzertua eskainiko



UTZITAKO ARGAZKIA

Orri-marka lehiaketako saridunak

Herri Liburutegiak eta Kultur Batzordeak antolatutako I. Orri-marka lehiaketako epaimahaiak saridunak jakitera eman zituen apirilaren 30ean liburutegian izandako ekitaldi berezi batean. Saridunei diploma bat entregatu zaie, liburu sorta bat eta lan saritu bakoitza editatu da. Editatutako lanak eskuragarri egonen dira jendearentzat orri-markak bukatu arte. Guztira 130 lanek parte hartu zuten lehiaketan eta ikusgai egonen dira liburutegian maiatzaren 30era arte. Horietatik ondoko hauek izan ziren sarituak: A maila (10 urte arte), *Akerbeltz*, Jon Pagola Lopez-ena; B mailan (11-15 urte), *Lamia*, Irantzu Goienetxe Batiz-ena eta C mailan (15 urtetik aitzinera), *Mari*, Nekane Mujika Irazokirena.

LABE ZAR
Tel: 948 631 076 - BERA

SMAZIZIOR edariak
T.F: 948 631 557
Helduak: Ziobi, 3 ALKAIAGA
egorriak: maziziorsenper@gmail.com

EDARIEN eta JANARIEN SALMENTA eta BANAKETA

elika
Dietista - Nutrizionista
Kolegiatu zenbakia NA221

Itzea, 6 behe 31780 BERA
948 631 283 645 708 512
elika@elika.com

KULTURA → MAIATZAREN 31N

Bidasoa aldeko arte eta artisautzaren lehen azoka egingen da

Hainbat margolari eta eskultoreen lanak ikusgai izanen dira Harriondoan ekainaren 29ra arte

Aitor AROTZENA

Gure artea gure artean goiburupean Bidasoa aldeko arte eta artisautzaren lehen azoka egingen da maiatzaren 31n herrian, Bihotzkada Kolektiboak antolatuta.

Gpizeko 10etan txiupinazoa botako dute, kolektiboaren manifestuaren irakurketa, txalaparte eta kantuarekin. Artisauen azoka orduan irekiko da Harriondo Kultur Etxean eta Lesakako argazkilarien erakusketa Alhondigan. 10:30ean, Bidasoa aldeko pintore eta eskultoreen erakusketa irekiko da Harriondoan. Lan hauek ekainaren

29ra bitarte ikusteko aukera izanen da. 11:00etan haurren pintura tailerra egingen da da udal-etxeko arkupetan. 14:00etan bazkaltzeko atsedenaldia hartu eta partehartzaileek otordua izanen dute. Bazkaldoan bigarren urratsa abiatuko da Plaza Zaharrean. 17:00etan olerkien irakurketa. 18:00etan Tantirumairu euskal folklore taldeko



ARGAZKIA: RAFAEL ENETERREAGA

Gazte Eguna arrakastatsua

Eguraldi euritsuari aurpegi alaia paratu eta giro ederrean joan zen Gazte Asanbladak antolatutako Gazteguna. Goiz-goizetik mozturrotuta atera ziren herriko gazteak ekitaldi ezberdinetara. Makarroi txapelketa, pankarta egitea eta bazkia frontoian egin behar izan zuten, eta arratsaldean jokuak, Skandalue elektrotxar-rangarekin poteoa, berendu-afaria eta kontzertuak izan ziren herriko ostatuetan. Aurtengoan Lasarteko gazteak gonbidatuak zituzten egunpasara.

dantzarien emanaldia. Azoka bukatzeko, Zubieta joaldunak izanen dira 20:00etan eta 21:00etan kontzertuak Plaza Zaharrean. Goiz eta arratsaldez karrika animazioa izanen da,

txistulariak, clown, Lesakako Abesbatza, kantautoreak, bertsolariak, txalaparta, malabaristak eta herri batukadaren partehartzearekin.

Bihotzkada kolektibotik gogoz eta esku za-

balik gonbidapena luzatu nahi diete «edozein ekintza espontaneo eta librearekin parte hartu eta gurekin konpartitu nahi duten guztiei».

Beti Gazte sokatira taldea Nafarroako lau txapelketan

Asteburu honetan abiatu da Nafarroako lau sokatira txapelketa eta aspaldiko partez Beti Gazte gizasemeen txapelken parte hartuko du. Zehazki, 320 eta 300 kiloko kategorian jokatu da eta kategoria bakoitzean bina talde plazaratuko ditu. Jauntsaratsen egin zuten lehen saioa maiatzaren 10ean eta maiatzaren 17an Etxarri Arnatzen eta 24an Berriozarren aritu ondotik, herrian ikusteko aukera izanen da hilaren 31n.

IRAKASKUNTZA → MAIATZAREN 17AN

Landa eremuko eskolen IV. Jardunaldiak Irain eskola publikoan egingen dituzte

A. AROTZENA

Nafarroako landa eremuko eskolen laugarren jardunaldiak egingen dira maiatzaren 17an Irain eskolan, 10:00etatik 14:30era.

Nafarroan 12 gunetan banatutako 70 landa eskola baino gehiago daude. Jardunaldi honek hiru helburu nagusi ditu: alde batetik, Nafarroako landa eskolek abian jarri duten lana ezagutaraztea; bestetik, landa eskolak elkar ezagutu eta lankidetzan jardun daitezen bultzatzea; eta, azkenik, eskola hauetan ematen diren eta irakasle eta hezkuntza

eragile gehienek ezagutzen ez dituzten lan dinamikak ezagutzera ematea gizartearen.

Harrera eta jardunaldiaren aurkezpenaren ondotik, bi txandatan lantegiak egingen dira. Bortzirietako eskolei dagokienez, Etxalarko Lantegian eskolako Aintzane Ollokiegi Eskola inklusiboaz ariko da; Arantzako eskolako Aitor Elempuru "Eskola baratza" proiektuaz ariko da eta Raul Garciak, Etxalar, Igantzi eta Arantzako eskoletan burutzen duten antzerki eta adierazpen tailerraz ariko da.

BORDA
ISOLAMENDUAK
Termikoa | Akustikoa | Suaren kontrakoak
PLADUR LANAK
Eraberritzeak • Erakuntza • Industrieriak
Dekorsioa • Pintura lanak • Sobai modularrak
T/F: 948 637 546 • M: 609 477 277
LESAKA • bordaisolamenduak@telefonica.net

Lentzea
Berruntzea
Martxak
Jantziak
Pintak
kattagoria
Bereko plaza 10 30770 Lesaka
T: 948 627 514

IRU BIDE
Enpresa - Aukerak
Berritzeak, 31. Lesaka
Tel: 948 637 127

KATUETXEA
OSTATUA
PINTURA
KATUETXEA
OSTATUA
PINTURA
KATUETXEA
OSTATUA
PINTURA

ETXALAR

GIZARTEA → LANA

Herriko Ostatua errentan eman nahi du berriz ere Udalak

Ekainaren 11 arte aurkezten ahal dira proposamenak

Irune eta Itsaso

Herriko Ostatua eta jatetxea errentan emateko lehiaketa irekirako deia egin du Udalak. Gerora luzatzen ahal diren 5 urterako ematea da asmoa eta hileko errentaren hasierako prezioa, 365 euro + BEZA da. Behin behineko fidantza, berriz, 600 eurokoa. Proposamenak ekainaren 11ko 14:00 arte aurkezten ahal dira.

Bi langabetu kontratatuko ditu Udalak

Aitzineko urteetan bezala langabezian dauden bi lagun hartuko ditu lanerako udalak. Kontratu beharreko pertsonak langabe eta lan eskatzaile gisa inskribaturik egon beharko dute Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren menpeko Enplegu Agentziaren batean. Interesaturik dagoenak bere datuak eman behar ditu maiatzaren 13a baino lehen Herriko Etxeko bulegoan.

Altxatako batzar orokorra

Maiatzaren 3an Altxata elkartearen ur-

teko batzar orokorra egin zen. Aitzineko urteko ekintzen errepasoa egin ondotik aurtengo asmoen berri eman zen: datorren urtean, aurten egin diren ekintzak mantendu eta horrez gain mendi itzulia izanen da apirila akaberan. Gasna feria eguna hurbiltzen ari da eta horretan buru belarri ari da Altxata (egun horretarako laguntzaileak behar direla ere ohartarazi dute). Batzordea ez zen berri baina sartu nahi duen inor egongo balitz gonbidatuta dago.

Batzar orokorra Larraburuan

Apirilaren 27an Larraburua Jubilatuen elkarteak urteko batzar orokorra egin zuen. Hainbat gairi buruz solastu ondotik, ohikoa denez, hamaiketakoia izan zuten.



ARGAZKIAK: ARANTXA DANBORIENA

Lurritiederrako bestak

Maiatzaren 4an Lurritiederra auzoko bestak ospatu ziren. 50 lagun inguru bildu ziren Agerrebereko bordan, auzoan bizi direnak edo bertan jaiotakoak. Urtero bezala, xuri-beltzak, zirian erretako bildotsa eta gaztanbera eta tarta ezberdinak izan zituzten bazkaltzeko. Eguraldia ederra lagun izan zuten eta bazkalondoa Gregorio akordeoilariak alaitu zuen.



ARGAZKIAK: VENANCIO ELIZAGOIEN

Konposta egiteko ikastaroa

Konpostatzeari buruzko bigarren faseko ikastaroak izan ziren apirilaren 28 eta 29an eta bertan konposta egiteko materiala ere banatu zuen zabor mankomunitateak. Familia aunitzek parte hartu dute kanpaina honetan. Mankomunitateak espero du hemendik aitzinera zabor organikoak konpostatzearekin, zabor arrunta aunitz jautsiko dela.


"TELLETXEA"
 Lorazaintza
 - Lorategiak diseinatzea eta sortzea -
 - Mantentze lanak -
 - Ureztatzeko sistema automatikoak -
 - Kimaketak -

 John Telletxea Nekazaritzako Ingeniari Teknikoa
 LESAKA • T. 619 418 683 • john.telletxea@hotmail.com
 www.telletxealorazaintza.com


BORTZIRI
 UNSION ANAIK
 Sukalderako altzariak
 Bereko etxea • LESAKA
 Tel.: 948 637 266 • 607 226 891 • Fax: 948 637 511

GIZARTEA → ERABAKITZEKO ESKUBIDEAREN ALDARRIA

Gure Esku Dago dinamikarekin bat eginez herritarren argazkia eginen da maiatzaren 25ean

Giza katean
parte hartzeko
metroa eros
daiteke herrian

Nerea ALTZURI

Jakinen duzueenez, Euskal Herritarrok gure etorkizuna erabakitzeke dugun eskubidea aldarrikatzeko Gure Esku Dago dinamika martxan da. Proiektu honen baitan, hainbat dira Euskal Herriko herri eta auzoetan egiten ari diren ekintzak, baina hitzordu nagusia ekainaren 8an eginen da, erabakitzeke eskubidearen alde Durango eta Iruñea batuko dituen 123 kilometroko giza katea osatuz.

Arantzan ere Gure Esku Dago aldarrikapenarekin bat egiteko hitzordua paratua da eta maiatzaren 25ean izanen da, 12:00etan. Herritarren ar-

gazki bat eginen da plazan eta arlo desberdinetako herritar, talde eta eragileei parte hartzeko gonbitea luzatu die Gure Esku Dago lantaldeak. Argazkia ahalik eta koloretsu eta anitzena izan dadin, bakoitzak bere sentitzen duen arropa edo osagarriarekin joateko deia egin dute: dantzari, Mozorro Zuri, txistulari, trikitilari, txirrindulari, pilotari, karatelari, baserritar, Pelle-Tiki edo Ekaitza Elkarteko zapiarekin, Mendi Itzuliko, eskolako edo Arantza Rockeko kamisetarekin...

Bertalde, ekainaren 8ko giza katean parte hartzeko metroa Herriko Etxean edo Aterpean eros daiteke hilaren 31ra bitarte. Arantzarrak 108 kilometroan izanen gara, Itza herrian, Irurtzundik Iruñerako bidean. Herri-
tik autobusa ere paratuko da Itzara joateko.



ARGAZKIAK: AITOR ELEXPURU

Eskolako berriak

Ikasturte bukaera gero eta hurbilago dagoen honetan, **kanpaldien** tenorea ere ailegatu da. Joan den ortzegun eta ortziraletan, 4 eta 5 urteko haurrak Zugarramurdiko sorginen etxean egotekoak ziren. Maiatzaren 27 eta 28an, lehen zikloko ikasleak Hondarribiko Elkano aterpetxean egonaldia eginen dute; eta eskolako zaharrenak ekainaren 9tik 15era Bartzelonara ikasbidaia eginen dute. **Berdintasunaren programarekin** ere lanean segitzen dute eta etxeko lanetan aritu dira: ohatzea egin, hautsa kendu, kristalak garbitu, arropa tolestu, fregona pasatu... Horrez gain, **baratzea** ere prest dute. Gorotza eta kisua hedatu ondotik, rotabatora pasatu eta agudo patata ereinen dute. Bertzetik, **postu meteorologikoa** ere jarri dute eta lehenbiziko neurketak egiten hasiak dira: tenperatura, hezetasuna, haizearen abiadura eta norabidea, prezipitazio kopurua, eguraldia... Egutero datuak bildu eta batezbertzeak ateratzen dituzte. Astero, txandatzuz, ziklo bakoitzak ardura hartzen du. Apirilaren 14 eta 15ean, berriz, **irakurzaletasuna** sustatzeko jarduerak antolatu zituzten. Ikasleek ekarritako liburuekin, eskolako gimasioa liburutegi bilakatu zuten; *kamishibai* saioak izan zituzten, ikasleek bikoteka irakurri zuten eskolan barna...

Eliza garbitzeko irteera Zangotza eta Aragoi aldera

Eliza garbitzeko sari gisa, maiatzaren 22an,

herritar eta igantziarrak elkarrekin, Oibar, Sos del Rey Católico eta Uncastillo herrietan ibiliko dira. 07:00etan autobusa aparkalekutik abiatuko

da eta iluntzerako etxera itzuliko dira. Bidaia joaterik ez dutenek hilaren 19an, 20:00etan, berrendu-afaria izanen dute Zahar Txokon.

José I. Gonzalez Enguita
pinturak
barrukoak eta kanpoak
tel. 666 235 466

TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA
SARE SOZIALEAN
facebook
www.facebook.com/ttapi.ttapa

IMANOL ITURRIA
ZURGINA
Enpresa eta partikular
T. 661 577 137
E-posta: imanuria@hotmail.com
Eskatu asprekontua konpromisorik gabe

Karsuk®
Muebles de cocina
Meubles de cuisine
Sukaldeko altzariak

Karlos Pombar Baintz
C/Sara 1 bajo local C
31780 Bera (Na)
T/F +34 948 625 430
M +34 699 884 084
info@karsuk.eu
www.karsuk.eu

A
aterpe
albergue jeltzaz maitasun
T. 948 634 179
ARANTZA
www.arantza.net

IGANTZI

GIZARTEA → OSPAKIZUNAK

Giro ederrean eta parte hartze handiarekin joan ziren Udaberriko bestak

Dantza taldeak omenaldi hunkigarria eskaini zion Saioa Telletxeari

Joxean ORTEGA

Udaberriko bestak joan ziren, baina oraindik beraiekin oroitzen gara: euripean egindako mendi irteerak, bata Oskarrek Berrizaun auzoa ongi ezagutzeko zena eta bertzea herriko haurrekin egin zena. Kantuan aritu ginen herrian barna, dantza taldeak omenaldi hunkigarria eskaini zion Saioa Telletxeari eta opil goxoak jan genituen. Gaztetxoek pelikula barregarria ikusi zuten eskolan, Iñigo Segurolak be-

re jakinduria eta landare ederrak eskaini zizkigun, trikipoteoan aritu ginen eta larunbateko gaua borobiltzeko sekulako kontzertuez gozatu genuen Udaberri On jaialdian. Herriko gazteek Udaberri On kontzertuak finantzatzeko zozketa bat antolatu zuten. Kontzertuen eguneanbertan egin zen zozketa eta saria 977 zenbakia irteeratu zuten. Herriko batentzat izan da saria, Xeli Etxeberriarentzat.

Bukatzeko, igandean eskolako 2. eta 3. zikloetako ikasleek berebiziko emanaldia eskaini zuten herri osoaren aitzinean.

Igerilekuko lanen esleipena

Udalak, 2014ko denbo-



raldian igerilekuen mantentzen, garbiketa eta funtzionamendu lanak esleitzeko lehiaketa deitu du, sorosle postua izan ezik.

Hasierako prezioa 1.500 eurokoa da, BEZ barna, ekainaren 14tik irailaren 14a bitarte irauten duen denboraldi osorako. Proposamenak aurkezteko epea maiatzaren 16an 14:00etan akituko da.

Etheen errotulazioa

Herriko etheen errotulazioarekin bigarren fase bat egin da, eta 35 eskaera hartu dira. Beraz, hasierakoak eta oraingoak kontuan hartuta, guztira 125 etxetan paratuko da errotulua izenarekin. Hurrengo asteetan paratuko dira



ARGAZKIAK: JOXEAN ORTEGA

Oskar Txoperenak gidatuta Berrizaun auzoa ongi ezagutzeko aukera izan zuten.

errotuluak. Euskara Batzordeak hagitx balora-

zio ona egin du proiektu honekin.



Ba al zenekien

Herriak kontratatutako bi langileen laguntzaz, albintek aparkalekuan kotxeak aparkatzeko marraz margotu dituela, baita elbarrientzat plaza berri bat ere Merkatenarean parean.

ARTEKARI
TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKOA ETA LABORALA

- Langile autonomoak
- Nekazariak eta mendi langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-Kontratatutako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea

- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta aitortpenak
- Elbarritasun eta jubilazio espedienteak
- Bidegarritasun planak eta aurrekontuak

artekari@artekari.com

LESABA: Biltzila, 71-behea - Tel: 948 637 050 - Faxa: 948 637 050
BURLATA: La Viña, 4 - Tel: 948 133 328 - Faxa: 948 133 713

Ostargi optika

%5

DESKONTUA

produktu guztietan

GIZARTEA → MAIATZAREN 16TIK 18RA

Ekitaldi aunitzekin dator Asteburu Kulturala

Gazta
lehiaketaren
seigarren
edizioa egingen
da igandean

Maider PETRIRENA

Maiatzaren 16tik 18ra ospatuko da Asteburu Kulturala eta urtero bezala, hainbat ekitaldi antolatatu dituzte.

Ortziralean, 16:30ean haur jokoak izanen dira. Ondotik, txokolatada. 19:00etan hitzaldia eta bideo emanaldia izanen da Euskal Herritik barna itzulia egin duen Arkaitz Astiazararen eskutik. 20:30ean, afari autogestionatua egingen da Ulibeltzak elkartearen, edo bertze hitzetan, bakoitzak zerbaite eraman beharko du. 22:00etan mus txapelketa jokatu da Busetzen.

Larunbat goizeko 9:00etan mendi eta bizikleta ibilaldietarako izen ematea irekiko da Fonda atarian. Ordu erdi beranduago abiatuko dira mendizaleak eta txirrindulazaleak. Oinez, Plaza-Arretxekoboda-Zumaleku (jateko zerbait)-Txurinborda-Plaza ibilaldia egingen dute. Bizikleta buelta, berriz, plazatik abiatuta, Aulua, Bulatxiki, Zumaleku (jateko zerbait) eta Arretxekobordan barna plazan akituko dute.

16:00etan bazkaria izanen da Ariztigain kanpinean. Apuntatu nahi duenak txartelak bertan izanen ditu salgai. Goizez eta arratsaldean Jokulandia izanen da. 17:30ean Malerrekako Eguneko finalerako Sunbillako mus kanporaketa jokatu da Busetzen ostatuan. Ilunbarrean poteoa egingen da txaranga herrikoia erekin.

Igandean, azkenik, 10:00etatik 1:00etara artisau feriarenekin eta gazta lehiaketa herrikoia ere seigarren edizioa egingen da. Arratsaldean artisau feria izanen da, 4:30etik 7etara. 17:30ean haur dantzariak ariko dira eta 19:00etan gazta lehiaketaren sari banaketa eta saskiaren zozketa egingen dituzte.

Herreratarrak

Eneko Herrerak Euskadiko openean parte hartzeko aukera izan zuen apirilaren 27an. Maiatzaren 4an, berriz, Caja Ruralek antolatutako karrera izan zuten Lizarran bi anaiek eta Eneko aunitz sufritzea tokatu zitzaion. Koldo primeran aritu zen bigarren postua lortuz. Animoak herreratarrak.

Kanpo frogak

Nafarroan PISAk antolatzen dituzten kanpoko frogak egin dituzte eskolako LH 4. maila-



ARGAZKIA: JAIONE OTXANDORENA

28 lagun bildu ziren Artzain Amerikanoen bestan

Maiatzaren 1ean ospatu zuten Amerikarrek beraien besta ederra. 28. urteurrena dute eta nahiz eta kasualitatea izan 28 pertsona izan ziren besta eder horretaz gozatzea elkartu zirenak. Urtero bezala Ulibeltzak Elkartearen egin zuten hitzordua beraien Ameriketako edari goxua dastatzeko, Jaibol-a. Ondoren Ariztigain Kanpinera joan ziren bertan bazkari eder batez gozatzea, denak elkarrekin giro ederrean. Han ohiturak jarraituz, bazkaria, familia argazkia eta berendua egin zituzten. Artzai baten hitzetan egun ezin hobea pasatu zuten.



ARGAZKIA: MAIDER PETRIRENA

Lehen jaunartzea egin dute lau neska-mutikok

3 mutiko eta neska batek Lehen Jaunartzea egin zuten apirilaren 27an. Ikusita aste horren egin zuen eguraldi txarra, hagitz ongi portatu zen egun horretan eta hagitz eder eta polita izan zuten eguna Jone Gorria, Aimar Migeltorena, Eneitz Bertiz eta Iñaki Arriagak.

koak. Hain zuzen ere, apirilak 29an hizkuntzako frogak egin zuten, maiatzak 6an gaztelania, 7an matematika eta akitzeko 8an ingelesa.

Ba al zenekien

Lizun Gaztategiak 9. urtez Idiazabaleko Izen-dapenaren Erregularotasun edo kalitate saria lortu duela. Zorionak familia!



DONEZTEBE

GIZARTEA → MAIATZAREN 24AN

Malerrekako Gure Esku Dago Eguna ospatuko da herrian

Hainbat ekitaldi egingen dira egun osoan

TTIPI-TTAPA

Gure Esku Dago ekimena Malerrekan zabalitzen joateko, maiatzaren 24an (larunbata) Gure Esku dago eguna antolatu dute. Hitzordu honen helburua ekitaldi betetako egun polita antolatzea da, ekainaren 8an Durango eta Iruñea lotuko dituen giza katerako giroa berotzen joanaz.

Eguna argi soinuekin hasiko da 10:30ean. 11:00etan Bearzana frontoian herri kirolak antolatuko dira, Malerreka 6 talderen partehartzearekin: Doneztebe, Elgorriaga-Iturne-Zubieta, Basaburua, Oiz-Donamaria-Urruz, Bertizarana eta Sunbilla. Talde bakoitza 8 edo 10 lagunez osatua egonen da eta sei edo zazpi probei aurre egin beharko diete.

Kirolen ondoren, 13:00etan giza kate bat



UTZITAKO ARGAZKIA

300 lagun bildu zituen LABek maiatzaren 1eko manifestazioan

Langileok erabaki, Euskal Herriak erabaki dezan goiburupean 300 bat lagun bildu ziren maiatzaren 1ean LAB sindikatuak deitutako manifestazioan.

eginen da, ondotik herri bazkaria eta akitzeko mus eta partxis txapelketa, umeendako jolasak eta puzgarriak ere izanen dira. Eguna borobiltzeko erromeria antolatu dute.

Egun honetan metroak eta materiala salgai jarriko dira, Gazte Burrunbak antolatutako egunean (maiatza-

ren 17an) eta Malerreka-ko egunean (maiatzaren 31n) bezalaxe. Ostiz liburu-dendan eta Elgorriagako ostatuan ere eskuratzen ahal dira noiznahi. Malerreka-ko aurreikuspenak aisa bete dira, dagoeneko 120 metro saldu baitira. Ekainaren 8rako 150eko muga gainditzea espero dute.

Antolakuntzak autobusak paratuko ditu egun horretarako eta doan izateko boletoak salgai jarriko dira Baztan, Bortziriak eta Malerrekan. Ekainaren 8rako animazioa ere prestatu behar da Baztan eta Bortzirietako jendearekin bat eginda: fanfarrea, joaldunak, musikariak, dantzariak...

2014-15 IKASTURTEA

Matrikulazio epea irekiko du laister Agorreta Musika Eskolak

TTIPI-TTAPA

Agorreta Musika Eskolak laister irekiko du 2014-2015 ikasturterako matrikulazio epea. Datorren ikasturterako, berrikuntza moduan, 12 urtetik goitikoentzat instrumentua solfeorik gabe ikasteko aukera eman dute, baita jende helduarentzat ere. Hortaz gain, solfeoa egiten edo musika tresnaren bat ikasten ari gabe ere, Haur Abesbatzan parte hartu nahi duen guzari ateak ireki dizkiote, hila betean 3 euro ordainduta. Akordeoia, gitarra, pandereta, perkusioa, pianoa, trikitixa eta txistua dira aukerako instrumentuak. Izen emateko epeak hauek izanen dira. Ikasle zaharrentzat maiatzaren 19tik 23ra. Ikasle berrientzat maiatzaren 26tik ekainaren 6ra. Musika Eskolan egin beharko da izen ematea arratsaldean. Epe berezia ere irekiko da irailaren 8tik 12ra (11:00-13:00).

APARAN, S.A.

ERIKOLAIA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mogleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mogleak eta osagaiak
- KIT mogleak, esku-erremintak, etab...

Tel: 948 456 080
Fax: 948 450 334
DONEZTEBE

Lizun

GAZTANDEGIA

Sunbilla - Tel: 948 450 862

Gure Haragia

Nuestra Carne

ELGORRIAGA

OSPAKIZUNAK → MAIATZAREN 24AN

Moto zaleen bilkura egingen da herrian

Jokoak,
erakusketa,
poteo-bazkaria
eta kontzertuak
izanen dira

Mattin LARRALDE

Maitzaren 24an moteroen edo moto zaleen bilkura egingen da herrian. Bertan, joko moteroak, moto zaharren erakusketa eta poteo bazkaria egingen dira eta eguna akitzeko, kontzertua AZ-DZrekin eta oraindik zehazteko dagoen beste talderen batekin. Elgorriagara hurbiltzeko aitzakia polita, beraz, anima zaitez.

Udaberri koloretan

Udaberria argitzen hasi den honetan, jen-

dea ere hasi da lorez betetzen balkoiak, baratzak landatzen eta garaiko bertze lanetan. Herri sarreran dagoen itturrian eta bere apartalekuan loreak jarri eta zaintzeaz gain, aurten geranioak ere jarri dituzte. Eskertzekoa da bertan borondatez egiten duten lana, garbi eta txukun idukitzeko herri ingurua. Asko dugu hauetaz ikasteko, euren borondate onarekin lan handia egiten baitute herriaren alde.

Sendotzak larunbatean

Maiatzaren 17an sendotza egingen dute herriko bost gaztek: Oihana, Marilady, Asier, Iratxe eta Unai.



ARGAZKIAK: MATTIN LARRALDE

Aski dotore paratu dituzte herriko bazterrak, lorez jantzita.

Sabino Cuadraren liburua

Sabino Cuadrak *Arrojado a los leones* liburua aurkeztu zuen

maiatzaren 9an Herriko Etxeko erabilera anitzeko aretoan. Espainiako Kongresuko diputatua da Sabino herrikidea eta



UTZITAKO ARGAZKIA

Sabino Cuadrak argitaratu duen liburuaren azala. Ortziralean aurkeztu zuen herrian.

Madrilgo bizipenak biltzen ditu liburu honek. Inguruko jendea ugari bildu zen aurkezpenean.

1951tik
Casa Cambra
lentzeria-etxea

**UDAKO KOLEKZIO
BERRIA**

edredoi fundak • albornozak • edredoi nordikoak • ohe estalkiak • maindireak • mantelak • kuxinak • toallak
Tafalla, 13 • IRUÑEA • 948 230 634

Zure etorkizuna, gure erronka

*Etorkizunerako inbertsiorik hoberena, prestakuntza ona izatea da. **BIDASOA Goi Mailako Lanbide Heziketa Institutuak** hori eskaintzen dio bide hau hautatzen duen ikasleari. Profesional kualifikatuak, eta esperientzia egiaztatua; ekipamendurik hoberenak eta teknologiarik aurreratuenak. Lan munduan sartzeko aukerarik gabe inor gera ez dadin, ikasketak amaituta ikasleen jarraipena egiten du Institutuak.*



Telekomunikabide elektronika



Zurgintza eta altzarigintza



Elektronika mikroprogramablea



Eraikuntza eta topografia

HASIERAKO PRESTAKUNTZA

Eskaintza berritua eta osoa, Hezkuntzako Lege Organikora egokitua (LOE), Erdi eta Goi Mailako Prestakuntza-zikloak eskaintzen dituena industriaren sektoreko lanbide-arloan: Fabrikazio Mekanikoa, Elektrizitatea-Elektronika, Zurgintza eta Altzarigintza, Eraikuntza eta Obra Zibila. Hizkuntza ereduak: A (gaztelania), D (euskara), B (mistoa) eta zenbait kasutan eleanitza (moduluak ingelesez eta frantsesez). Hiru modalitate daude:

Erregimen arrunta (goizez)

Bigarren Hezkuntzako (DBH) edo Batxilergoko ikasketak bukatu ondotik, goizez eta bi kurtsotan Erdi edo Goi Mailako Zikloa egiteko ohiko bidea da.

Eskaintza Partziala (arratsaldez)

Bide honek Zikloetako moduluak era independentean ziurtatzeko aukera ematen du. Ordutegia ikaslearen beharretara egokitzen da. Lana eta bestelako eginkizunak ikasketarekin tartekatuz, hiru urteko epean dagokion titulazioa eskuratzeko aukera du ikasleak.

Goi Mailarako sarbide-froga prestakuntza kurtsoa

Goi Mailarako sarbide-froga prestatzeko kurtsoa egiteko aukera era bada.

Eleaniztasuna

Eleaniztasuna frantsesez edo ingelesez (talde bat osatzeko gutxieneko kopurua osatuz gero). Ingelesez: Fabrikazio Mekanikoa, Instalazio Elektroteknikoak eta Obra Zibileko Proiektuak. Frantsesez: Zurgintza eta Altzarigintza.

kazio Mekanikoa, Instalazio Elektroteknikoak eta Obra Zibileko Proiektuak. Frantsesez: Zurgintza eta Altzarigintza.

Lanbide Heziketa Duala

Ikas-ekinezko heziketan oinarritua den modalitatea da. Alemaniako modeloaren antzera, ikastetxeetako prestakuntza lantegietako prestakuntzarekin konbinatzen ditu. Hartara, ikasleak ezagutza teoriko eta praktikoa guztiak bereganatzen ditu ikastetxearen eta lantegiaren artean, lan-kontratu batekin eta sektoreko lan hitzarmenaren arabera kobratuz.

Lehen Aukera Programa

Eusko Jaurlaritzak finantzatzen duen programa berri hau Prestakuntza Ziklo bat bukatu duten ikasleentzat prestatua dago, enpresa batean ordaindutako praktikak eginez ikasleek lan-esperientzia har dezaten.



Mekanika



Elektrizitatea



Elizatxo, 10
20303 IRUN (Gipuzkoa)
Tfnoa.: 943 666 010
Faxa: 943 615 380
secretaria@fpbidasoa.org



www.fpbidasoa.org

Kokapena:

Elizatxo, 10

Irungo erdigunetik 300 metrora,
Elizatxo etorbidea eta Aduana
kalearen bidegurutzean.

GPS:

N 43° 20.198'

W 1° 47.897'



ATE IREKIEN ASTEA

ERDI MAILA: Maiatzak 19, astelehena, 18:30ean
GOI MAILA: Maiatzak 20, asteartea, 18:30ean
ARRETA PERTSONALIZATUA:
Hitzordua aldez aurretik eskatuta

IKASTETXEA ESKAINTZEN DITUEN BESTE ZERBITZU BATZUK

Lan-Poltsa

Espezializazioa edozein dela ere, euren ikasketak bukatzen dituzten ikasleentzako enplegu-aukera eta segimendu pertsonalizatua egiten du ikastetxeak helburu horrekin prestatua duen lan-poltsaren bitartez. Lan-Poltsa honi esker, enprestatik datozen lan-eskaerak kudeatzen ditugu eta gure ikasleek lan-merkatuan sartzeko aukera dute edo, kasuaren arabera, euren lan egoera hobetzeko aukera dute.

Lan-munduan sartzea, norbere enpresa sortzea eta autoenplegua

Ekintzailetzaren eta autopenpleguaren kultura sustatzeko esfortzu berezia egiten du Institutuak. Hezkuntza Sailburuordetzaren Urratsbat programari esker, Bidasoa Institutuak ikasketak bukatu dituzten ikasleei enpresa propioak sortzen laguntzen die. 2001ean ekimena abiatu zenetik hamabost enpresa baino gehiago eratu dituzte ikastetxeko ikasleek.

Ikasle-trukeak eta praktikak Europako enpresetan

Prestakuntza ikastaroak dohainik langile eta langabeentzat

Enpresendako prestakuntza-beharren diagnostikoak

2014 / 2015 IKASTURTEA

Ziklo-eskaintza egunez eta gauez*

Hizkuntza eskaintza A, D eta eleanitza

Gaztelania, euskara, ingelesa, frantsesa

GOI MAILA

FABRIKAZIO MEKANIKOKO PRODUKZIOAREN
PROGRAMAZIOA*

FABRIKAZIO MEKANIKOKO DISEINUA

DISEINUA ETA ALTZARI-HORNIKUNTZA

OBRA ZIBILEKO PROIEKTUAK

SISTEMA ELEKTROTEKNIKOAK
ETA AUTOMATIZATUAK

MANTENTZE-LAN ELEKTRONIKOA

TELEKOMUNIKAZIO ETA INFORMATIKA-SISTEMAK

ERDI MAILA

MEKANIZAZIOA

INSTALAZIOA ETA ALTZARI-HORNIKUNTZA

INSTALAZIO ELEKTRIKO ETA AUTOMATIKOAK*

TELEKOMUNIKAZIO INSTALAZIOAK

INSKRIPZIO EPEA

Maiatzaren 27tik
ekainaren 6ra
biak barne

MATRIKULA EPEA

Uztailaren 9tik 16ra
biak barne

ITUREN

KIROLAK → EUSKO LABEL BANAKAKO AIZKORA TXAPELKETAN

Finalaurrekoetan sartu da Ander Erasun

Beran jokaturako saioan bere multzoko garailea atera zen aurtiztarra

Arkaitz MINDEGIA

Euskolabel banakako aizkora txapelketa aurrera doa, eta ederki ari da Ander Erasun. Lehen bi jardunaldien ondotik aitzinera segitzen du. Bigarrenean, Beran, sei aizkolarik hartu zuten parte, bi multzotan banatuak. Lehen multzoan Oihan Larretxea, Ruben Saralegi eta Jon Rodrigizek hartu zuten parte eta bestean Ander Erasun, Iker Vicen-

te eta Eneko Otañok. Ander Erasun bere multzoko irabazle geratu zen eta horrela finalerdietarako txartela lortu zuen Oihan Larretxea, Ruben Saralegi eta Eneko Otañorekin batera.

Baratzeko lanak

Udaberriko egun hauek ederki probexten ari dira herritarrek, baratz lanetan denboraldiko landareak jarritz, gero mahaiaren bueltan ederki goxo goxo etxeko produktua dastatzeko!!

Sein btt-karreretan

Apirilean eta maiatzean hainbat eta hainbat karreretan parte hartu du Jabier Sein mendibizikletako txirrindu-

lariak. Tuteran, Bilbon eta Lizarran egindako probetan, batzuetan goiko postuetan eta besteetan hurbil hurbil ibili zen. Errate baterako, apirilaren 13an Tuteran Caja Rural Kopako proban irabazle izan zen. Apirilaren 27an Bilbon jokaturako Euskadiko XCO Openeko bigarren proba ere irabazi zuen. Ondorioz, jubeniletan lider jarri zen. Azkeneko karrera, aldiz, gazi gozoa izan zen. Maiatzaren 4an Lizarran Caja Ruraleko Kopan bosgarren sailkatu zen. Nahiz eta ongi hasi, gorputzak ez zion lagundu.

Abarun ostatua

Abarun ostatua gozoz eta ilusioz ari da la-



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Iturengo bestak uztailaren 18tik 21era

Hasiak dira Iturengo bestak antolatzen. Maiatzaren 3an egin zuten lehen bilera, datak adostuz, egitarauari itzuli bat emanez... Oraingoz ebatzia utzi dute bestak uztailaren 18tik 21era izanaren direla.

nean, berrikuntzekin gainera. Apirilaren 25ean zine emanaldia izan zuten bertan herriko haurtxoek. Horrez gain, hasi dira Abarun aterpetxearekin lanean, Asate Santuan turistekin etadagoeneko ikasleekin ere hasiak dira lanean. Aipatu digutenez, maiatz eta ekainean herri eta leku ezberdinetako eskolak pasatzekoak dira bertatik. Lo egiteaz aparte, gisa guzие-

tako tailer, jolas eta ateraldiak egiten dituzte, etortzen denak ederki pasatu eta bueltatzeko.

Lapurretak

Apirilaren hondarreko egunean Aurtitzen lapurtzera sartu ziren hainbat tokitan. Goizeko lehen orduetan Aurtizko elkartean eta Abarun ostatuan sartu ziren. Bertze etxe batetik ogiaren euroa ere lapurtu zuten.

DONAMARIA

GIZARTEA → MAIATZAREN 4AN

Garmendiko mendi itzulia egin dute Solaslagunek

TTIPI-TTAPA

Solaslagunek mendi itzulia egiteko hitzordua bete zuten maiatzaren 4an. Malerreka, Bortziariak eta Baztango 14 Solaslagun elkartu ziren.

Gosari ederra hartu ondotik Donamariako plazan autoak antolatu eta ibilbidearen hastapenera jo zuten, Belateko Benta Errera hain zu-

zen ere. Bertan hasi zen lau ordu eta erdiko ibilbidea. Golbaiko muga zeharkatu eta Txarutara ailegatu baino lehen hamaiketako egin zuten Uztalakortako bordan. Su eder baten inguruan indarrak berreskuratu eta berriz ere ekin zioten bideari: Txaruta, Garmendia, Lanzibi, Ibaite, Trosketa eta Do-

namaria. Bidean, pagadi basatiak eta erreka zeharkatu zituzten.

Herrirat ailegatutakoan, hidratatu, luzaketak egin, sua piztu eta txingarretan janaria prestatu zuten, parkean bazkaldu eta umeen pare pasatu zuten arratsalde osoa. Herria girotzeaz gain, euskaraz bizi ahal



UTZITAKO ARGAZKIA

Solaslagunak, Garmendiko kaxkoan.

izateko eguna izan zuten, harremanak sakon-

du eta euskal sareak indartu zituzten berriz ere.

ZUBIETA

GIZARTEA → BISITARIEN SEGURTASUNERAKO

Errotarako bidean sokazko baranda jarri dute

Errotaren ondoan burni batzuk ere paratu dituzte

Fermin ETXEKOLONEA

Errotarako egurrezko bidean sokazko baranda paratu dute. Lehenago zuhaitzak ere bota egin zituzten, pasatzeko tarte meharra gelditzen zelako. Itxura berriua du orain inguruak. Horretaz gain errotaren ondoan ere burni batzuk paratu dituzte, bisitarien segurtasuna bermatzeko.

Europako hauteskundeak

Europako Parlamentuko Hauteskundeak egingen dira maiatzaren 25ean. Mahaian zein egon beharko duen erabakitzeke zozketa egin zen eta mahaiburua Nerea Bazterrika Loiarre izanen da. Bokaledo laguntzaileak, berriz, Olga Garrote Llanos eta Urko Loiarre Etxekolonea izanen dira.

Egur loteen enkantea

Hiru enpresari galdegin zitzaion egur loteak



ARGAZKIA: OLGA GARROTE

Sokazko baranda jarrita seguruago ibiliko dira errotako bisitariak.

ateratzeko lanaren prezioa. Hiru aukeren artean Santesteban egurrari eman zaio, beraie-na izan baita eskaitzarik onena.

Aingeruak maiatzean

Maiatzeko igandetan aingeruak aritzen dira elizkizunean laguntzen eta Amabirjinari loreak eskaintzen. Luaia Fagoaga, Marion Elizalde,

Saioa Mariezkurrena, Jone Indakoetxea, Garazi Santesteban, Lorea Santesteban eta Ixone Elizalde dira aurten.

Eskulangileak Oronoz-Mugairin

Maiatzaren 15ean ospakizuna egingen du Arkupeak elkarteak Bertizen. Artisauak ere biltzekoak dira eta herritik Santi Hualde eta Migel Arregi joanen dira.

Gure esku dago Eguna

Donezteben ospatzekoa da Malerreka Gure Esku Dago Eguna maiatzaren 24an. Herri kirolak egiteko asmoa dute. Herri bakoitzetik emakume eta gizonezko bana behar dute eta borondatea duenak Jasone Astibiari eman behar dio izena. Jaialdi berean Aierrik musika taldeak ere joko du.

GIZARTEA

NEKAZARITZA → NAFARROAKO GOBERNUAREN LAGUNTZA

21,4 milioi euro nekazari gazteek jarduera has dezaten eta ustiategiak modernizatzeko

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Gobernuak 21.361.832 euroko gastua onartu du nekazaritza ustiategiak modernizatzeko eta nekazari gazteek jarduera hasi ahal izateko bultzada emateko asmoz. Dirulaguntza hau 160 herritako 543 onuradunek jasoko dute (471 gizonezko eta 72 emakume).

Neurri honekin, 59.800.988 euroko inbertsioa egingen dute lehen sektorean. Kalkulatu denaren arabera, 1.709 lanpostu finkatu edo sortuko dira.

Laguntza horiek Nafarroako Landa Garapenerako 2014-2020ko Programaren baitan eman eta 2016 (11,7 milioi euro) eta 2017 (9,7

milioi euro) urteko ekitaldietan ordainduko dira.

Emandako laguntza osotik, 16,14 milioi euro nekazaritzako ustiategiak modernizatzeko 390 proiektutarako izango dira. Inbertsioa 45.885.004,47 eurokoa izanen da guztira. Gainerakoa (5,21 milioi euro) gazteak lehen aldiz

lehen sektorean hasteko 153 proiektu finantzatzeko erabiliko da. 13.915.984,94 eurokoa da inbertsioa guztira.

Laguntzen ezaugarri aipagarrienetakoa dalehentasuna emanen zaiela nekazaritza ogibide nagusitzat dutenei eta inguru kaltetu eta menditsuetan dauden ustiategiei. Hori kontu-

an izanik, emandako 543 espedienteetatik 416, hau da, inbertsio osoaren % 83a nekazaritzatik bizi direnei zuzendua dago. Bestalde, laguntza jaso duten proiektuen % 76 inguru kaltetu edo menditsuetakoak dira, eta emandako laguntza osoaren % 79,6 jasoko dute (17 milioi euro).

EZKURRA

GIZARTEA →

Ganbela bidean eserleku bat eraiki du herritar batek

Apirilaren 18ko suteak uste baino kalte ttikiagoak utzi ditu

Fernando ETXEBERRIA:

Ostegun Santuko sutearen ondorioak neurtu dira eta zorionez ez da kalte handirik izan. Ametzak erre ziren baina berriro ere ernetzen hasi dira. Nafarroako Gobernuak diru laguntzarekin landatutako haritz amerikarrak kaltetu zirela aipatu zuten baina ez da halakorik gertatu. Batzuk behar ez den bezala larre erreketan aritu diren bitartean,

an, badira herriaren eta herritarren aldeko keinuak egin dituztenak. Ganbela izenez ezagutzen den bidean egurrezko eserleku bat eraiki du herritar batek, bertan paseoa ibiltzen diren jubilatuek atseden hartzeko aukera izanen dute aurrerantzean.

Egur loteak

Etxeetarako egur loteak antolatzen hasi dira eta pasa den urtean bezalaxe, bi urterako loteak osatzea da asmoa. Zuhaitzak bota eta egurra etxeetara eramatea zenbat kostako den aldez aurretik zehaztuko dute eta herritarrei jakinaraziko zaie.



ARGAZKIA: FERNANDO ETXEBERRIA

Irudian suteak utzitako ondorioak.



ARGAZKIA: FERNANDO ETXEBERRIA

Ezkurran ere kantuz

Maiatzaren 3an, 32 abeslari bildu ziren Ezkurran egin zen Malerreka kantuz egunean. Barranka ostatuan egin zuten hitzordua, kantuan ongi pasatzeko asmoz. Hasieran eguraldi lagun ez zuten arren, goizak aurrera egin ahala atertu eta frontoiko aterpetik ateratzeko aukera izan zuten. Trikitixa lagun herrian barrena aritu ziren kantuan eta Barrankan bukatu zuten ibilaldia giro ederrean.



GRUPO TANATORIO TALDEA
IRACHE
MALDAERREKA S.L

24 ORDUKO TELEFONOA
948581959 | 948637404

BERA (SAN JOSE) | DONEZTEBE (SAN PEDRO) | ELIZONDO (BAZTANDARRA)
ELIZONDO (BAZTAN) | LEITZA | LESAKA

- TRASLADOAK IRUÑA, DONOSTIA ETA IRUNGO OSPITALETATIK EDOZEIN HERRIETARA -
- LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK, ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK -

IRTEERAK → VIANATIK ABIATUTA

Donejakue bideko etapak osatuz

Sei egunez bidean aurrera egin dute 22 bazkidek

Fernando ETXEBERRIA

Arkupeak Elkarteko kideak Donejakue Bidea osatzeko asmoa dute. Ibilbidearen zati batzuk dagoeneko eginak dituzte eta maiatzen 5ean, Vianatik abia-

tu eta sei egunez, bidean aurrera egin dute. 22 bazkidek eman zuten izena eta guztiak elkarrekin abiatu ziren arren, gero bi taldetan banatu ziren. Taldeetako batek falta zaizkien etapa guztiak aurtan amaitzeko asmoa du eta bertze taldeak berriz bi urteko epean. Horregatik, taldeetako batek Navarreten eman zion amaiera ibilbideari eta beste-



ARGAZKIAK: FERNANDO ETXEBERRIA

Maiatzaren 5ean, elkarrekin abiatu ziren Vianako polikiroldegitik.

ak San Antongo gainera izan zuen helmuga.

110 lagunek Lourdesera bidaia

Santiagorantz abiatu aurretik, Lourdesen

izan ziren bazkide horietako batzuk. Denera, 110 elkartekide joan ziren maiatzaren 2an egin zen irteerara. Doneztebeko parrokoak meza eman zuen hamabiak inguruan eta gero guzti-

ak bazkaltzera joan ziren. Bazkalondoan, errosariora joan ziren, baina eguraldi txarra medio, gaixoen erroresaldia santutegi barrerenean egin zen kanpoan egin beharrean.



ARGAZKIA: FERNANDO ETXEBERRIA

Leitzako itzulia 17 bazkidek egin zuten

Apirilaren 24an, 17 lagunek taldea bildu zen Leitzako mendietatik barna ibilaldi bat egiteko asmotan. Eguraldi aurreikuspenak ez ziren oso onak baina meteorologoen ez zuten bete betearen asmatu eta aterkia gutxitan ireki behar izan zuten lau orduko ibilbidean. Herriko plazatik abiatu eta Santa Kruz ermitarantz joan ziren. Haize-errotetatik pasa ondok, aska ondoan indarrak berritu eta Erasote auzorantz jo zuten. Hortik, Plazaolako trenbidetik barna, irteera puntura iritsi ziren. Eguerdiko ordubietan, Arakindegian bazkaldu zuten. Zorionak zuri abestia abesteko aukera ere izan zuten bertaratu-takoek ibilaldiaren antolatzaileetako baten urtebetetzea izan zelako biharamunean.



ARGAZKIA: FERNANDO ETXEBERRIA

Egun borobila Ordiziako Artzain egunean

Koadrila ederra joan zen apirilaren 23an Ordiziako Artzain egunera. Goizeko hamarretatik aldera iritsi ziren bertara eta eguna ongi hasteko tabernetan moka-dutxoa jateko tarteak izan zuten. Mendetako ohiturari segiz 11:00etan artalde-ek karrikak zeharkatu zituzten eta hori ikusi ondok, nekazari eta artisauen postuak bisitatu zituzten Arkupeak Elkartekoek. Gazta eta barazki artean Karlos Argiñano sukaldari famatua topatu zuten eta harekin solastu eta argazkiak ateratzeko aukera izan zuten. 13:30ean Azpeitia aldera abiatu ziren, Kiruri jatetxean bazkaltzeko. Otordu ederra jan ondok, dantzaldia izan zen iluntzeko zortziak laurden gutxi arte. Jatetxetik hurbil gelditzen denez bazkideetako batzuk arratsaldean Loiolako Santutegia bisitatu zuten.

Ba al zenekien

Erramun Martikorenak emanaldia eskainiko duela Oronoz-Mugairin maiatzaren 15ean. 283 bazkidek eman dute bazkarirako izena.

LANA

GIZARTEA → APIRIL HONDARREKO DATUAK

1.342 langabetu zituen eskualdeak

Martxoan baino 104 guttiago dira (-%7,19), aspaldiko jautsiera nabarmenena

TTIPI-TTAPA

1.342 lagun zeuden Doneztebeko Enplegu Bulegoan izen emanak apiril hondarrean, martxoan baino 104 guttiago. Nafarroa osoan %3,20 jautsi da langabezia eta eskualdean %7,19, aspaldiko jautsiera nabarmenena. Apirilean 488 kontra-

tu egin ziren Doneztebeko Enplegu Bulegoaren bitartez, horietatik 60 mugagabeak.

Adina eta sexuari dagokionez, 25 urtez goitiko gizasemeen artean 616 lagun daude langabezian, martxoan baino 41 guttiago. Adin tartetarako emakumeen artean 585 langabetu daude, martxoan baino 50 guttiago. 25 urtez beheetiko gizasemeen artean ere 17 lagun guttiago daude langabezian, 82, eta adin tartetarako emakumeen artean, aldiz, martxoan baino 4 emakume gehiago daude lanik gabe, 59 denera.

LANGABEZIA-DATUAK HERRIKA | 2014ko apirila

Herria	Populazioa 2013	Lanik gabe guztira	Langabezi-prestaziorik kobratzen dute?	
			EZ	BAI
ARANO	120	6	2	4
ARANTZA	634	22	12	10
ARESO	271	10	5	5
BAZTAN	7.974	330	161	169
BEINTZA-LABAIEN	240	11	6	5
BERA	3.829	184	88	96
BERTIZARANA	614	47	33	14
DONAMARIA	437	22	12	10
DONEZTEBE	1.681	121	77	44
ELGORRIAGA	225	14	9	5
ERATSUN	159	14	7	7
ETXALAR	829	38	14	24
EZKURRA	151	7	2	5
GOIZUETA	763	42	21	21
IGANTZI	627	23	9	14
ITUREN	513	37	16	21
LEITZA	2.889	156	71	85
LESAKA	2.784	149	73	76
OIZ	144	4	1	3
SALDIAS	114	12	4	8
SUNBILLA	627	45	21	24
URDAZUBI	380	8	5	3
URROZ	181	7	4	3
ZUBIETA	316	22	9	13
ZUGARRAMURDI	220	11	5	6
Denetara	26.722	1.342	(%49,7) 667	(%50,3) 675

Zerbitzuen arloak segitzen du langabe gehien izaten, baina jautsierarik nabarmenena izan duen sektorea izan da, 946tik 865 langabetera pasatuz, 81 guttiago. Industria arloan 18

langabetu guttiago daude, 227 denera. Eraikitzearen ere 18 langabetu guttiago daude, 141. Nekazaritzan bi lagun gehiago daude langabezian, 26 lagun, eta aitzinetik lanik egin ez

dutenen artean 83 lagun daude langabezian, martxoan baino 9 gehiago.

Koadroan ageri denez, dagoeneko langabetuen erditsuak ez du prestaziorik kobratzen.

GIZARTEA → BAZTAN-BIDASOALDEAN 700 SINADURA BILDU NAHI DITU

Lege Herri Ekimena aurkeztu nahi du ELAk

Arlo publikoko subkontratetako langileen lan baldintzak bermatu nahian

TTIPI-TTAPA

Arlo publikoko subkontratetako langileen lan baldintzak bertan bertan Lege Herri Ekimena aurkeztu nahi du ELAk eta horretarako 7.000 sinadura bildu na-

hi dira Nafarroa osoan eta gutxienez 700 Baztan-Bidasoaldean.

Iker Urruzola, ELAko Baztan-Bidasoaldeko arduradunak aipatu duenez, «horretarako, jadanik hasi gara lantokietan sinadurak biltzen eta erritmo onean goaz».

Lege Herri Proposamen honetan, «subrogazioaren derrigortasuna eskatzen da instituzio publikoek lizitazio

bidez kontratatzen dituzten lan eta enpresentzako». Lan hitzarmenen mantentzea edo tokian tokiko hitzarmenak aplikatzea eta lizitazioan dagokion hitzarmena ezartzea izanen da beste helburu bat. Bi helburu hauek baldintza izanik, bat edo bertzetik ez badituzte betetzen, enpresarik isun ekonomikoak izan ditzatela ere eskatuko dute.



UTZITAKO ARGAZKIA

ELA sindikatuko ordezkariak apirilaren 29an Beran egin zuten agerraldian.

SINADURA BILKETAK

Sinadurak biltzeko helburu horretan, lantegietan ez ezik, karriketan ere dabilta ELA sindikatukoak. Honela, maiatzaren 9an Doneztebeko Udaberriko ferian izan ziren. Maia-

tzaren 15ean, Elizondoko plazan izanen dira 10:00etatik 12:00etara. Maiatzaren 17an, Bera-ko Errekalde ostatuaren aitzinean, 10:00etatik 12:00etara eta Lesakan, ekainean futbol zelai ondoan izanen dira.

NATURA →

Biziaren oihala baserri bateko tiestoan hedatua

Txori batek kabia egin du eta sei txorikume jaio dira

Markel LIZASOAIN

Txori batek tiestoan egin du kabia Saldisko baserri batean. Ez dakigu zer klasetakoa den, horia eta grisa ditu kolore batzuk. Urtxuria ote den dago etxeke gizona; andreak, berriz, aski du kortinatik kukuka egonda. Sei arrautza errun zituen apirillean, eta

sei txorikume jaio dira. Dagoeneko lumak ateratzen hasi zaizkie, eta, berri hau ateratzen denerako, hegatuak izanen dira seguru asko ere. Harata ez da bandera arrotzik ailegatu. Han biziaren bandera dute, ez etxeke kalduurretik zintzilik, etxe inguru guzian, maindiretako. Oiloak bere txitxakin, ahatea txitatzen, bost-sei txerrikume amaren errapetik eta aretzea sekulako lasterrak egiten puztana goiti eginda, baita bildotsak ere be eta be, amari deika.



ARGAZKIAK: MARKEL LIZASOAIN

Sei arrautza errun zituen txoriak baserriko balkoikotiestoan eta sei txorikume jaio dira.

ARANO

GIZARTEA → MAIATZAREN 9AN

Konpostajeaz informazioa emateko bilera egin dute

TTIPI-TTAPA

Hondakin organikoak sortzen duen arazoz eta konpostajeaz ari zeko bilera egin zen maiatzaren 9an udaletxean, Mendialdeko Mankomunitateak abian jarri duen sentsibilizazio kanpainaren baitan.

Vermican-ek egindako azterketaren ondorioen arabera, Aranora biltzera joateak kilometro asko egitea suposatzen du. Beraz, hondakin organikoak herrian

bertan kudeatuko balira konpostajearen bidez, problemaren zati handi batekin bukatuko litzateke. Urtean 11-12 tona hondakin organiko biltzen dira, kontenedore berdean jasotzen denaren %45a. 121 biztanle erroldatu eta 85 etxebizitza daude herrian. Etxebizitza gehienak familia bakarrekoak dira Honela, udalerrian sortzen den organiko guztia konpostatzeko, nahikoa izango litzateke etxeke

konpostagailuak banatzea eta 2-3 auzoko konpostagune jartzea. Onura guzti hauetaz aparte, kalitate handiko ongarri organiko naturala lortuko litzateke (udalerrian bertan erabiltzeko).

Horregatik, eta herriarrak dagoen arazoaz informatuak egoteko egin zen bilera. Dena den, prozesu luze baten lehen urratsa besterik ez zen izan eta aurrerantzean ere izango da gaiaz hausnartzeko aukera.

LEITZALDEA → BI URTEZ ARITU DA AMAIA ZALBA
Gizarte Zerbitzuetako Berdintasun Teknikaria aldatuko da

J.M. BARRIOLA

Amaia Zalbak, Gizarte Zerbitzuetako Berdintasun Teknikaria, utzi egingo gaitu eta joan aurretik herria agurtu eta «eskerrak eman» nahi izan ditu «bi urte luze hauetan Berdintasun Plana egiteko eta aurrera eramateko inplikatu zareten guztioi». Batzordetan, bileretan, ekimenetan edota beste-lako jardueretan parte hartu dutenei zuzendu zaie batez ere «plazer handia izan da zuekin lan egitea, eta zuen gogo eta inplikazioa ezinbestekoa izan da. Mila esker modu batean edo bestean nere lana erreztu didazuen guztiei». «Es-kualde honetan dagoen indarra eta lanerako gogo» izan dira gehien aberastu dutena, «eta hemen ikasitakoak ez dira gutxi izan, bai lan arloan zein arlo pertsonalean ere» gaineratu du. Berdintasunaren arloan tinko jarraitzeko gonbita egin die herritarrei «horretan jarraituko dut nik ere beste leku batzuetatik! Bihotzez, eskerrik asko!».



LEITZA

KULTURA → 37. KULTUR AROA IZANEN DA

Maiatzaren 15etik ekainaren 8ra kulturaz blai

Hitzaldi eta kontzertuak izanen dira egitarauaren mamia

JM BARRIOLA

Urterokolegez, maiatzean kulturaz zipriztinduko dira herriko bazterrak. Astez eta asteburuetan izanen dira ekitaldiak eta urteroko hitzorduek ere ez dute hutsik egingen; ekainaren 1ean XXXVI. Eskulangintza azoka eta ekainaren 7an VI. Sagardo Eguna ospatuko dituzte jai giroan. Kultur Aroaren 37. edizioa da aurtengoa eta orain artekoak bezalaxe, ALKEk antolatuko du aroa, Udalak, Kaxkabeltza merkatarien elkarteak, Atekabeltz Elkartek, Aurrerak, Guraso Elkartek eta herriko komertzioek lagunduta.

HITZALDIAK

Mota guztietako gaiak izanen dituzte hizpide Atekabeltz, Aurrera eta Udaletxean egingen dituzten hitzaldietan. "Gizonak haien maskulinitasuna birplanteatuz, berdintasunerako bidean" gaia landuko du Jabi Arakamak. Agurtzane Belauntzarane "Asiak" hitzaldia eskainiko du. Alicia Raquel Lasartek "Osasun emozionala" hartuko du hizpide. Urko Arozena "Meditazioaz" solastuko da. "Pilota jokoen historia" hitzaldia ere

ERAKUSKETAK

Maskulinitateari buruzko lanak ikusgai iUdaletxean eta Atekabeltzen eta Peritzan Santi Larrazen margolanak.

izanen da Aurreran eta ondoren pasaka partidua jokatu da frontoian. Txente Recondok "Catalunia independentziantz" gaia landuko du. Arkaitz Astiazarane "Euskal Herriko altxorretan barrena" hitzaldia eskainiko du 20:00etan. Xamar "Udako solstizioaz" ariko da eta bukatzeko EHMERen gaineko hitzaldia izanen da zinean. Ordutegi eta lekuen gaineko xehetasunak agendan dituzue.

KIROL HITZORDUAK

Maiatzaren 16an pilota pesta eta 18an Trikuharrietan barrena mendi irteera antolatu dituzte. Kirol hitzordu nagusia Euskal Herriko Mendi Erronka izanen da maiatzaren 31n.

KONTZERTUAK

La jodedera, Stricalia, Inoren Ero Ni, Sykorax eta Golpe de Rabia taldeen kontzertuak, Aralar Musika eskolako ikasleen emanaldiak eta elizan organo kontzertua antolatu dituzte berlarrien goxagarri.

Etxeko ttikienentzat, pailazoak ere izanen dira maiatzaren 18an karapean.



ARGAZKIA: JM BARRIOLA

Inposaketaren kontrako eguna

Inposaketaren Aurkako Taldeak hainbat ekimen burutu ditu azkenaldian herrian. Euskal ikurren defentsan eta inposaketa salatzeke helburuarekin Euskal Herriko ikurrak jartzeko deialdia luzatu zieten herritarrei eta etxeetako balkoietan eta leihoetan dozenaka ikur jarri dira. Apirilaren 26an Lopene aurrean ere euskal ikurrak jarri zituzten pesta giroan eta segidan txistularien laguntzarekin herriko plazan ekitaldia burutu zen. Bertan Udalbiltzako Nazio Gobernuako kide den Igor Eguren hartu zuen hitza, bai eta Leitzako inposaketaren aurkako taldeko kide batek ere. Ekitaldiaren baitan euskal ikurren defentsa aldarrikatu eta Leitzako Udalaren aurreko plaza, Euskal Herria plaza bezala izendatu zen, hori adierazten duen plaka agerian utziz. Karapean Bai Euskal Herria erakundearen erakusketa zegoen ikusgai eta Nafarroako ikurren legea aldatzeko sinadurak ere bildu zituzten.



ARGAZKIA: ERLETA ESKOLA

Liburuaren festa ospatu zuten Erleta eskolan

Apirilaren 30ean liburuak ardatz hartuta, ekitaldi ugari antolatu zituzten Erleta eskolan. Hasteko 3. mailatik hasi eta 6. maila bitarteko ikasleek egindako I. Olerki Bilduma liburu aurkeztu zuten. Gela bakoitzetik aukeratutako hiruzpalau olerki irakurri zituzten. Haur Hezkuntzako ikasleek ipuin bat marraztu eta idatzi zuten mural eder batean. L.H.ko 1. Zikloko ikasleek berriz, ipuin bat gaitzat hartuta, marrazki erakusketa prestatu zuten. Era berean Liburuaren festa izaki, gela bakoitzean jasotako "liburu berezien" bilduma jarri zuten ikusgai.

ARGAZKIA: JM BARRIOLA



Natur Bideen Eguna

Igandean maiatzaren 4an Natur Bideen Eguna ospatu zen, Plazaolaren 100. urteurreneko testuinguruan. Eguraldi ona egin zuen eta jende ugari bildu zen geltoki zaharrean. Artisauen postuak eta erakusketak bisitatu eta herriko dantzari txikiak eta Aralar musika eskolako ikasleen emanaldiaz gozatu zuten. Arratsaldean plazan Ortzadar taldearen eskutik dantzan aritzeko aukera ere izan zuten ausartenean.

OSPAKIZUNA → EGUN OSOKO PESTA

Eskualdeko Gure esku dago eguna maiatzaren 17an

Bazkarirako txartelak salgai daude Leitza, Lekunberri, Areso eta Betelun

Juana Mari SAIZAR

Larunbat honetan, maiatzaren 17an, eskualdeko Gure Esku Dago eguna ospatuko da herrian. Larraun, Lekunberri, Araitz, Betelu eta Leitzako biztanleekin batera denon artean antolatutako festa eguna izango da. Guztioi ekainaren 8an egingo den giza katean kilometro berberean egotea ego-

kitu zaigu, 110.kilometroa hain zuzen. Eskualdekoak ez gara kilometro horretan egongo garrenbakarrak, gurekin batera izango dira besteak beste Bortzirietako, Basaburuako, Uitzamako eta Odietako herritarrak. Ekaineko ekitaldirako prestatzen joateko, hemen doa larunbateko pestako egitaraua:

Goizean zehar musika, fanfarrea, graffiteroak, buru handiak, izango dira herrian eta pintxoak dastatzeko aukera ere izango da. 11:00etan haurrentzako jokoak eta tailerrak antolatu dituzte eta eguerdiko 12:00etan kalejira



ARGAZKIA: JUANA MARI SAIZAR

Sei bikote ariko dira frontenis txapelketan

Maiatzaren 24an hasiko dira frontenis txapelketako partidak eta sei bikote ariko dira nor baino nor. Bikote guztiek jokatu beharko dute elkarren kontra, ligilla motakoa baita txapelketa. Azken aldian herriko plaza bete da egoten da: batzuk entrenatzen, besteak jolasean, pilota hotsa da nagusi. Umeak ere beraientzat txapelketa antolatzeke eskatzen hasiak dira, hemen badago etorkizuna!

egingo da herrian musikoekin. Segidan, herrien arteko herri kirol saioa antolatu dute. Seguru giro bikaina sortuko dela!

Eguerdiko ordubietan eskualdeko giza katea osatuko da eta ondoren Gure Esku Dago dantza egingo da plazan. Herri bazkaria izan-

go da gero bertsolariek alaituta. Arratsaldean zehar futbol txapelketa eta taloak izango dira eta pesta borobiltzeko erromeria Gabezin taldearekin. Gainera egun osoan zehar taberna eta metro, material eta kamisetak saltzeko gunea jarriko dute.

FLASH

Usoa Ehiza Elkartearen bilera maiatzaren 31n

Udaletxean bilduko dira eta lehenengo denaldia 17:00etan eta bigarrena 17:30ean izango da. Zuzendaritza aldaketa egiteko adinez, elkarteakideei bertara agertzeko deia egin diete gero usteakaberik egon ez dadin.

Konpostajeari buruz solasean

Maiatzaren 5ean izan zen hitzaldia eta konposta egiteak dakartzan onurak azaldu eta konposta ongiegitako aholkuak eman zituzten. Egund 24 konpostagailu daude herrian eta udalak bide horretatik segi nahiko luke lanean. Auzo-konposta edo banakako konposta bultzatzea komeni den ari dira aztertzen. Laster konposta egiten ez duenak zabor tasa altuagoa ordaindu beharko duenez lehenbaitlehen komeni da ikasi eta ohitura hartzea.

berria

berritzen ari gara
guztionez elkarpenarekin...

eta zure laguntza sartu nahi dugu

Parte hartzeko, bidali:

- Zozketa + izen-abizenak

Telegram, Whatsapp edo SMS bidez
(0034) 687-48 97 84

- Eman izena webgunean: www.berria.info/zozketa

Zozketa ekainaren 20an egingo da, eta
sardunak 21ean argitaratuko dira BERRIAN.

Parte hartu zozketan

Sariak:

GOIZUETA

KIROLAK → MAIATZAREN 25EAN

Herri Krosak hirugarren edizioa beteko du

Larunbat honetan berriz, Goizutrail mendi lasterketa eginen da

TTIPI-TTAPA

Larunbat honetan eginen da lehen aldiz antolatutako Goizutrail mendi lasterketa eta horren informazioa luze eta zabal aurkituko duzue kirol orrialdetan. Baina ez da hori maiatzeko kirol hitzordu garrantzitsu bakarra, izan ere maiatzaren 25ean eginen baita hirugarren herri krosa ere.

Goizeko 11etan abiatuta 9 kilometroko lasterketa osatu beharko dute proba nagusiko partehartzaileek. Aurretik, 10:30ean abiatuko dira 10 urte arteko haur-

rak (800 metro) eta 10:45ean alebin, infantil eta kadete mailakoak (1.800 metro).

Izen ematea egin daiteke www.kirolprobak.com helbide elektronikoan (10 euro) edo egun berean (euro). Herritarrek 8 euro ordaindu beharko dute. Zubimuxu aterpeak eskaintza berezia dauka, izen ematea, bezperako afora, lotarako lekua eta gosaria 40 eurotan.

Sariei dagokienez, gizon nahiz emakumezkoen kategorietako irabazleek txapela, bildotsa eta botil bat ardo jasoko dute, bigarrenak bina txuleta eta botil bat ardo eta hirugarrenek baserriko oilasko bat eta botil bat ardo. Herriko lehenbizikoek bildotsa eta botil bat ardo izanen dute sari-tzat.



Ba al zenekien

Diario de Navarra egunkariaren Pelotamano ranking-aren arabera, infantil mailako bi pilotari onenak direla Umore Onako Antton Apezetxea (101 puntu) eta Aitor Aizkorbe (93)

Iralekuen hitzarmena

Iralekuen hitzarmenarekin konforme daudenak eta oraindik sinatutako papera entregatu ez dutenek, lehenbailehen aurkeztu beharko dute Udaletxean. Dagoeneko 90 herritarrek sinatu dute hitzarmena.

Kinto bazkariak larunbatean

Maiatzaren 17an hainbat kinto bazkari izanen dira herrian. Esan liteke 16 eta 45 urteko goizuetar guziek bere kinto eguna izanen dutela. Beste batzuk aureragoko utzi dute.



ARGAZKIA: ANGEL SALABERRIA

Nafarroako Kirol Jokoetan txapeldun

Nafarroako Kirol Jokoen finalak jokatu dira Labriten eta herriko bi bikotek lortu zuten txapela herriratzeari. Maiatzaren 1ean, 3. mailako haurren kategorian, Umore Onako Manex Apezetxea eta Asier Huizik 18 eta 10 irabazi zieten Berriozarko Medel eta Etxeberriari. Maiatzaren 3an, lehen mailako haurren kategorian, Umore Onako Aitor Aizkorbe eta Antton Apezetxeak 18-10 irabazi zieten Es-teribarko Maia eta Beteluri.



ARGAZKIAK: JULEN APEZETXEA ETA FELIX LOIARTE

Giro ederra izan zen Txinoko festetan

Giro ederrean joan dira aurten ere Txinoko festak. Urtero, auzoko familia bati egokitzen zaio txupinazoa botatzea eta aurten, Igor Elizegi eta Lurdes Loiar-tek, Beñat eta Egoitz semeekin batea bota dute. Julio Sotok eta Xabier Legarretak bertso saio polita eskaini zuten. Euriaren ondorioz, Txino eta herriaren arteko desafioa, oka jokoan, eskolako frontoian egin behar izan zuten. Azkenean Txinokoak nagusitu ziren. Zubiondoko mus txapelketan, Martin eta Jon Uitzu suertatu ziren txapeldun, finalean Miel Salaberriari eta Xubiriri irabazita.



GIZARTEA → ORONOZ-MUGAIRIN AGERRALDIA

Osasun arloko murrizketen kontra agertu dira eskualdeko hainbat lagun

Larrialdien Arreta Zerbitzua kolokan dago

TTIPI-TTAPA

Baztan-Bidasoaldeko hainbat gizarte eragilek agerraldia egin zuten maiatzaren 8an Oronozko osasun kontsultaren parean, Nafarroako Gobernuak osasun arloan egin dituen murrizketa eta pribatizazioen kontra. Larun-

batean Iruñean egin zen manifestaziora deitzeaz gain, landa inguruetan Larrialdien Arreta Zerbitzua desgiteko mehatxuarekin kexu azaldu ziren.

Hain zuzen, zonalde hauetako osasun beharraz zuten erantzuteko eta lehen mailako osasun arreta duina bermatzeko ekimena sinatu dute 170 udalek baina parlamentuan ez dute eztabaidatu ere egin.



UTZITAKO ARGAZKIA

Baztan-Bidasoaldeko bizilagunak kexu murrizketekin.



UTZITAKO ARGAZKIA

Elizondoko Lanbide Eskolako Kulturaldia

Elizondoko lanbide eskolan Kulturaldia ospatu zuten apirilaren 14, 15 eta 16an. Bertzeak bertze, Sare Sozialei buruzko hitzaldia, Zirko-tailerra, Konpost-tailerra, The Icer Company taldearen kontzertua eta, argazkian ageri den bezala, Ir-lintziko kaskora mendi ibilaldia egin zituzten. Ikastetxe sarreran soldadurako erakusketa ere izan zen ikusgai.



ARGAZKIA: ARANTXA GAMIO

Maiatzeko igandetan Aingeruak Zigan

Maiatzean Zigako nexkek "Aingeru" egitearen ohitura mantentzen dute. Igandeko mezetan Amabirjinari loe eskaintza egiten diote, kantuaren laguntzaz. Argazkia, maiatzaren 4koa da.

ANZABAL INMOBILIARIA



- Zuriak, Aingurak, Autok, etxebizitza, istripu eta bizitza aingurak
- Lan aholkularitza, Normak eta Ainguru Sozialak
- Aholkularitza fiskala, Errenta Deklarazioa, BEZA...
- Inmobiliaria, Baserri, bodega, pisu, etab... salmenta eta alokairuak
- Gestoria

Santiago, 15 • ELIZONDO • T./F. 948 580 804
anzabal@anzabal.com • www.anzabal.com

Mármoles SOULE

HILETA ARTEA
T. 948 453 444
M. 629 659 583
ARIZKUN

TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA
SARE SOZIALEAN

facebook

www.facebook.com/ttapi.ttapa

Gierresenea

OSTATU • JATETXEA

Jaki tipikoak • Etxeko giroa

Iturriotz auzoa • Tfnoa: 948 592 043
ORNOZ - MUGAIRI

BAZTAN

GIZARTEA → HIRIGINTZA

EMOT-en helburua etxebitzarako eskubidea bermatzea dela dio Udalak

Etxebizitza-
blokeen aldeko
apustua egin
dela salatu du
UPNk

TTIPI-TTAPA

Udal Plana eta berriki Udalaren Osoko Bilkurak onetsi duen Lurraldea Okupatzeko Estrategia eta Eredua zehazten duen dokumentua (EMOT) hizpide hartuta, Bilduk eta Baztango Ezkerrak etxebizitza-blokeen aldeko apustua egin duela salatu zuen UPNk, «Baztanen ohikoak izan diren familia bakarrekotxeen eta baserrien alde egin beharrean».

Dokumentua «presaka eta isilpean» onartu dela ere aipatu du UPNk eta ez direla adituen iritzia eta proposamenak kontuan hartu.

Udal Gobernu Taldeak, bere aldetik adierazi duenez, «berriz ere, ikusten dugu UPN, jendea konbentzitu ezinik, jendea nahasten saiatzen ari dela. Onartu den EMOT dokumentuaren helburua, bertzeak bertze, baztandar guztiei etxebizitzarako eskubidea bermatzea da». Ho-

ri horrela, behin Baztango etxebizitzaren errolda ikusirik, hondar urteotan sektoreak eta gizarite-beharrak izan duten garapena aztertutik, egungo egoera miaturik... honako hierarkia hau ezarri da: «hutsik dauden etxebizitzak erabiltzera bultzatzea, eginak dauden etxebizitzaren zaharberritzea lehenestea, eta etxebizitza berriak eraikitzeari dagokionez, etxebizitza kolektiboa familia-etxebizitzaren aitzinetik paratu. Hori dena logikoa, erraza eta zentzuzkoa da eta ulertu nahi duenak ez du azalpenik behar», Udal Gobernu Taldearen erranetan.

EMOT dokumentua prestatzeko prozesuan herri bakoitzaren errealitatera moldatzea eta herritarren partehartzea bultzatu dela azpimarratu dute udaletik: «Eztabaida prozesuan 4 herrik guztira 9 iradokizun ekarri dituzte, haien ustez herri bakoitzarendako egokiena den ereduaren gainean. 4 horietatik 3 onartu dira eta laugarrena zati batean ere bai. Bertze 5ak Udal Plana eratzean aztertuko dira. Guztira 100 baztandarrek bai-



ARGAZKIA: JUAN MARI ONDIKOL

Lekarozko Kolegioko ikasle ohiek urteko batzarra egin dute

Lekarozko Kolegioko ikasle ohiek urteko batzarra egin zuten apirilaren 27an. Eguneko ekitaldirik bereziena Aita Claudio Zudaireri egindako omenaldia izan zen. Lezaundarra sortzez, baztandarra bihotzez, musikologo haundia eta urtean Elizondoko koralarekin aritu zen organujolea izan zen. Ikasle ohien oroigarria jaso zuen. Gainera, betiko lekutik Txokoko lorategira harriz harri eraman den monolitoa ere ikusi ahal izan zuten. Meza eta hameketakoaren ondotik batzar orokorra egin zuten. Martxoren 22an hil zen Francisco Javier Cabodevilla (Zabalzetako Pablo Aita) ere gogoratu zuten. Iruritako Olari jatetxean egin zuten bazkaria eta noski, Lekarozko tortillak ez zuen hutsik egin menuan.

no gehiagok hartu dute parte. Iradokizunen fasean 81 proposamen aurkeztu dira».

Udal Gobernu Taldeak dioenez, «UPNri bitxia iruditzen bazaio ere, herritarren gehienek nahi dutena etxebizitza bat izatea da eta ez familia-txaleta egiteko prozesu arazotsuan sartzea. Bistan da familia-etxebizitzendako ere aukera izanzen dela. Eta betiere Baztanen dauden errealitate desberdinak aintzat hartuz».

ERDIZ BIZIRIK

Txostena udalbatzarrean onartzekoa zen egunean, Magnak eta Baztango Garapenerako Elkartearen inguruan dabilzan jendeak udalbatzarkideei «azken momentuko presioak» egin dietela salatu du Erdiz Bizirik taldeak, eta gisa honetara «Erdizeko bazkaleku komunala, Europako legeek duen balio ekologikoagatik babesturikoa, jardueraren moduan kalifikatzea» lortu nahi izatea leporatu diete.

GIZARTEA → MAIATZAREN 31RA BITARTE

Elizondoko Santio bestetako kartel lehiaketara lanak aurkez daitezke

TTIPI-TTAPA

Elizondoko herriak Santiago bestak iragaritzeko kartel lehiaketa deitu du berriz ere. Lehiaketa irekia da eta partehartzaileek nahi adina lan aurkez ditzakete. Lehiakideek beren sobreak Elizondoko Herriko Etxera igorri beharko dituzte maiatzaren 31 baino lehen. Kartel guziek *Santioak 2014, Elizondoko bestak uztailaren 24tik 28ra* testua agertu beharko dute. Kartelaren neurria 50 x 70 cm.koa izanzen da.

Epaimahaia Elizondoko 2014ko Besta Baztordeko kideek osatuko dute. Erabakia ekainaren 9tik aitzinera jakinaraziko dute. Irabazleak 300 euro eta ziklorako bi txartel jasoko ditu.



GIZARTEA → 600 EUROKO SARIA ESKURATUKO DU

Agoizko Alfredo Leonen kartelak iragarriko du Baztandarren Biltzarra

17 lan aurkeztu
zituzten
lehiaketara

TTPI-TPA

Uztailaren 20an Elizondon ospatuko den Baztandarren Biltzarra badu kartela dagoeneko. Lehiaketarako aurkeztutako 17 lanen artean, Agoizko Alfredo Leonek aurkeztutako *Koloretan* izan da antolatzaileen artean bozkatuena eta berak irabazi du 600 euroko saria.

Aipatzekoa da 2011 urtean ere, Agoizko ar-



tistaren bertze lan bategarri zuela Baztandarren Biltzarra besta. Baztandarren Biltzarrak eskerrak eman nahi izan dizkie parte hartzaile guztiei.



ARGAZKIA: JUAN MARI ONDIKOTI

17 ahari lehiatu ziren Elizondoko Udaberriko Ferian

17 ahare aurkeztu ziren apirilaren 25ean, Elizondoko Udaberriko Feriako aharri lehiaketan, horietako 11 burubeltz sailean eta 6 burugorrietan. Euria goizetik eta eguzkia arratsaldean, denetik izan zuen ortziraletako feria egunak, baina jendetza bildu zen Elizondon. Ahari irabazleen jabeek 75na euro eskuratu zituzten, 50 euro bigarrenak eta 30 euro hirugarrenak. Ahari lehiaketaren hamaseigarren edizioari dagokionez, burubeltzen Erratzuko Xixperriako Soledad Iturbidek aurkeztutako batek lortu zuen lehen saria, bigarrena Iruritako Gernuxarreko Miguel Angel Maritorenak aurkeztutakoak eta hirugarrena Almandozko Etxotoko Norberto Agerrek eramandakoak. Burugorrien artean, lehenbizikoa saria Gartzaingo Etxexuriako Feliciano Etxarterentzat izan zen, bigarrena Arraiozera joan zen, Xuntenokobordako Sagrario Urrozentzat eta hirugarrena Arraiozko Arraiozko Indakoako Felisa Ugarterentzat. Gartzaingo Maitoneako Federico Etxenikek, Beartzungo Pardioleneako Manuel Bertizek eta Josu Sarobe albaitariak osatu zuten epaimahaia, Baztango Udaleko eta Bertizko Partzuergo Turistikoko ordezkarien laguntzarekin. Antolaketan laguntzaile izan diren Cedernako Izaskun Abrialek eta Bertizko Partzuergoko Estitxu Iparragorrek ere parte hartu zuten sari banaketan. Jende aunitz ibili zen Merkatuko Plaza inguruan. Horietako aunitzek Baztanzopak dastatzeko aukera izan zuten, baita Baztango dantzari tti-kiek eskainitako erakustaldia ikusteko ere. Eskulangileek ere gorapean erakutsi eta saldu zituzten bere produktuak.

Baztanen
2014ko **uztailaren**

3-12 urte bitarteko
laur da pagatu ondoren

udako jostaldia
eskuaraz



Antzokiaz
BAZTANGO UDALA
Euskaraz Zerbitzua

euskaraz
bizi
nahi dut

Uztailaren, goizeko 10:00etatik 13:00etara

1- Ekainaren 30etik uztailaren 11ra | Elizondoren (Kodea ELI)
2- Uztailaren 14tik 25era | Erratzin (Kodea ERI)
(Aste bakarreko errepasak, baina behar dena bi aste baino gutxiago
eta Baztanen errepasatuak izanen dira)

Lehiaketa

- Udaleko aholkulariaren gozatzea.
- Baztango haurren arteko harremanak bultzatzeko eta eskualde.
- Baztango kultura eta natura ezagutzeko.
- Haurren garapen pertsonala lantzeko.
- Ingurumenarekiko jarrera positiboko sustatzeko.

hori guztia eskuaraz

ondutako

1. BAZTANGO UDALAK, UZTILAREN 10ETIK 13:00ETARA, 3-12 URTEKO HAURRAREN

ordutegia

Baztanen erroldatuak 35 € txandako | 55 € familia bakoiti bakoiti bakoiti
anai-arrebak bat baino gehiago badira | 25 € aste bakoiti.
Baztanen ez erroldatuak 125 € txandako | 45 € astebakoiti.

erregistroa

Telefonoz Dindala Fundazioan Tel. 696 27 35 99.
Maiatzaren 12tik 22ra, goizeko 10:00etatik 13:00era.
Espaia luzeaztik. Plazak mugatuak. Ordainketa egin baino lehen.
Izena emateko deitu, eta ordainketa ematean haur/2ren izena
eta kodea jarri. Kontu zkr. (La Caixa) 2600 5255 80 2200035704
Ordaintzeko arken eguna: maiatzaren 26a.

antzerki- lehiaketa

Familia ugariaren txartela, behar izanez gero,
Baztan Baitheko Etxean.

lehiaketa den aurretik Baztango Udala
haur-garapenarekin lotutako
antzerki-erakundearen eskutik
antzerki-erakundearen eskutik













URDAZUBI

GIZARTEA → EZ DITU UDALAK BERAK JARRI

Udal erabakien kontrako lau errekurtsori erantzun egin die Herriko Etxeak

Aitzineko alean argitaratutakoa zuzendu nahi izan dute

Iñigo IMAZ

Aitzineko alean ttipi-ttapan argitara emandako artikuluari erantzunez, zenbait azalpen eman nahi izan ditu Urdazubiko Udalak.

Honela, apirilaren 9ko batzarrean ez zen inoiz ere Udalak errekurtsio bakarrik ere jaritzeaz aritu. «Udalak onartutako zenbait erabakien kontra jasotako lau errekurtsioei erantzun-idatzia onartu ziren. Lau errekurtsio horietatik hiru Labayen Mascotena anai-arrebak jarriak zituzten eta bertzea Coro Ameztoy-k, halako aferetan ohikoak direnak» dio Santiago Villares alkateak eta Javier Irigoien idazkariak sinatutako idatzia.

Hurrengo puntuari dagokionez, Urtxume taldeak jarritako errekurtsioa da. Hain zuzen, bizilagun guziei argindarra banatzeko sortu eta Urdazubiko udalaren jabetzakoa den Elektra Urdazubi S.L. konpainiaren erregulazio eta legalizazioarako beharrezkoak di-

ren lanen adjudikazioa onartu zuen Udalak eta horren kontrako errekurtsioa jarri zuen Urtxumek. Nafarroako Administrazio Epaitegiak akordio hori anulatu du, «tramitazioan egindako akatsengatik eta ez inork lana gaizki egin duelako». Enkargatutako lanaren zati bat egin dagoenez, orain dagokion likidazioa egin ondotik, lanak egin dituen enpresak itzuli egin beharko du fakturatutakoaren zati bat edo kalteordaina eskatu, bietako bat. Edozein modutan, ez omen dira 145.000 euro izanen (hori lan osoaren gas-tua da), ez baita lana osorik bukatu eta fakturatu.

ZALBAREN BISITA

Zalba eurodiputatuaren bisitari dagokionez, Santiago Bideko Lagunen elkarteko kide batekin batera egindako bisita bat bertzerik ez zen izan. «Zonaldeko enpresariekin ere bildu nahi izan zuen eta bertze gaien artean, bezero frantsesei tabakodendek saltzen dieten tabakoaren gaia ere aipatu zuten», dio idatzia.

Azkenik, udaberri, uda eta udazken garaian herri lanak egiteko langile bat kontratatze-



UTZITAKO ARGAZKIA

Kantu Zaharren Eguna Indiano-Baitan

Urtero bezela, Indianoa Baitan Kantu Zaharren eguna ospatu zen. Karreteroren etxera hurbildu ziren herriko zein eskualdeko kantariek euskal kantuak abestuz giro aski polita sortu zuten.

ak ez du zerikusirik zaborrontzien aferarekin. «Egia da —diote Udaletik— azken aldian soberra beteak daudela zaborrontziak, batez ere zaborra biltzeaz arduratzen den Bizi Garbia enpresan egiten ari diren berrantolaketa onorioz». Kontratazio hau Nafarroako Gobernuak subentzionatzen duen baliabide turistikoen eta herri ingurunearen mantentzeko lan-gabetuen kontratazio programaren baitan egin da. Horretarako herriko gazte bat hartu da, dagokion hautaketa-prozesua egin ondotik.



UTZITAKO ARGAZKIA

Mattin Villares auto-gidaria txapeldun XV. Euskal Rallysprint txapelketan

Mattin Villares auto gidariak lehen postua lortu zuen apirilaren 26an Azpeitian ospaturiko XV. Euskal Rallysprint Txapelketan. Guztira 50 taldek parte hartu zuten lasterketan eta Mattin Villares eta Andoni Blasek gidatzen zuten Renault Clio Maxia izan zen garailea.

KULTURA → APIRILETIK AITZINERA

Oaia Peruarena Telletxea margolari beratarren lanak erakusgai Klaustroan

I. IMAZ

Monastegiko Klaustroko arte erakusketa margolari berri baten lanak ikusi daitezke apiriletik aitzinera, Oaia Peruarena Telletxea beratarren margo lanak. Oaia Beran sortu zen 1972an eta txikitatik izan du margolaritzarekiko interesa. Erratzuko Jose Mari Apezetxea margolaria izan du irakasle, besteak beste.

Oaiak Van Gogh margolariaren mireslea dela aitortzen du, kolore biziak maite baititu. Cezzanneren pintzelkadaren zalea da ere. Lehen ur-

teetan figurazio munduan murgildu ondoren, barne indarrak kanporatzeko gogoek bide berri eta pertsonalago baten beharra sortu zioten. Bere lanean garrantzia handia du koloreak, baita marra eta lerroek ere. Koloreak barnean sentitzen duen intensitatea islatzen laguntzen dio; lerro eta marrek aldiz, indar horiek orekatzen eta bideratzen laguntzen diote.

Beratarren lanak bilduma pribatu ezberdinetan banatuak dira eta hainbat erakusketetan parte hartu du; bai bakarka, bai taldeka.

GIZARTEA → JONDONI PETRI ELIZA XVI. MENDEAN ALTXATU ZUTEN ETA XVII.EAN MOLDATU

Pirineo Atlantikoetako monumento historikoetan sailkatu dute eliza

XVIII. mendean apailatu zen barroko estiloko erretaula

Franck DOLOSOR

Senpertar aintzek uste dute Jondoni Petri eliza ederrena dela eta bederen ederrenetarik bat dela aitortu dute berriki hortaz dakitenek. Berriki Senpereko eliza Pirineo Atlantikoetako departamenduko eraikin historikoetan izendatua eta sailkatua izan da, Ipar Euskal Herriko bertz 11 elizekin batean. Akitaniako ondare eta interesgune lurralde batzordeak eman du ideia eta Akitaniako prefetak hartu du erabakia. Aipagarria da gure eliza 16garren mendean altxatu zutela, 17garrenean moldatu eta 18garrenean apailatu zela barroko estiloko erretaula. Berritua izan den origina eta zurezko hiru galeriek fededunen aldea edertzen



ARGAZKIA: FRANCK DOLOSOR

Jondoni Petri eliza ederrena da senpertar aintzen ustez.

dute. Izendapen hune-kin baliteke diru laguntza gehiago eskuratzea elizan, kaperetan edo errotetan berritze lanak egin beharko direlarik. Senpertarrentzat eta turistentzat interesgune garrantzitsua da Jondoni Petri eliza. Izendapen bera ardietsi dute bertzeak bertze Aldude, Ortzaize, Hazparne edo Hendaia elizek.

Ez adiorik Mayi

Bere azken egoitzarat segitua izan da berriki Mayi Borthaire, sortzez Etchegaray 91 urte beteko zituen bezperan. Familia handi batekoa izanki Mayi zena biziki ezaguna zen herrian. 1923ko maiatzaren 4ean sortu zen "Mattin aurrenean", Santiagotegian, gaurko egunean liburuak eta oi-

halak saltzen diren etxean. Gero, "Lekunberrian", Mattintegian, (gaurko Arocena ostatuan) eta ondotik "Elizabidea"-n Zangomoztegi-an (berriki arte Etchegaray ostatua) bizi izan da. 1947an, karrika nagusiko ostatuetako giroa utzi zuen Mattin Borthaire Audet ibarrundarrarekin ezkontzeko. Elgarrekin hameka se-

me alaba izan dituzte batzuk zeruratuak jadanik eta beraz pozen artean pena haundiak ere jasan izan ditu Audeteneko etxeko andere xaharrak. Laborantza, pilota, gerla eta kontrabandoaren inguruko hameka istorio ezagutzen zuen Mayi zenak eta batzuk bilduak dira Senperetik Senpererat eta Matxin Irabola liburutik. Mayik ongi ezagutu zuen 1935an zendu zen Senpereko bertsulari haundia:

«Arraroa zen, gizon pullit bat zen, arras airoa, maitea zen gaixoa! Bertsulariak izaten ziren etxean. Irriz egoten ginen, batzuk salan, eta gero sukaldetan ere. Batzuk hasi eta bertzeek errepusta ematen zuten. Kantu eskualdunak maite ditut eta esposatu nintzelarik senarrak galdetu ninduen nun ikasiak nituen hainbertze kantu. Ni ez naiz nihun izan ikasten, etxean!».

Doluminak familiari, ez adiorik Mayi, milesker.

KIROLA → 30-13 IRABAZI ZION SAULT DE NAVAILLES-EKO TALDEARI

Euskal Kostaldea-Landak norgehiagokan nagusitu da SPUC rugby taldea

Franck DOLOSOR

30 eta 13 nagusitu zitzaion Senpereko SPUC Sault de Navailles-eko taldeari Euskal Kostaldea-Landak rugby norgehiagokan.

Senpertarrek gaitzeko besta ospatu zuten bainan ez dute gordez lehenik arazo larriak izan zituztela nagusitzeko, biarnesak bi-

ziki indartsuak agertu baitziren Saint Martin de Seignanx-en jokatu zen finalean. Guerendiain, Ollivon eta Borthairek lan paregabea egin zuten eta azkenean, garaipenarekin itzuli ziren SPUC rugby taldekoak herrira.

Sasoia bukatzeko garaipen handia. Aupa gazteak, aupa Senpere!



ARGAZKIA: FRANCK DOLOSOR

Rugby taldeko jokalariek gaitzeko besta ospatu zuten.

SARA

KULTURA → MAIATZAREN 31N

Usopop festibala bosgarren urtez egingen da Lizarietako lepoan

Arratsaldeko 3:30ean hasiko dira kontzertuak, DJak ere izanen dira eta sartzea 9 eurotan da

Joana GERENDIAIN

5. aldiko Usopop elkarteak Lizarietako lepoa okupatuko du berre festibala antolatzeke. Maiatzaren 31 ean,

larunbatarekin, egingen da. Arratsaldeko 3:30ean Musikolore eta Anari&Aguxtin Alkhat (folk) entzuten ahalko dira. 6etatik goiti Mobydick Band (Folk rock) taldea arituko da, ondotik Tolosako (okzitania) Kid Wise (post rock) taldea entzuten ahalko da, segitzeko Sebastien Schuller (pop), gero Vie sauvage Gironako hedonistak joko dute eta gaua ongi bukatzeko Abereen dantza. Bertan edan eta jaten ahalko da, festibalaren sartzea



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Usopop jaialdia, joan den urtean. Beheitian, Mobydick Band taldekoak.

eguno osorako 9 eurotan da.

Urtxintxen emaitzak

Maiatzaren 3-4 eko asteburuan eskubaloiko ekipa batzuek beren txapelketako erdi finalak jokatu dituzte. 13 urte azpikoek konsolazio erdi finala galdu dute Urruñaren kontra 31-17, 15 urte azpikoek ere galdu dute Senpereren kontra 18-6. 18 urte azpikoek erdi finalen



matxa Coarrazen jokatu dute eta irabazi dute 21-19 hango ekiparen kontra, Seniorrek ere ira-

bazi dute Nousty-n 21-17. Bi ekipek itzultze matxak etxean jokatu dituzte.



**Javier Ignacio
GARMENDIA ARRIADA**
**Jauna
(Paco)**

Baztango Udaleko langilea

Baztango Udalbatzak
eta Batzar Nagusiak
ez zaitugu atzenduko.

Baztanen, 2014ko maiatzaren 8an



**Severiano
MITXELENA JORAJURIA**

Sunbilla, 2011ko maiatzaren 18an
III. URTEURRENA

Hiru urte ixilean joan zinela
huts haundi bat utziz
zuk emandako guztia
gurekin geldituko da
bizi garen artean
ez zaitugu ahaztuko.

EMAZTEA, ALABA, SENIDEAK ETA FAMILIA



Bautista ERASUN TELLETXEA

Donezteben, 2012ko maiatzaren 18an
II. URTEURRENA

Zure ametsak eta zure indarra
beti gurekin daude.

HIRU SORGINAK



EZKONTZAK

Raul Kastro Ezkurra eta **Ainhua Mindegia Santesteban**, Urroz eta Zubietakoa, apirilaren 26an Zubietan.

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.

SORTZEAK

Eñaut Irigoien Aleman, Gartzaingoa, martxoaren 17an.

Hodei Etxeberria Perurena, Elizondokoa, apirilaren 15ean.

Ilargi Indakoetxea Mendizuri, Goizuetakoa, apirilaren 30ean.

Olaia Irigoien Ballester, Lesakakoa, apirilaren 19an.

Yerai Jimenez Etcheverri, Sunbilla-koka, apirilaren

Beñat Iturbide Serrano, Etxalarkoa, apirilaren 23an.

Yannis Wacheux Berton, Sarakoa, apirilaren 22an.

Maddi Ladebat, Sarakoa, apirilaren 24an.

Ainhize Arnedo Mitxelena, Doneztebekoa, apirilaren 26an.

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.

HERIOTZAK

Francisco Mitxelena Aioroa, Aurtizkoa, apirilaren 24an, 89 urte.

Lucia Larrañeta Burusko, Berakoa, apirilaren 25ean, 100 urte.

Regina Juanikotena Aleman, Zigakoa, apirilaren 25ean, 98 urte.

Carmen Irazoki Irazoki, Berakoa, apirilaren 25ean, 92 urte.

Vicente Etxeberria Mendiburu, Elizondokoa, apirilaren 27an, 74 urte.

Ignacio Sein Sansiñena, Igantzikoa, apirilaren 27an, 64 urte.

Maite Almandoz Egaña, Erratzukoa, maiatzaren 2an, 77 urte.

Juanito Iguzkiagirre Etxebeste, Lesakakoa, maiatzaren 3an, 76 urte.

Primitiva Del Rio Maiz, Lesakakoa, maiatzaren 3an, 94 urte.

Pierre Hariscain, Sarakoa, apirilaren 20an, 81 urte.

Emilia Azpiroz Irazusta, Leitzakoa, maiatzaren 6an, 99 urte.



Pedro JUANENA ELIZONDO

Oizen hil zen 2014ko apirilaren 18an, 99 urte zituela

Argi bat itzali da hemen lurrean
berri bat biztu da han zeru ederrean
gure oroimenean izanen zara betiko
Ez agurrik ez adiorik, gero arte baizik.

ZURE FAMILIA

Egun gogor hauetan gure ondoan izan zareten eta
gure saminarekin bat egin duzun guziei, mila esker.



Ignacio SEIN SANSIÑENA

Igantzín, 2014ko apirilaren 27an, 64 urte zituela

Esku hartzerik ez izan arren
heriotzeko zorian,
oroitzapenak estaltzen ditun
lurrik ezta hilobian.
Begiak itxi eta hor zaude
etxekoan memorian,
zeure makina ta ardiekin
Mendibileko atarian.

EMAZTEA, SEME-ALABAK ETA BILOBAK



Manuel BAZTERRIKA ELIZALDE

Ituren, 2012ko maiatzaren 13an
II. URTEURRENA

Zerutik begira zauden gure Manuel atautxiri
maiatzaren hamairua bi mila eta hamabi
lehen urtea pasa zen eta orain badira bi
nahiz urteak pasa beti maitatuko dugunari
zurekin pasa dittugu momentu onak ugari
aunitz eskertzeko gaude ahaztu gabe amatxiri
zuengatik baigara gaur garenaren parte handi.

ZURE FAMILIA

SKEET OLINPIKOA → ZAZPIGARREN ALDIZ

Itsaso Fagoaga lesakarrak Espainiako Kopa irabazi du

Espainiako errekor berria ere egin zuen Chesten (Valentzia)

TTIPI-TTAPA

Apirilaren 26 eta 27ko asteburuan Espainiako Skeet Olinpiko kopa jokatu zen Chesten (Valentzia). Aitzineko sei urteetan txapelak izan ondotik, iaz azpitxapelak izan zen lehiaketa honetan Itsaso Fagoaga lesakarra, baina aurreten berriz ere titulua ber-

reskuratzea lortu du. Ez hori bakarrik, 75 plateretik 68 hautsita, Espainiako errekor berria egin du.

Denboraldi berezia izaten ari da aurtengoa Itsaso Fagoagarentzat. Izan ere, Ingalaterran bizi da eta orain artean ezin izan du entrenatu, eskopeta eramatea galarazi baitzioten. Hor-taz, Erregearen Kopan ez zuen parte hartzerik izan. Bai ordea Espainiako Kopan. Jone ahizpa Valentzia inguru horretan bizi dela kontuan hartuz, laguntzai-



UTZITAKO ARGAZKIA

Berriz ere garaipenaren bidera bueltatu da Itsaso Fagoaga lesakarra.

lea ere aldatu zuen eta Antton aitaren ordeztu, Jone izan zuen laguntzaile lehen aldiz, baita Aitor iloba ere.

Haize zakarra medio (orduko 100 kilometroko ufadak ere izan zituzten) ez zituzten tiratzeko baldintzarik onenak izan. Halere, Espainiako marka berria lortu zuen lesakarrak, 75

plateretik 68 hautsita. Lehenbiziko txandan 25etik 22 hautsi zituen, bigarren txandan 25 platerak hautsi zituen (txapelketan plenoa lortu zuen lehen tiralaria, gizasemeak ere kontuan hartuta) eta azkenekoan 25etik 21. Lehengo marka 63 plateretan zuen Madrilgo tiralari batek.

Joan den urtetik hasita, bertze baldintza batzuetan egiten dira skeet olinpiko txapelketak, platerak abiadura handiagoan ateratzen baitira eta platerak binaka gehiagotan aire-ratzen direlako. Lehenagoko modalitatean ere Itsaso Fagoagak zuen errekorra, 75etik 70 plater hautsita.

PILOTA → IRUJOREKIN BIKOTE EGINEZ

Abel Barriolak lortu du binakako txapela ere

13-22 irabazi zieten finalean Olaizola II eta Arretxabaletari

TTIPI-TTAPA

Abel Barriolak eta Juan Martinez de Irujok osatutako bikoteak irabazi du eskuz binakako txapelketako txapela, maiatzaren 4an Bizkaia pilotalekuan jo-

katutako finalean Aimar Olaizolari eta Andoni Arretxabaletari 13-22 irabazita. Hiruna berdindu ondotik, beti aitzinetik ibili ziren Iberokoa eta Leitzakoa, eta markagailuan estutasunik igarogabe ailegatu ziren 22. tantora.

Urdinek, irabazleek, estu hartu dute Arretxabaleta, eta ez zioten Olaizola II. ari jokoan nahi beste sartzen utzi.



ARGAZKIA: DIARIO VASCO

Irujo eta Barriola binakako txapela irabazi ondotik.

Goizuetako aurrelariak ere ohi baino pilota gehiago galdu zituen, eta Irujo eta Barriola, berriz, sendo aritu ziren. Leitzarra izan zen partidako pilotaririk onena.

Binakako txapelketan lehen txapela du Barriolak, eta, horrela, hiru txapelketa handiak (buruz burukoa, binakakoa eta lau t'erdikoa)

irabazi dituzten pilotarietako bat izatera igaroda, Retegi II, Arretxe, Irujo eta Olaizola II. arekin batera. «Ilusio berezia egin dit ni ez nagoe-lako ohituta txapelak irabaztera. 12 urte pasa dira aurrekotik, 12 urte gogor lanean» zioen.

Irujok, berriz, bosgarren aldiz jantzi du binakako txapela.

SOKATIRA

Beti Gazte eta Amaiur hasi dira Nafarroako lauko txapelketan

TTIPI-TTAPA

Maiatzaren 10ean Jautsaratsen abiatu zen Nafarroako lauko sokatira txapelketa. Gizonezkoetan bina talde atera dituzte Amaiurrek eta Lesakako Beti Gaztek, 320 eta 300 kiloko kategorietan. Emakumezkoetan, berriz, Amaiurrek laukoa aurkeztuko du 265 eta 245 kiloko kategorian. Azken jardunaldia maiatzaren 31n egingen da Lesakan.

MENDIA → MAIATZAREN 18AN ETA 25EAN

Arantza eta Baztango Mendi Itzuliak egingen dira ondoko igandeetan

Bi martxetan internetez izena emateko aukera zabalik dago

TTIPI-TTAPA

Mendian ibiltzea maite dutenek aukera ederra izanen dute heldu diren igandeetan, Arantza eta Baztango Mendi Itzuliak egingen baitira hilaren 18an eta 25ean.

ARANTZAKO ITZULIA

Igande honetan, maiatzak 18, egingen den Arantzako Mendi Itzulia berrikuntza bat baino gehiagorekin dator. Alde batetik, itzulia alderan-

tzizko noranzkoan egingen da. Herriko plazatik Bulatxikira igo beharko da, handik Zepurura, eta Mairubaratzatik pasatukoan Illurdira. Mendaur igotzea aukerakoa izanen da. Ekaitza izanen da hurrengo tontorra, eta handik Bazterlara hartu beharko dute mendizaleek. Hori da aurtengo itzuliaren bertze nobedadea. Bazterlatik Oilargatara jeitsiko dira, eta handik Izurajoanen dira. Unanura ailegatutakoan Aranibarrera jeitsiko dira eta Olan barrena herrira bueltatuko dira berriz.

Mendaur igotzen dutenek 27,8 kilometroko ibilbidea egingen dute eta



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Mendizaleek paraje ederrez gozatzeko aukera izanen dute Arantzán eta Erratzun.

igotzen ez dutenek, berriz, 25,2koa.

Izena emateko bi aukera daude: egun berean 06:30etik aitzinera edo www.menditzulia.com atarian maiatzaren 16ra arte. Itzulia 07:00etan hasiko da.

BAZTANGO ITZULIA

Erratzun hasi eta akituko da Baztango XXI. Mendi Itzulia. Maiatzaren 25ean egin dute hitzordua eta mendizaleek 2.600 metroko des-

IBILBIDEAK

Arantzán Mendaur igota 27,8 kilometro egingen dituzte eta bertzela 25,2. Baztánen 30 kilometroko itzulia prestatu dute.

nibela duen 30 kilometroko ibilbidea egiteko aukera izanen dute.

Erratzutik Aizpitzara igoko dira mendizaleak, handik Inzpidera joanen dira, gero Ubedora joa-

teko. Baigorriara jeitsi ondok, Trenpeta, Urrizpilota eta Elorrieta gailurak pasako dituzte. Elorriatik Auzara igotzea aukerakoa izanen da. Handik herrirako bidea hartuko dute.

Aitzinetik izena eman nahi duenak maiatzaren 23ra arte izanen du aukera www.baztangomen digoizaleak.org-en. Egunean berean ere apuntatzeko aukera izanen da. Ibilbidea 07:00etatik 07:30era abiatuko da.

MENDI LASTERKETA → UMORE ONAK ANTOLATUTA

Dena prest dago larunbatean egingen den Goizuetako I. Maratoi Erdirako

Gehienez ere 150 lagunek parte hartuko dute

TTIPI-TTAPA

Goizuetako plazatik abiatuko da larunbat honetan, maiatzak 17, lehenengo aldiz egingen den Goizutrail maratoi erdia.

09:00etan hasiko da eta mendiko eta basoko bi-deetan barrena, korrikariak Mandoegira igoko dira, ibilbideko 9. kilometroan. Mandoegin barrena egingen dituzte ondoko kilometroak eta gero herrirako bidea hartuko dute. Ibilbideak 21,5 kilometro ditu eta 1.512 metroko desnibel positiboa.



UTZITAKO ARGAZKIA

Mandoegiko gailurrera 9. kilometroan ailegatuko dira partehartzaileak.

Larunbatera bitarte www.kirolprobak.com webgunean apunta daiteke, 20:00 arte. Egunean berean, berriz, 08:30 arte izena ematen ahal izanen da.

Partehartzaile kopurua mugatua da, gehienez 150 lagunek parte

hartzen ahal izanen baitute.

SARIAK

Seniorren mailan, emakumezko zein gizonetzkoetan, irabazleek txapela eta 150 euro jasoko dituzte, bigarrenak 100 euro eta hirugarre-

nek 50 euro. Beteranoetan, berriz, emakumezko eta gizonetzko irabazleek Goizuetako produktuekin osatutako lotea eskuratuko dute. Horrez gain, helmugaratzen diren emakumezko eta gizonetzko herritarrek 100 eurona hartuko dute.

maiatzak 15 - 29

Informazioa bidaltzeko: info@ttipi.net edo 948 63 54 58

Ospakizunak



LEITZA | 2014.05.15-2014.06.14

Kultur Aroaren baitan hainbat ekitaldi prestatu dituzte

Erakusketak, hitzaldiak, kontzertuak, antzerkia, eskulangintza azoka, sagardo eguna... Denerikoko ekitaldiak izanen dituzte Leitza XXXVII. Kultur Aroan.

Antzerkia



DONAMARIA | 2014.05.18

'Ondoko hilobiko tipoa' antzezlanak ikusgai Jauregian

Aiora alargun polit, gozo eta pinpirina da eta Pablo baserritar egoskor, zeken eta ezkongabea. Bi mundu ezberdin elkarren ondoan, kanposatuan. Saio umoretsua da.

Ospakizunak



DONEZTEBE-BERA | 2014.05.

Gazte Egunak ospatuko dituzte Donezteben eta Beran

Donezteben maiatzaren 17an ospatuko dute eta Beran, berriz, *Ereindako uzta jasotzen* lelopean, Gazte Egunaren 10. urteurrena hilaren 24an ospatuko dute.

Erakusketak

DONAMARIA

Argazki zaharrak

Maiatzaren 18an

11:00etatik 13:30era.

ELIZONDO

Isilpean eta iluntasunean ezkutatuta ateratako argazkiak

Ekainera arte Txokoto ostatuan.

Solasaldiak

LEITZA

Hitzaldi ugari

Maiatzaren 19an Gizonak haien maskulinotasuna birplanteatuz, berdintasunerako bidean Atekabeltzen (19:00).

Maiatzaren 20an Asiak 20:00etan Aurreran.

Maiatzaren 21ean Osasun emozionala bizitzeko 20:00etan udaltxean.

Maiatzaren 22an Meditazio erak 20:00etan Atekabeltzen.

Maiatzaren 24an pilota jokoen historia hizpide 18:00etan Aurreran.

Maiatzaren 26an kontsumo eredu berriak Atekabeltzen (20:00).

Maiatzaren 27an Catalunia independentziarantz Aurreran (20:00).

Maiatzaren 28an Eus-

kal Herriko altxorretan barrena Aurreran 20:00etan.

Maiatzaren 29an Udalako solstizioa 20:00etan Atekabeltzen.

SUNBILLA

Arkaitz Astizaranekin

Maiatzaren 16an Euskal Herriatik barna itzulia 19:00etan.

Ikastaroak

DONAMARIA

Kultur egunen barne

Maiatzaren 15ean haurrentako tailerrak 17:00etan.

Maiatzaren 16an talo tailerra 19:00etan.

LESAKA-BERA

'Xaldun Kortin jolasu gurekin' gurasoentzat ikastaroa

Maiatzaren 22an Lesakako Kultur Etxean 17:00etan.

Maiatzaren 27an Berako Haur Eskolan 17:00etan.

Antzerkiak

DONAMARIA

'Ondoko hilobiko tipoa'

Maiatzaren 17an 18:00etan Jauregian.

Kontzertuak

BERA

Willis Drummond & Joseba B. Lenoir

Maiatzaren 19an Katakun.

ARANTZA

Kontzertua Aterpean

Maiatzaren 17an Keu Agirretxe, 22:30ean.

LEITZA

Kontzertu ugari

Maiatzaren 16an Institutuen kontzertua pilotalekuan (17:00) eta La jodedera Torren (00:00).

Maiatzaren 17an Stricalla eta Iñoren Ero Ni Atekabeltzen (20:00).

Maiatzaren 23an Aralar musika eskolaren saioa 19:00etan zine-man eta Sykorax eta Golpe de Rabia taldeak 23:30ean Atekabeltzen.

Maiatzaren 25ean organo kontzertua 12:00etan Elizan.

LEKAROZ

Institutuen kontzertua

Maiatzaren 15ean institutuan 17:00etan.

DONEZTEBE

Institutuen kontzertua

Maiatzaren 14an pilotalekuan 17:00etan.

Jardunaldiak

LESAKA

Landa eremuko eskolen IV. jardunaldiak

Maiatzaren 17an.

Bertsoak

LEITZA

Bertso afaria

Maiatzaren 25ean Atekabeltzen 21:00etan.

Filmak

DONAMARIA

'Gazta zati bat'

Maiatzaren 18an 19:00etan erabilera anitzeko gelan.

SALDIAS

'Joxean's Hil eben'

Maiatzaren 16an Otxontan 21:00etan.

Ospakizunak

ORONÓZ-MUGAIRI

Arkupeaken besta

Maiatzaren 15ean.

DONAMARIA-GAZTELU

Kultur egunak

Maiatzaren 14-18.

SUNBILLA

Kultur egunak

PROPOSAMENA

ESKUALDEA

Arantza, Erratzu eta Goizuetako parajeez gozatzeko aukera

Mendi martzen urteko egutegiak aitzinera segitzen du eta aldi honetan eskualdeko itzuliek hartuko dute lekukoa. Arantzako Mendi Itzulia maiatzaren 18an egingen da eta Baztango XXI. martxa maiatzaren 25ean Erratzun. Lasterka ibili nahiago duenak, berriz, Goizuetako mendi maratoni erdia maiatzaren 17an izanen du.



Maiatzaren 16-18.

DONEZTEBE

Gazte Eguna

Maiatzaren 17an.

Gure Esku Dago Eguna

Maiatzaren 24an.

BAZTAN

Gure Esku Dago Eguna

Maiatzaren 17an.

ARESO

Eskualdeko

Gure Esku Dago Eguna

Maiatzaren 17an.

BERA

Gazte Eguna

Maiatzaren 24an.

Bestak

SENPERE

Aintzirako bestak

Maiatzaren 24an.

IRURITA

Herriko bestak

Maiatzaren 28tik
ekainaren 1era.

URDAZUBI

Herriko bestak

Maiatzaren 28tik
ekainaren 1era.

Mendi ibilaldiak

ARANTZA

Mendi Itzulia

Maiatzaren 18an

Informazio gehiago:
www.menditzulia.com.

ERRATZU

Baztango XXI. Itzulia

Maiatzaren 25ean
[www.baztangomendi
goizaleak.com](http://www.baztangomendi.goizaleak.com).

LEITZA

Trikuharrietan barrena

Maiatzaren 18an
09:00etan abiatuta.

SUNBILLA

Asteburu kulturalen

Maiatzaren 17an
09:30ean abiatuta.

ENTRETENIMENDURAKO GAIAK

Liburua




Errateko nituenak

PELLO SALABURU

Erein, 2014

Pello Salaburu idazle arizkundarrak 2012ko udazkenean lan bidaia bat egin behar izan zuen Cuzcora. Hala dio berak liburuaren sarreran: «Nola bakarrik ibiltzen nintzen maiz kara hango karriken artean, Cuzcora egin nuen bidaiaren artekek hainbertze oroitzen ekarri zizkidaten gogora, nire bizitza lanbrotuan zehar zinez edo ustez gertatuak, eta horiek guztiak mantso-mantso paper mutur batean paratzen hasi nintzen». Alderdi horretatik *Errateko nituenak* bidaia baten kronika da eta bertzetik oroitzen liburu bat. Hango eta hemengo gauzei buruz autoreak daukan iritzien azalpena ere bada. Aho bazarrik gabe mintzo da gure egoeraz eta bizitzaz. Baina bertze gauza bat ere bada *Errateko nituenak*: iritzia- ren eta kronikaren fikzioaren eta errealtatearen nahasketa erakargarri bat, prosa bikain batean garatua. Ekialdeko euskalkietatik euskara batuari ekarri sendoa egiteko saio eredugarria.

Musika




Arrakala

KASHBAD

2014

Arrakala da Kashbaden azken lanaren emaitza eta inoiz baino taldeago ageri da aro berri honetan. Taldekide bakoitzak egindako musika bideak eragina izan baitu taldearen soinu- an. Urteek emandako esperientziak eta aro berri bat zabaltzeak ematen duen indarrak, taldea hazi egin da. Txikik eta Gorkitak osatzen duten base erritmikoa inoiz baino trinkoago ageri da, nortasun handiko batera kolpeak, baxu soinu distorsionatuekin uztartuz erloju bat bezala. Gitarren presentzia nabarmena da. Gorkaren riffak ederrak dira, entzunaldi bakoitzean nabardura berriak topatzen direlako kantu bakoitzean. Azkenik, Sorkun inoiz baino ahots errekurso gehiagorekin azaldu da kantu hauetan. Melodiek jolas- lastu egiten du, garapenekin, intentsitateekin. Garraz edo leun, ahots malabareak eginez, erre- gistro berriak sortuz. Hauskor zein oldakor.

Internet



Plazaola Partzuergo
Turistikoaren web orria

WWW.PLAZAOLA.ORG

Plazaola trenbideak 100 urte bete ditu aurten, 20 urte pasatu dira Plazaola Partzuergo Turistiko- koa jaio zenetik eta 600 urte Plazaolako meate- gia lanean hasi zenetik. Hortaz, 2014a urte bere- zia izanen da Plazaolarentzat. Baina urteurren ho- riekin batera, Interneteko atari berria ere estreina- tu dute Plazaola Partzuergo Turistikoan: www.plazaola.org. Tokiko 43 erakunde (udalak eta kontzejuak) eta 100 enpresa pribatu baino ge- hiago biltzen ditu bere baitan Plazaolak, eta tar- tean dira Areso eta Leitzako udalak. Turismoari begira, Nafarroa ipar-ekialdeko herrietan zer iku- si eta zer egin daitekeen kontsulta daiteke webgu- nean, baita non jan eta non lo egin daitekeen ere. Natur Bideak bere txokoa ere badu eta agendak, berriek eta bertzelako eskaintzek osatzen dute web orria. Euskaraz, gaztelaniaz, katalanez eta ingelesez dago informazioa.

Nire aukera



Haizea ERKIZIA
Doneztebeko gaztea

«Igeri egin eta ondotik kafetxo bat hartzea gustatzen zait asteburuetan»

Eskubaloiko partidak ikustea, irakurtzea, la- sai ederrean egunkaria irakurtzen dudan bitarte- an kafetxo bat hartzea...». Horixe du gustuko Hai- zea Erkiziak denbora li- brea duenean. Bidaiatzea ere maite du eta bisitatu duen tokirik ederrena Cascaiseko hondartzak direla kontatu digu. Gus- tura ezagutuko lukeen to- kia, berriz, Argentina omen da. Aitortu digu- nez, beretako asteburu- ko planik ederrena «ige- riegitera joatea eta ondo- tik kafetxo bat hartzea» da. Gehien gustatzen zaion musika taldeaz ere galdetu diogu eta Mikel Urdangarin omen du go- gokoena. Eta irakurri ala zinemara joatearen arte- an, lehenbiziko aukera nahiago duela dio. *Si me dices ven lo dejo todo, pero dime ven*, berriz, be- re liburururik kuttunena. Gainerakoan, «lasaitasu- na» da bere irudiko Do- neztebek bertze herrie- kin alderatuz duena eta inguruko txokorik gustu- koena Doneztebe eta Sunbilla arteko trenbide- a du: «Doneztebetik joan- da lehenbiziko tunelaren ondoan dagoen ban- kuan egotea, hortik ikus- ten dena» atsegin du.

ETXEBIZITZAK

salgai

ORONÓZ-MUGAIRI.

Etxebizitza salgai, mobleztatua dago. Berogailua, igogailua eta trastelekuarekin. 16 milioi Pta/100.000 €. ☎948 585036.

ANZABAL
INMOBILIARIA**BAZTAN, BIDASOA, ULTZAMA eta IPARRALDEAN**

- Pisuak, apartamentuak, partzelak, baserriak, bordak, lokal komertzialak eta nabeak salgai.

IPARRALDE eta BIDASOA alderdietan

- Eskaintzagatik baserriak, bordak eta lurak behar ditugu.

URDAZUBI

- Etxe berri bat salgai, mobleztatua. 2000 m²ko lursailarekin.

DONEZTEBE

- **Aukera:** 102 m²ko pisua salgai. Egoera oso onean dago. 3 logela, jangela, egongela, 2 komun, sukalde mobleztatua eta 17 m²ko trastelekua.

Tel. 948 580 804

Faxa. 948 581459

anzabal@anzabal.com

ARESO. Sastizar baserri-landetxea salgai, 25.000 m²ko lur eremua rekin. ☎649 707584.



ALKAIAGA. Bi pisuko eta etxebizitza egiteko moduko lokala salgai, osorik edo zatika. Prezio egokia. ☎649 161830.

ARRAIOZ. Baserria salgai edo errentan emateko. ☎609 973306.

DONEZTEBE. 90 m²ko pisua salgai. 3 logela, bainugela, sukalde-jangela handia, egongela. 2 balkoi eta 35 m²ko terraza obrako barbakoare-

MERKATU TTIKIA

948 63 54 58

info@ttipi.net edo www.ttipi.net

SAIL HONETAN **IRAGARKIA** JARTZEKO 8€ ORDAINDU BEHAR DA
ARGAZKIAREKIN JARRI NAHI IZANEZ GERO 10€
IRAGARKI BAKOITZEKO **GEHIENEZ 25 HITZ** ONARTUKO DIRA

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta
INTERNETen hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutzako 3008 0080 56 0703304329 kontuan

TTIPI-TTAPAK ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz
sortzen ahal diren operazioen erantzukizunik

kin. Bizitzera sartzeko prest, leku ezinhobean. Argitsua. ☎699 212421.



BERA. Ibaialde karrikan 70 m²ko pisua salgai. 2. solairua, 3 alde kanpo-kaldera, berogailua eta igogailua. Eguzkitsua. Prezio ona, negoziagarria. ☎652 730155.

LESAKA. Frain auzoan baserria salgai, lur eremuarekin. ☎667 213232 / 616 729549.

ORONÓZ-MUGAIRI.

Pisu berria eta oso polita salgai, urbanizazio pribatuan (igerilekua, padeleko zelaia, frontoia eta lorategi komunitarioak). Azken solairua. 52 m². Egongela-sukaldea, ko-

muna eta logela bat. Bigarren logela ttiki bat egiteko aukera. Trastelekua. Garajea. Igogailua. Berogailua. Mobleztatua. Fotocasan argazkiak. 83.000 euro. ☎661 898970.

BERA. Etxebizitza atxikia salgai. 200 m². 3 solairu, kalitateko materialak, 4 logela, 2 bainugela, garajea (27 m²) eta lorategia (75 m²). 3 autorentzako aparkalekua. 350.000 euro (Prezio negoziagarria). ☎636 880115 (19:00etatik aitzinera).

ETXEBIZITZAK

errentan emateko

DONEZTEBE. Zazpigerutze auzoan pisua errentan emateko. 1. go solairua. 100 m², 2 bainugela, 3 logela, sukaldea eta egongela. Igogailua eta berogailua. 410 euro. ☎615 756282.

BERA. Altxateko Plazan pisua errentan emateko. Igogailuarekin, 3 logela, egongela, sukalde zabal eta berogailua. Guztiz ekipatua. ☎665 716126 / 685 727560.

LESAKA. Herrigunean apartamentua errentan emateko, udaletxe aurrean. Guztiz berria. Sukaldea, egongela, komuna eta gela haundia ditu. Garajea nahi izanez gero, aukeran. Prezioa: 300 euro. ☎636 255141.

DONEZTEBE. 2 logelako pisu argitsua errentan emateko. Prezioa: 350 euro. ☎667 334139 / 618 834892.

LESAKA. Bittiria 26an 3 logelako pisua errentan emateko. 85 m² ditu. Prezioa: 450 euro. ☎609 693973.

LESAKA. 90 m²ko pisua errentan emateko. Guztiz egokitua eta hornitua. 3 logela, eguzkitsua, ga-

sa, berokuntza eta kalitateko leihoeekin. Frontoi ondoan. ☎670 754034.

LESAKA. Herrierdian pisu berria errentan emateko. Oso argitsua, sukaldea, 2 logela, 2 bainugela, egongela haundia eta balkoiarekin. Igogailuarekin eta mobleztatua. ☎617 270869.

BERA. Pisua errentan emateko, illekueta auzoan Hegoalde karrikan. 1. solairua, 3 logela, sukaldea, komuna, eta egongela arunt argitsua, leiho berriak, mobleztatua, isolatua, garaje handiarekin. 500 euro. ☎637 940994.

ELIZONDO. Paularena karrikan, pisua errentan emateko. Dena mobleztatua. 3 logela, 2 bainugela, egongela, sukaldea eta trastelekua. 1. go solairuan. Igogailuarekin. ☎948 599171.

BERA. Bidasoa karrika 433b-n, 60 m²ko mobleztatutako pisua errentan emateko. 2 logela, jangela, komuna eta sukaldea terrazarekin, trasteleku itxiarekin eta garajeko murrarekin. Egokitua. 475 euro. ☎687 926414.

**ETXEBIZITZAK**

errentan hartzeko

**BORTZIRIAK, MALE-
RREKA, BERTIZARA-**

BASERRIA

DATU ITURRIA: **NAFARROAKO GOBERNUA**
(apirilaren 25etik maiatzaren 1era bitarteko prezioak)

ZERRIKIA

Zerrikumea
(19 kilo): 51 € (=)

Zerri gizena
1,315 € kilo. (=)

Zerramak:
0,730 € Kg/bizirik. (=)

BEHIKIA

Aretze gizenak:
Idixkoak: €/kg. Kanal
Extra 4,34
1.koa 4,11
2.koa 3,96
Urruxak: €/kg. Kanal
Extra 4,44
1.koa 4,15
2.koa 4,01

Oharra: Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.
Aretze ttikiak
(15 egun ingurukoak):
Aretze mestizoak:
urruxak 120,00
idixkoak 210,00

Aretze nabarrak:
urruxak 140,00
idixkoak 160,00
Zaldikoak: €/k
Sortuberriak: 3,00/3,10
Zaldi-behorrak: 1,84/2,04
Bildotsak: €/k
6-8 kilokoak: 6,20/6,80
8-10 kilokoak: 4,80/5,50

NA, BAZTAN. Konpon-
tzeo dagoen baserri
edo borda bat hartuko
genuke errentan, eros-
teko aukerarekin. Biko-
te gaztea gara. ☎663
591776.

ETXEBIZITZAK konpartitzeko

IRUÑEA. Pisua
konpartitzeko neska bat
behar da. ☎948
580026/680 638994.

GARAJEAK/LOKALAK salgai

LESAKA. Elitzetako pla-
zan lur azpiko garajea
salgai. ☎646 774117.

DONEZTEBE. Frontoi
zaharrean 27 m²ko gara-
jea salgai. Prezio onean.
☎686 182901.

LURRAK/ORUBEAK salgai

ETXALAR. 2.000m²ko
partzela salgai, etxebizi-
tza eraikitzeo lizentzia-
rekin. Elektrizitatea, ur
depositoa eta sanea-
mentu sareaz hornitua.
Prezio negoziagarria.
☎636 113244 / 679
795051 / 696 754917.



LANA eskariak

BERA. Emakume eus-
kalduna orduka lanean
ariko litzateke. ☎661
068368.

Doneztebeko **25 urte-
ko neska** bat Donezte-
be-Elizondo aldean,
dendetan dependienta,
zerbitzari, sukaldari la-
guntzaile edo adminis-
trari bezala lanean ari-
ko litzateke. Kotxe pro-
pioarekin. ☎649 901395.

ELIZONDO. Gazte eus-
kalduna lan bila. Esku-
lanean, txofergoan,
mendiko eta baserriko
lanetan aritua. Edozein
lan egiteko prest. ☎627
290241.

**Neska euskaldun gaz-
tea,** esperientziaduna eta
tituluarekin, ezintasun
edo zailtasunen bat du-
ten pertsonarekin lan egi-
teko prest dago. Kotxe
propioarekin. ☎620
641067.

Neska gazte batek 4
edo 6 orduz lan egiten
luke. Edozer gauzetan.
Dendan esperientziare-
kin. ☎687 222320.

LANA eskaintzak

**Neska edo mutiko ba-
ten bila** nabil denda txiki
bat irekitzeko asmoz
Baztan-Bidasoaldean,
ideiak eta proposame-
nak entzuten ditut, har-
tara bien artean nego-
zioa muntatuko genuke,
turnoka aritzeko. *em
prendedores1987@out
look.com.* ☎638 524735.

ZERBITZUAK denetarik

ERRATZU. Ekanean in-
geleseko ikastaro trin-
koa. Lehen maila. Hau-
rrak eta helduak (12 urte-
tik goiti). Aurretiko ezagu-
tzarik ez da behar. ☎659
948926 / *dianainiesta@
hotmail.com*

SUNBILLA. Nire etxean
0-3 urte bitarteko hau-
rrak zaintzeko zerbitzua
eskaintzen dut. ☎678
537607.

ARANTZA
Zurgindegia
Klase gutietako
zurgin lanak
Eskatu aurrekontuak
konpromisoa gabe
Jose Angel Tronchero
Tel: 948 634 948 - 647 818 144
Gertutik - ARANTZA

**2000 BELTUTZEN
PSIKOANALISTA**
Kontsultak eskatu ordu
☎ 948 272011 (IRUÑA)
☎ 948 580975
Jaime Urreola 42-20 - ELIZONDO

MOTORRAK saldu

Pasquali **traktorea** sal-
gai. Gurdi trakzionatua,
rotabatorea eta karra-
marroarekin (*cultivador*).

4.000 euro. Nahi izanez
gero, burdinazko bolke-
tedun gurdia opari.
☎645 013213.

2008ko **Opel Combo**
salgai, gasolioa garraia-
tzeko eta zerbitzatzeko
deposito eta mangera-
rekin. 90.000 kilometro
dauzka. ☎628 278825.



Chevrolet aveo LT 1.4
16 v autoa salgai, 5 ur-
tekoa, klima, kontrolak
bolantean, beti garaje-
an egona, gidari baka-
rra, IAT-ITV indarrean,
63.000 kilometro. Oso
egoera onean. 4.900 eu-
ro negoziagarriak. ☎680
707807.



Enzintadora Supa Pack
karroduna salgai. Trak-
tore ertainendako. Gu-
tti erabilia. ☎606
586603.

MOTORRAK tailerrak

GANIX
Tallerra
☎ 948 63 06 69
Bordaberry, 6

ANIMALIAK saldu

ORONÓZ-MUGAIRI. 2
hilabete txakurkume-
ak eramateko prest. Bel-
tzak. Ama Schnauzer
(*gigante*) arrazakoa pe-



ETXALAR KO UDALA

HERRIKO OSTATUAREN ERRENTAMENDUA

Udal honek lehiaketa irekirako deia egiten du *Herriko ostatu eta jatetxea* errentan emateko.

- **Errentamenduaren iraupena:** 5 urte, luzagarria.
- **Hileko errenta:** 365,00 euro + BEZa. Hau izanen da ha-
sierako prezioa.
- Lehiaketan baloratuko dira ustiapen proiektua eta eskaintza
ekonomikoa.
- **Behin-behineko fidantza:** 600,00 euro.
- **Aurkeztu beharreko agiriak:** Baldintza pleguan adieraz-
ten direnak.
- **Proposamenak aurkezteko epea:** 2014/06/11ko 14:00
arte.
- Baldintza plegua interesatuen eskura dago Udaletxean eta
udalaren web orrian (www.etxalar.org)

Etxalar, 2014ko maiatzaren 5ean
Alkatea, Miguel M^a Irigoien Sanzberro

SANTESTEBAN TAILERRAK

MEGANE II GTI STYLE DCI 110 CV 11.500€ (10.000€ + 1.500€) 11.500€ (10.000€ + 1.500€) 11.500€ (10.000€ + 1.500€)	LAGUNA II DEPRESSION TOM-TOM DCI 100 CV 11.500€ (10.000€ + 1.500€) 11.500€ (10.000€ + 1.500€) 11.500€ (10.000€ + 1.500€)	MEGANE II TOM-TOM DCI 105 CV 11.500€ (10.000€ + 1.500€) 11.500€ (10.000€ + 1.500€) 11.500€ (10.000€ + 1.500€)
SCENIC II EMOTION DCI 95 CV 11.500€ (10.000€ + 1.500€) 11.500€ (10.000€ + 1.500€) 11.500€ (10.000€ + 1.500€)	ETA GAINERA: SCENIC RX4 SALOMON 1.9 TD 100 CV MITSUBISHI MONTERO SPORT 2.5 KANGOO AUTHENTIQUE 1.9 DCI 80 CV 4X4	

KILOMETRO 0 hasi prezio ezin hobek!!!

digriarekin. Desparasi-
tatuak eta txertatuak.
100 euro. ☎699 926813.

DENETARIK salerosketak

IRUN. Taxi lizentzia sal-
gai, jubilazioa dela-eta.
☎630 123959.

SUNBILLA. Su egurra
salgai, lotean edo xehe-
tua. ☎659 867287/ 699
461394.

Trikitixa berria salgai. 4
ahotsetakoa, profesio-
nala. Urdina. Si bemol
tonoa. ☎620 786277.

IRUN. Titularraren herio-
tzagatik taxi lizentzia sal-
gai. Saltzeko presa. ☎629
438753.

ORONÓZ. Egurra xehe-
tua salgai. Pagoa eta
haritza. Etxera erama-
nen da. ☎676 242520.



ttipi-ttapa
☎ (0034) 948 635 458

urtebetetzeak

Argazki soila: 4€; bikoitza: 8€

Ordaintzeko: 1) Bulegoan, dirutan; 2) Hegoaldetik postaz, 0,37€ko 13 edo 26 seilu. 3) Iparraldetik postaz, 4 edo 8 €ko btekea; 4) www.ttipi.net bitartez



IBAİK maiatzaren 28an 2 urte beteko ditu. Aunitz urtez gure morrokoari eta mila muxu pottolo.




Berako **OIER MARTIN FAGOAGA** 5 urte bete ditu maiatzaren 6an. Zorionak bihotz-bihotzez familiaren partetik. 5 muxu handi!



IRATITZ ZUBIETA Irigarren gure etxeko tiikiak iada urte bat bete du. Zorionak eta muxu pottolo bat familia guztiaren eta bereziki Alazneren partetik.



MADDI ALZUGARRAI GARROK 8 urte beteko ditu maiatzaren 22an. Zorionak eta muxu haundi bat familia eta bereziki Ainhoaren partetik.



Berako **EÑAUT KORTA VICUÑA** 6 urte beteko ditu maiatzaren 27an. Ongi pasa familia osoaren partetik! Muxu haundi bat!



IZARO SALDIAS MAKAZAGA eta **NAIARA SALDIAS SALABERRI** izebailobak urteak beteko dituzte maiatzaren 14 eta 23an. Zorionak Iturengo familiaren partetik!



Berako **HELENEK** 5 urte bete ditu maiatzaren 13an. Iritsi da zure eguna! Zorionak eta muxuak familia guztiaren partetik.



Goizuetako **IZARO SALDIAS MAKAZAGA** 2 urte bete ditu maiatzaren 14an. Zorionak gure etxeko printzesa txikiari!



Aunitz urtez Berako **ENARA** eta **URKO AGIRRE JORAJURIA**!! **ENARAK** maiatzaren 11n 4 urte bete ditu eta **URKOK** 25ean 2 urte beteko ditu. Zorionak bihotz-bihotzez familiaren partetik eta berexiki Nahiaren partetik. Muxuak.



Iturengo **EKAITZ SEIN** eta Lesakako **ENERITZ ETXEPARE** lehengusuek 3 eta 2 urte bete dituzte maiatzaren 10 eta 14an. Zorionak eta muxu pottolo bana familia osoaren partetik!



Berako **IRATXE ORDOKIK** hogeita hama piko urte beteko ditu maiatzaren 16an. Gelditzen zaizu diru pixka bat lagunei gonbidatzeko? Zorionak lagunaren partetik.



Zorionak **IRATI**! Etxalarko **IRATI MENDIBURU GALARREGI** gure etxeko printzesak 4 urte beteko ditu maiatzaren 28an. Ongi pasa eta muxu haundi bat!



PAUL IRAZOKI sunbildarrari aunitz urtez maiatzaren 19ko partez. Zure seme Pablo, Alizia eta Sunbilla eta Urdazubiko familiaren partetik. Oroitu tartaren zain gaudela!



PAUL IRAZOKI sunbildarrari aunitz urtez maiatzaren 19ko partez. Zure seme Pablo, Alizia eta Sunbilla eta Urdazubiko familiaren partetik. Oroitu tartaren zain gaudela!



PAUL IRAZOKI sunbildarrari aunitz urtez maiatzaren 19ko partez. Zure seme Pablo, Alizia eta Sunbilla eta Urdazubiko familiaren partetik. Oroitu tartaren zain gaudela!



PAUL IRAZOKI sunbildarrari aunitz urtez maiatzaren 19ko partez. Zure seme Pablo, Alizia eta Sunbilla eta Urdazubiko familiaren partetik. Oroitu tartaren zain gaudela!

2014AN ERE ZUREKIN EGON NAHI DUGU

Lagundu gaitzazu zure harpidetza berrituz hemen

Ni harpidetuko naiz!

Ni ere BAI!

Ni ere BAI!

Nik ttipi-ttapa laguntzen dut!

Nik ttipi-ttapa laguntzen dut!

PREZIOAK

- Hego Euskal Herria 40€
- Europa 59,50€
- Baztan, Urdazubi eta Malerreka 34€
- Amerika eta Australia 124€
- Iparr Euskal Herria 59,50€
- Leitza 17€

ttipi-ttapa

Keskuntako bidea, 7 - 1
31770 LESANA | T. 948 635 458
info@ttipi.net - www.ttipi.net

Maiatzeko zk. saritua 9.980

Eskualdeko produktuekin osatutako lotea.

Saritua hilaren 31 baino lehen delitu behar du Bortzirietako Hiri Hondakinen Mankomunitatera

948 63 52 54

Ontziek bizitza luzea dute



Beirazko botilak,
flaskoak, poteak.

Birziklatu



Bathurst 1000



Bortzmetzke
Him-Hondalunem
Marechm-metaz



Maarekko
Zetisau orokomen
Maarekko orokomen



ECOEMBES
SEPARAR PARA RECICLAR

ttipi txartela

MEN-BAHAGIATZARIEK MUNDUE
1207211-6
04/2014
123456

ttipi txartelarekin beti irabazten da!

DESKONTUAK, ZOZKETAK...

TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA MUISUTRUK

~%25eko DESGRABAZIOA
ERRENTA AUTOPENEA

Eskatu zurea: 948 63 54 58

Informazio gehiago:

TTIPI-TTAPA

Roskontako bidea 7 LESAKA

T: 948 635 458 - F: 948 635 457

info@ttipi.net

www.ttipi.net

ZOZKETAK

613 ALEKO IRABAZLEAK

1- KAMISETA BAT | Onin Art

Mikel ZELAIETA | BERA

2- 2 LAGUNENTZAKO AFARIA | GITZKO OSTATUA

Bixente GAZTELU | ELIZONDO

3- 2 LIBURU | Erein

Marikanta eta inurriak | Begoña ARRETXE | LESAKA

Er zuten erantzun | Maika ALEMAN | IRURITA

4- 3 LIBURU "ZONBIGUNEK" | Ibaizabal

Andoni LARRAÑAGA | BERA

Celestino MUTUBERRIA | SALDIAS

Maribel SAGASETA | DONAMARIA

5- 2 SARRERA | SORGINEN LEZEAK

M^a Angeles OSKARIZ | ELIZONDO

6- 2 SARRERA | Aquarium

M^a Junkal ZEBERIOR | BERA

1

KAMISETA BAT
Onddo ta punto
www.onddotapunto.com



onddo
ta punto

2

2 LIBURU
Ibaizabal argitaletxea
www.ibaizabal.com



ibaizabal

3

HARPIDETZA HILABETE 1
Berria egunkaria
www.berria.info/



berria

4

TXANTXARIAK DVDa
Urtxintxa eskola
www.urtxintxa.net



5

2 LIBURU
Elkar argitaletxea
www.elkar.com



ekar

6

2 SARRERA
Donostiako Aquariuma
www.aquariumss.com



AQUARIUM

DESKONTUAK



BERA | %10 matrikulan

FANTXIKE

ELIZONDO
%10, 30etik gorako gastuan

Amajia
ludi eta estismo zentroa

DONEZTEBE | %5 kosmetikan %10
oparietan 50etik gora. Promozioetan ez

Agara
kirolak

BERA | %5 kirol artikuluetan

oreka
nutrizioa eta dietetika
belardenda

LESAKA
%5 kontsulta eta produktuetan

jaione tindategia

DONEZTEBE
%10, 12etik gorako gastuan